# Goienkaria

2009ko ekainaren 19a > Egubakoitza > IX. urtea > 381. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net



"Gizartean, buruko gaitzen gaineko kultura falta handia dago"

**Juan Moro** Zamudioko ospitaleko psikiatra > 09

**G2a** **Elkar-Hezikoak, literatura eta zinema batuz** > 37

**HEZKUNTZA** **Hotzeko Estanpazioko lehen promozioa lanerako gertu da** > 06

**ELKARTASUNA** **Garapenerako gobernuz kanpoko 78 erakunde bihar, Arrasaten** > 07

**KIROLAK** **Bihar, 169 debagoiendar lehiatuko dira Quebrantahuesos proban** > 36

**INTERNET** > SARE SOZIALA

# 'Zugaz.com' euskarazko lehen sare soziala sortu da bailaran

**DENONDAKO** Ume, gaztetxo zein helduendako egokia da, eta segurua; umeek gurasoekin goza dezakete webguneaz

**ERABILPENA** Lagun berriak egin, argazkiak eta bideoak igo... aukera asko ematen ditu 'Zugaz.com' webguneak

**HIZKUNTZA** Euskarazko lehenengo sare soziala da, Debagoienean sortua, baina euskal hiztun guztiondako > 02-03

**JAIAK** > SANJUANAK

## Sanjuanak bete-betean Arrasaten

Martitzenean hasi eta zapatura arte askotariko ekitaldiak egongo dira jaietan > 39

## Esku artean dituzte giltzak La Caixako etxeen 148 jabeek, atzo ezkero

Zerrajera gunean, La Caixako Etxebizitza Eskuragarrien Programaren barruan eraiki diren etxeetako onuradunek atzo, eguena, jaso zituzten giltzak. 148 onuradunek jaso zituzten, etxebizitzek inguratzen duten plazatxoan, banketxeko eta Udaleko ordezkarien eskutik.

Babestutako errenta dute etxebizitzok: hilean 260 euroko errenta izango dute. 40-50 metro koadrokoak dira eta gela bat edo bi dute. Zozketa bidez adjudikatu zituzten martxoaren 26an egindako ekitaldian. > 15




**GILTZAK** Kutxa baten barruan banatu zituzten giltzak Jaume Cabre La Caixako ordezkariak eta Ino Galparsoro Arrasateko alkateak. JOKIN BEREZIARTUA

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 05-07
**Iritzia** > 08
**Elkarrizketa** > 09
**Gutunak** > 10
**Herriak** > 13-33
**Kirola** > 34-36
**Kultura** > 38-39
**Sailkatuak** > 40
**Gazteak** > 41
**Telebista-Irratia** > 43
**Berri-zakua** > 44-45
**Eskelak** > 45
**Non-zer** > 46-47

**AISIALDIA** > FERIA

## Erdi Aroko azoka Bergaran

Zapatuan eta domekan egingo da, lehenengoz, eta euskal izaeradun azoka izango da > 20

**AZPIEGITURAK** > AHT

## AHTko langile baten autoa hondatu dute

AHT eraikitzeko lanetan dihardaen langile baten autoa erasotu zuten Arrasaten eguazten goizaldean. Ertzaintzaren arabera, pare bat ezezagunek autoko kristalak hautsi eta suziria bota zuten auto barrura. > 15

Babes ofizialeko etxeetarako eskaintza bereziak



IKER
SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48
FAGOR

**INTERNET** > 'ZUGAZ.COM' SARE SOZIALA

# Euskarazko lehen sare soziala badago Interneten: 'Zugaz.com' da

**ARRAKASTA** Aurkezpena egin aurretik ere, erabiltzaile asko ditu, eta eskaintzen dituen jokoetan 2.000 jokalditik gora egin dira

**DENONDAKO** Seme-alabek gurasoekin, gaztetxoek zein helduek, euskal internauta guztiek erabiltzeko moduko sarea da



*Zugaz.com* bailarako gaztetxoei erakusten dabiltza egunotan sortzaileak. Argazkian, Arrasaten

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE

Dagoeneko martxan, eta martxa onean –erabiltzaileek emandako erantzunari kaso eginaz– dago euskarazko lehenengo Interneteko sare soziala: *Zugaz.com*. Goiena Komunikazio Zerbitzuek sortuta, egunotan, herririk herri, hainbat ume eta gaztetxori azagutarazten eta zelan erabili azaltzen dihardute, eta haiek ondo agudo ikasi dute: oraindik proba fasean zegoenean, "jendeak dagoeneko deskubritu zuen *Zugaz.com*, eta alta eman zuen", dioskute arduradunek.

Komunitateko kide egiteko, erabiltzaile-izen bat, pasahitz bat eta, nahi bada, posta elektroniko helbide bat besterik ez dira behar. Sarea oso erabilerraza da, intuizioz ikas daitekeena. Nork bere soslaia sor dezake, argazki bat igota; lagunekin konektatu daiteke, edo lagun berriak egin; tribu edo taldeetan parte har dezake –zaletasunen, herriaren, ikastetxearen… arabera sortutako tribuak daude, baina norberak berea ere sor dezake–; dauden milaka jokoetan jokaldiak egin; argazkiak edo bideoak igo… Beste aukera bat ere ematen du, sare sozialetan orain arte iukusi ez dena: trukeak egiteko foro bat. Hor, norberak gehiago behar ez dituen gauzak eskain ditzake, eta beste edozein erabiltzailek beste zer edo zer eskain diezaioke trukean.

**Milaka joko, argazkiak eta bideoak igotzea, lagun berriak egitea... denetariko aukerak daude 'Zugaz.com'-en**

**Gurasoekin erabil dezakete umeek, eta sortzaileak, Goienak, 'Zugaz.com' familian gozatzea aholkatzen du, adin guztietarako baita egokia**

Hitz baten esanda, *Zugaz.com*-ek eskaintzen dituen aukerak nahi adinakoak dira.

**ERABILTZEKO OSO SAMURRA**

*Zugaz.com*-eko arduradunak, Amaia Txintxurreta aurkezlea lagun dutela, webgunea ume eta gaztetxoei aurkezten eta zelan erabili azaltzen dabiltza; baina gaztetxook, teknologia berrietara hain ohituta daudenez eta, izan ere, betidanik ezagutu dituztenez, ez dute azalpen larregirik behar: "Ikusi dugu euren artean segituan hasten zirela erabiltzen eta batak besteari erakusten. Lehenengo hiru azalpen eman, eta berehala hasten dira argazkiak eta bideoak igotzen. Oso bizkorrak dira", diote arduradunek.

Erabiltzea, bai gaztetxo bai helduei ere, samurrago egiteko, hizkera natural eta egunerokoan dago *Zugaz.com*: hala, hitz teknikoak alde batera utzi eta *mezutxoak* hitza erabiltzen da, esaterako, *twitter*, askorendako, hitz arrotza erabili beharrean.

Horrez gain, euskarazko lehenengo sare soziala da *Zugaz.com*. Hori naturaltasunez ikusten dute sortzaileek: "Euskaraz dago, guk euskaraz funtzionatzen dugulako; hala ere, euskaraz egoteagatik ez da gehiago erabiliko, baizik eta gaztetxoendako baliagarri baldin bada".

LABUR

**> ZER DA 'ZUGAZ.COM'?**
Interneteko sare sozial bat da; euskarazko lehenengo sare soziala, batez ere ume eta gaztetxoei zuzenduta, baina edozeini irekia.

**> ZE AUKERA EMATEN DU?**
Lehenengo pausoa nork bere soslaia edo profila osatzea da; hortik aurrera, lagunak egin eta lagunekin mezutxoak, argazkiak, bideoak... partekatu ditzake; tribuetako kide egin; emateko dituen gauzak trukatu edo beste batzuenak hartu...

**> ZENBAT JOKO DAGO?**
*Zugaz.com*-ek 8.000 bat jokotan ibiltzeko aukera ematen du. Gustu guztietarako modukoak daude: akziozkoak, klasikoak, pertsonaia ezagunetan oinarritutakoak, panpinenak, kiroletakoak...

**> ZELAN KOMUNIKA NAITEKE LAGUNEKIN?**
*Mezutxoak* izeneko baliabidearekin, mezu labur eta azkarrak argitara ditzake norberak. Mezutxo batzuk publikoak dira, eta beste batzuk, bakarrik lagunek ikustekoak. Unean zer egiten zabiltzan edo non zauden esateko balio dute, eta elkarrizketa azkarrak izateko.

**> ZE DIRA TRUKEAK?**
*Zugaz.com*-eko foro publiko baten, norberak eskain dezake trukatu nahi duen zerbait, eta inork erantzuten duen ikusi. Trukeak ere onar daitezke.

**ADIN GUZTIETARAKO**

Debagoienean sortuta izan arren, euskarazko edozein erabiltzailerendako zabalik dago *Zugaz.com*: "Adin aldetik, Internet erabiltzen hasten direnetik –aldakorra da hori, baina 8 urte inguru– 16 bat urtera artekoei dago zuzenduta, batik bat, baina ez da horietara mugatzen; izan ere, adin horretatik gorako erabiltzaileak baditugu: 20-35 urte artekoak", dioskute arduradunek.

Horretan, euskal kasua ez da bereizten beste batzuetatik: "Beste herrialde batzuetan, egileek lortu dute 8-16 urte inguruko tarte hori izatea sarearen oinarria, baina 20 urtetik gorakoek ere hura izatea bere sare sozial hobetsi gisa".

**SEGURUA DA**

Noiz hasi *Zugaz.com*-en –edo bestelako sare sozial baten– ibiltzen, eta zelan? Ona ote da gure ume eta gaztetxoendako? Aita-ama askoren buruan izango dira galdera horiek eta antzekoak; izan ere, sare sozialak, eta Internet, oro har, oraindik fenomeno berria dira.

Hala ere, gurasoek lasai egoteko arrazoiak dituzte. Goienako Ikus-entzunezkoen arduradun Iban Arantzabalek hauxe diosku: "*Zugaz.com* segurua da. Apirilean izan genuen Espainiako bi erakundek, Inteco (Telekomunikazio Teknologien Institutu Nazionala) eta AEPD-ek (Datuen Babeserako Espainiar Agentzia) egindako gomendioen berri. Bitan batuta ekartzen ditut gomendiook: adingabeei informazioa ematea tresnak erabiltzeko, bata; bestea, gurasoek beren burua heztea, Internet zer den jabetzea. *Zugaz.com* komunitatea

LANBIDE HEZIKETA CES
ILE APAINDEGI ETA ESTETIKA KURTSOAK

Matrikulazio epea zabalik
14 hilabetetako ile apaindegiko kurtsoak ere bai
Titulo ofiziala
3. maila Erresuma Batuan
Nazioartean du balioa
Goi mailako diplomatura
Olagibel kalea 61 B
Tel.: 945 12 03 60
Gasteiz
formacionprofesionalces@gmail.com




egindako erakustaldi baten neskatila batzuk. Eskuman, *Zugaz.com*-en atal bat. XABIER URTZELAI

hizkuntzak berak mugatuko du. Tamalez, ez gara milioika euskaldun eta *Zugaz*-eko mugimendua Goienako Telematika saileko arduradunek gainbegiratu ahal izango dute. Apustua izan da komunitate euskalduna, erakargarria eta segurua eskaintzea".

Arrasateko Txatxilipurdi ume eta gaztetxoendako elkartearen iritziz, *Zugaz.com* eta Internet, oro har, "tresna ona" izan daitezke, "erabileraren arabera". Hala, Interneten "erabilera osasuntsua" egiteko, gomendio hauek egiten dituzte: "Batez ere oraindik txikiak diren umeen kasuan, gurasoekin batera nabigatzea gomendatzen dugu; ordenagailua etxeko salan edo leku komun baten edukitzea; eta Internetek ez ditzala ordezkatu ikasteko, kalean jolas egiteko, lotarako… orduak". Bestalde, sare soziala euskaraz egotea ere positibotzat jotzen dute.

**ERABILTZAILEEK ERABAKIKO DUTE**

Bada, gonbidapena zabalik dago Interneteko euskal erabiltzaileei eta, batez ere, gaztetxoei. Zugaz.com-en lagunekin eta familiarekin ondo pasatzeko. Betiere, erabiltzaileendako eta eurek gidatzeko webgunea izateko sortu dute: "Erabiltzaileek esango dute sarea nondik joan, zer gustatzen zaien gehien eta nondik jo. Erabiltzailea gero eta gehiago izan behar da aldaketekiko jabea".

**Amaia Txintxurreta** > 'Zugaz.com'-eko erabiltzailea

## "Egin naiz tribu batzuetako kide, eta lagun batzuk egin ditut dagoeneko"

**L.K.** > ARRASATE

**Ume eta gurasoen artean oso aurpegi eta ahots ezaguna dugu Amaia Txintxurreta. Berak dihardu egunotan gaztetxoei *Zugaz.com* erakusten, eta berak ere badauka bere soslaia sare horretan.**



GOIENKARIA

**Hainbat herritan aurkeztu duzue *Zugaz.com*. Ze erantzun jaso duzue ume eta gaztetxoen aldetik?**

Oraingoz, Oñatin, Aretxabaletan, Eskoriatzan eta Arrasaten aurkeztu dugu. Erantzuna ona izan da, eta ikusi dugu egunero sortu direla soslai berriak, egunero sartu direla erabiltzaile berriak. Aurkezpena egin ez dugun egunetan ere sortu dira soslaiak, jendea ibili da lagunak egiten, argazkiak eta bideoak igotzen, jokoetan ibiltzen… Batak besteari ere laguntzen dio.

**Orain arte, Debagoieneko erabiltzaileak dira gehiengo…**

Bai, hala da; batez ere, aurkeztu dugun herrietakoak. Hala ere, *Zugaz.com* ez da bakarrik Debagoienerako, eta Debagoien kanpoko erabiltzaileak ere sartuko dira, jendeak *Zugaz.com*-en berri jaso ahala.

**Zuk ere sortu duzu zure soslaia, ezta?**

Bai; ikusi gura nuen zelakoa zen *Zugaz.com*, zelan erabiltzen zen… Dagoeneko egin naiz tribu batzuetako kide, eta lagunak egin ditut.

**Eta zer gustatzen zaizu gehien *Zugaz.com*-etik?**

Argazkiak igotzeko ematen duen aukera, adibidez: nik igotzen ditudan argazkiak ikusteko eta horiei erantzuteko aukera dute nire lagunek. Bideoekin ere gauza bera gertatzen da. Horrez gain, lagunen artean argazkiak eta bideoak partekatzeko modu ona da: adibidez, koadrilakoak Donostiara joan bagara egun pasa, eta argazkiak atera baditugu, nik igota beste guztiek ere jaso ditzakete, batak besteari bidaltzen ibili beharrean.

**Eta orain arte, erabiltzaileei zer gustatzen zaie gehien?**

Jokoak oso gustukoak dira, eta gehienek horietara jotzen dute lehenengo; milaka joko daude aukeran. Elkarri ere esaten diote ze joko dagoen. Bestalde, mezutxoak ere asko bidaltzen dituzte. Horiek balio dute esateko zer egiten gabiltzan, non gauden… eta publikoak edo pribatuak izan daitezke.

**Besteak beste, zuk aurkezten duzun *Kantari* saioa jarraitzeko ere balio du, ezta?**

Bai; *Kantari*-ren gaineko bloga sortu dugu *Zugaz.com*-en, eta saioaren gaineko informazioa sartzen dugu: hurrengo ikuskizunak noiz izango diren, horietako argazkiak, entseguetako bideoak…

IKUSPUNTUA

**Joxe Aranzabal**

## Biozu rollua?

Zer egiten dute gaztetxoek etxera iristen direnean, lagunei agur esanda? Seguruenik, txateatu bost minutu lehenago kalean agurtutako lagun berberekin, baldin eta etxean ordenagailua eta Interneteko konexioa baldin badute. Gaur egungo gaztetxoak etengabe ari dira elkarrekin komunikatzen. *Zugaz* sare soziala da eta, seguru asko, areagotu egingo du joera hori gure inguruko gaztetxoen artean, era guztietako tresnak eskaintzen baititu -doan- gazteak komunikatu eta elkarrekin jolas daitezen, horretarako mezu laburrak, argazkiak eta bideoak erabilita. Eta bideo joko pilo bat. *Zugaz* hobeto ezagutze aldera, bertan kontu bat sortu eta saltseatzen ibili naiz. Atentzioa eman dit zenbat aukera eskaintzen dituen eta zein erraza den nabigatzeko. Goienak plataforma bat sortu die Euskal Herriko gazteei, euskaraz. Orain haien esku dago berau erabiltzea, hobetoen egiten dutena egiteko: *zmz wapa, zutaz pentsatzen… TeKiero!!, biozu rollua?* Garai bateko erromerietan bezala, baina aro digitalean.

DATUA

# 2.000

**JOKALDI**

***Zugaz.com*-en dauden 8.000 jokoetan, erabiltzaileek 2.000 jokaldi dagoeneko eginda dituzten, sarea sortu eta bi bat astera. Jokoak dira, hain zuzen, erabiltzaileen gustukoenetako atal bat; sartu eta segituan jotzen dute horietara.**

DATUA

# 14

**URTE**

***Zugaz.com*-en ibiltzeko ez dago adin finkorik, eta denondako egoki da. Hala ere, arduradunek gomendatzen dute gutxienez 14 urtetik beherakoak heldu batekin ibiltzea, eta, orokorrean, gurasoek ere soslaia sortzea eta sarea familiartean gozatzea.**






## Ekainak 20, zapatua (San Martin eta Munibe plazetan)

**10:30** Deialdia: txalapartariak.
**10:45** Pregoia eta irekiera ekitaldia.
**11:30** Erdi Aroko azoka euskal kale animazioa.
**12:00** Ezpata borroka.
**13:00** Bertso paperak.
**13:30** Istorio kontalaria. San Pedro elizako aterpean.
**17:00** Ezpata borroka.
**17:30** Erdi Aroko azoka euskal kale animazioa.
**18:30** Bertso paperak.
**19:00** Istorio kontalaria. San Pedro elizako aterpean.
**20:00** Hegazti erakusketa udaletxearen atzealdean.
**21:00** Zer ote?

## UMEEN GUNEA (Ariznoa plazan, epaitegi aurrean)

**10:30-14:00** Erdi Aroko Zirku tailerra.
**10:30-14:00** Euskal jolasak.
**12:30-13:30** Ipuin kontalaria.
**13:15-14:30** Mitologia kalejira antzerkia.
**16:30-20:00** Erdi Aroko Zirku tailerra.
**16:30-20:00** Euskal jolasak.
**18:30-19:30** Ipuin kontalaria.
**19:30-20:30** Mitologia kalejira antzerkia.

## Ekainak 21, domeka (San Martin eta Munibe plazetan)

**10:30** Deialdia: txalapartariak.
**11:00** Erdi Aroko azoka euskal kale animazioa.
**11:30** Istorio kontalaria. San Pedro elizako aterpean.
**12:15** Ezpata borroka.
**13:00** Bertso paperak.
**19:00** Falkoneria erakustaldia udaletxearen atzealdean.
**17:00** Ezpata borroka.
**17:30** Erdi Aroko azoka euskal kale animazioa.
**18:00** Istorio kontalaria. San Pedro elizako aterpean.
**18:30** Bertso paperak.
**19:00** Falkoneria erakustaldia udaletxearen atzealdean.

## ASTEBURU OSOAN ZEHAR

- Girotze lana.
- Jaki ezberdinak dastatzeko guneak. (taloa, olagarroa…)
- Umeen gunea.
- Historia erakusketa.
- Hegazti harraparien erakusketa.
- Artisau lanbideak zuzenean ikusteko aukera.
- Artisau saltokiak (60 saltoki inguru)

txoria txori egitasmoak
BSQ PWR

**POLITIKA** > EA-REN ZATIKETA

# EAk zuzendaritza berriko kideak aukeratuko ditu oraingo asteburuan

Gasteizen egingo du EAk ez ohiko kongresua eta Pello Urizar arrasatearra aukeratuko dute seguruen EAko Idazkari Nagusi

**OIHANA ELORTZA** > ARRASATE

Gasteizko Europa Gizarte Etxean egingo du EAk ez ohiko kongresua zapatuan eta domekan. Bi zati nagusi izango ditu: ponentzia politikoa eta estatutua errebisatzeko ponentzia.

**ZUZENDARITZAKO KIDEAK**

Idazkari Nagusia eta Batzar Eragileko eta Batzar Nagusiko kideak aukeratuko dituzte EAko afiliatuek, beste erabaki batzuen artean. Arrasateko Pello Urizar da Idazkari Nagusia izateko orain arteko hautagai bakarra, "baina domeka goizera arte edonork aurkez dezake bere burua postu horretarako, orduan amaitzen da-eta epea", zehaztu du Urizarrek.

EAko herri batzar guztiek dute aukera ordezkariak izateko kongresuan, Debagoienetik ere joango dira. "Batzar Eragilea osatuko dutenetako hamar lagun, Idazkari Nagusia eta arlo ezberdinetako beste bederatzi idazkari, eta Batzar Nagusietako 75 kide aukeratuko dituzte. Ordezkariek onartutakoa, ordea, alderdiko Osoko Batzarrak berretsi behar du, eta hori domeka goizean egingo dute. Eguerdirako erabaki denak hartuta eta kongresua bukatuta egongo dela aurreikusten da", azaldu du Pello Urizarrek.

**BOST ZINEGOTZI ALKARBIDERA**

EAk Debagoienean dituen herri batzarrek aste honetan egin dituzte bilerak alderdi barruko hausturaren ondorioz bakoitzak zein ildo hartuko duen erabakitzeko. EAko ildoa jarraitzea erabaki dute Aretxabaletan, Arrasaten, Antzuolan eta Aramaion. Bergaran, Oñatin, Eskoriatzan eta Elgetan, berriz, Alkarbideren ildoa jarraituko dute.

Bestalde, 12 zinegotzi ditu gaur egun Debagoienean EAk. Orain arte Eusko Alkartasunaren izenean jardun duten Debagoieneko bost zinegotzik bat egin dute alderditik bereizi eta Alkarbide izena hartu duen taldearekin. Bergarako Lauri Askargortak, Elgetako Iñaki Ugarteburuk, Eskoriatzako Karmelo Lezetak, eta Oñatiko Amaia Intzak eta Ernesto Murgiondok egin dute bat Iñaki Galdos buru duen alderdi berriarekin.

Bost zinegotziok jakinarazi dute aurrerantzean Alkarbideren izenean egingo dutela lan euren udaletan. Adierazi dute "erabaki mingarria" izan dela, baina "ezinbestekoa aldi berean, EAk hartu duen norabideagatik". Diote Eusko Alkartasunaren norabide berriak ez duela boto emaileen onespenik, eta horren ondorio izan direla hauteskundeetako emaitzak. Euren herriekiko eta herritarrekiko konpromisoa berretsi dute, eta euren ongizatea bermatzeko lanean jarraituko dutela gaineratu.

Aretxabaletako zinegotzi Lore Martinezek eta Edorta Mendietak ziurtatu dute Eusko Alkartasunan jarraituko dutela, eta baita Arrasateko Pello Urizarrek ere.

DATUA

**12**

**ZINEGOTZI DITU EA-K BAILARAN**

Hauxe da banaketa: Oñatin eta Aretxabaletan, hiruna; Eskoriatzan bi eta Arrasaten, Bergaran, Elgetan eta Aramaion, bana.

**Erabakia, herrika**

| | |
|---|---|
| Arrasate | EA |
| Bergara | Alkarbide |
| Oñati | Alkarbide |
| Aretxabaleta | EA |
| Eskoriatza | Alkarbide |
| Antzuola | EA |
| Aramaio | EA |
| Elgeta | Alkarbide |

EA-KO KIDEEN IRITZIA ZATIKETAREN GAINEAN



**Pedro Mendieta**
Aretxabaletako alkate ohia

### "Bide berriak egin gura ditugu beste alderdiekin batera"

"Aretxabaletako batzarrak EAn jarraitzea erabaki du, ez duelako zentzurik beste alderdi bat sortzeak, hori kaltegarria delako abertzaleendako eta Euskal Herriarendako, bestela ere nahiko zatiketa dago-eta. Hemendik aurrera, beste alderdiekin harremanetan jarri eta bide berriak egin gura ditugu elkarrekin".



**Ernesto Murgiondo**
Oñatiko zinegotzia

### "Udazkeneko kongresua gorpuzten gabiltza orain"

"Oñatiko zinegotziok Alkarbideren ildoa hartu dugu. Haustura berria da eta alderdi berriaren eratze kongresuaren aurreko fasean gaude orain. Udazkenean egingo dugu kongresua eta hori gorpuzten gabiltza, ponentzia politikoa prestatzen, adibidez. Bestalde, beste lurraldeekin izan ditugu harremanak".



**Angel Larrañaga**
EAko historikoa

### "Zatiketak txarrak dira, baina EAn arazo larria zegoen"

"EAren zatiketa ez dut ondo ikusten, zatiketa guztiak kaltegarriak, mingarriak eta txarrak direlako. EAJrena ezagutu nuen eta badakit zer diodan. Hori esanda, zehaztu nahi dut, zatiketa honek erakusten duela EAren barruan arazo larria zegoela, aspalditik, eta ez gara gauza izan arazoa konpontzeko. Ondorioa da Alkarbide".



**Lauri Askargorta**
Bergarako zinegotzia

### "Erabakigarria izan da Bergarako EAko historikoen iritzia"

"Bergarako kasuan, oso erabakigarria izan da EAn hasieratik dauden alderdikide historikoen iritzia eta horiek oso garbi zeukaten EAko sorrerako balore, ildo edo estrategietatik urruntzen zegoela alderdia. Horregatik erabaki dugu Gipuzkoan nagusi den ildoarekin, Alkarbiderekin, bat egitea. Erabaki zaila izan da, berria naizelako politikan".

**AZPIEGITURAK** > ERREPIDEAK

# 2010ean hasiko dituzte Beasain-Durango errepidearen Bergarako zatiaren obrak

Bizkaiko Diputazioak iragarri du, bere aldetik, bultzada emango diola Durangotik Kanpantzarreraino joango den korridore zatiari

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Aurreratuta dabiltza Zumarraga-Urretxu/Legazpi korridore-zatiari dagozkion lanak egiten; bestela esanda, Beasain-Bergara (GI-632) korridorearen azkenaurreko zatiari dagozkion lanak dira bide onetik doazenak. Oskar Rekaldek, Bidegiko (Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia) bozeramaileak emandako xehetasunen arabera, "Urola zeharkatzen duen biaduktoaren %50 ja ipinita dago".

Gipuzkoako Diputazioko ordezkariak gaineratutakoaren arabera, "2007an hasitako lanak 2010eko aurreneko seihilekoan bukatuko dituzte".

**ERAIKITZE PROIEKTUA IDAZTEN**

Horrek esan gura du horren ostean hasiko direla Bergarari dagokion errepide zatiko lanak egiten. Rekaldek jakinarazitakoaren arabera, kasu horretan obren "eraikitze proiektua idazteko fasean" dago.

Bergarako errepide zati horren harira, Diputazioko ordezkariak azpimarratu duenez, "oso obra garrantzitsua da, ia 10 kilometro luze iango ditu eta 180 bat milioi euroko aurrekontua". Konparazioa ere egin du: AP1 autobidearen zati bati dagokion aurrekontu bera izango du Bergarako zatiak. Eta kontatu du, zati horren elementurik "azpimarragarriena" izango dela "Deskarga saihestuko duen tunela".

**GIPUZKOAKO KOMUNIKAZIOAK**

Era berean, eta orokorrean begiratuta, Oskar Rekaldek azpimarratu gura izan du Beasain-Bergara korridorea "oso garrantzitsua" izango dela Gipuzkoako komunikazioetarako, besteak beste, "Gipuzkoako biribilgunea hegoaldetik osatu egingo duelako eta barruko eskualdeak lotu egingo dituelako".

**DURANGO-KANPANTZAR**

Bestalde, eta errepide horren harira, Bizkaiko Diputazioak asteon hainbat komunikabidetan iragarri du Bizkaiko errepide plan berrian "lehentasuna" emango diotela Durango-Kanpantzar korridoreari. 3.750 milioi euro inbertituko ditu Bizkaiko Diputazioak errepide plan orokorrean. Eta hortik 200 bat milioi euro erabiliko dituzte Durango-Kanpanzar korridorea eraikitzeko, edo bestela esanda, A8 autobidea Kanpantzarrekin lotzeko. Gainera, iragarri dutenaren arabera, errepide hori erabiltzearren ez da ordaindu beharrik izango eta lurpetik pasako da.

ASTELEHENEKO
**Goienkaria**
astelehenean, **aste bukaera osoa**

**Harpidedunen txokoa**

**Ekaineko zozketa**

**Sariak irabazteko**
**HARPIDETU!**
**Tel.: 943 08 10 50**
***harpidetza@goiena.com***
**Kuota: 40 euro**

**MUNDUMIRA PACK-A**



Mundumirako pack-a.
BIDALI AG MUNDUMIRA 5533 zkra.

**UMEENTZAKO PUZZLEA**



Argitxo eta bere lagunen puzlea.
Bidali AG PUZZLEA 5533 zkra.

**KAMISETA**



Skunkfunk kamiseta bat.
BIDALI AG KAMISETA 5533 zkra.

**PENDRIVE**



Goienako Pent-Drive bat.
BIDALI AG PENDRIVE 5533 zkra.

**SARI NAGUSIA**

**PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA**



**BELAONTZI BATEAN IRTEERA HONDARRIBIATIK**

J.L Abuinen eskutik
**J.L ABUIN / PUY BIDEBURU**
25 urtetan teknika naturalak zure eskura jartzen

Mendia jauregia 639 02 47 14 | S. Josepe, 10 943 77 01 33 | Kiroldegia 943 77 16 77

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: *harpidetza@goiena.com*




Tituludun berriak, irakasleekin. LEIRE KORTABARRIA

**HEZKUNTZA** > TITULU BANAKETA

# Hotzeko Estanpazioko lehen promozioa lanerako gertu da

Hezkuntza eta enpresako ordezkariek profesional prestatuak izatearen garrantzia azpimarratu zuten Debagoiena krisialditik irteten denerako

**LEIRE KORTABARRIA** > BERGARA

Miguel Altuna Lanbide Heziketa institutuan Hotzezko Estanpazioa bukatu duten zazpi ikaslek tituluak jaso zituzten astelehenean. Lehenengo promozioa dira. Miguel Lazpiur, Confebaskeko presidentearen; David Urzainki, Etengabeko Ikaskuntzako eta Lanbide Heziketako sailburuordearen; Juanjo Alvarez, Bergarako Uned-eko zuzendariaren; eta Pedro Muñoz, Tornilleria Deba enpresako gerentearen eskutik jaso zituzten tituluok. Hamabi ikasle hasi ziren eta zazpi titulatu dira.

Ikasketa horiek Maiatz –Miguel Altunako Alanbrearen Teknologien Zaintza– programaren fruituetako bat dira; Debagoienean oso garrantzitsua den sektore bati hezkuntza aldetik erantzutea du helburu.

**HEZKUNTZA, GAKOA**

Tornilleria Deba enpresako gerenteak, Pedro Muñozek, esan zuen enpresen produktuari balore gehitua eransteko ezinbestekoak direla ondo formatutako langileak: "Urte zaila da hau, baina krisia bukatzen denean, ondo prestatutako jendea beharko dugu", esan zuen.

UNED-Bergarako zuzendariak, Juanjo Alvarezek, esan zuen Maiatz proiektuak "unibertsitateen, Lanbide Heziketaren eta enpresen arteko elkarlanaren bidea" zabaltzen duela eta horretan "gakoa" dela, eta nabarmendu zuen graduondoko ikasketak unibertsitate mailako ikasketekin balioztatuko direla Boloniatik datorren sisteman.

Confebask-eko presidenteak, Miguel Lazpiurrek, ere krisia aipatu zuen: "Epe motzean ez da irteerarik ikusten, baina hau da irteerara bidea: kalitatea, maila teknologikoa ematea, ondo antolatutako enpresak eta hobekuntzan trebeak direnak izatea, eta hori hezkuntzaren eskutik bakarrik lor daiteke". Bere iritziz, krisia bukatzerakoan aro berrirako gertu egotea erabakigarria da.

Azkenik, Lanbide Heziketako sailburuordeak, David Urzainkik, txalotu egin zuen Maiatz proiektua, "oso berritzailea" dela esanez, eta "kanpo formazioan zegoen hutsunea" bete egiten duela, enpresak eta hezkuntza zentroak bateratuz.

**Miguel Lazpiur** > Confebask-eko presidentea

## "Lana etorriko da, baina ondo gertatutakoendako"

**L.K.** > BERGARA

**Krisia errekonozitu bai, baina baikor agertu da Miguel Lazpiur: enpresek euren burua gertatu behar dute etorriko diren erronketarako.**

**Zein da titulu hauen garrantzia Debagoienerako?**

Oso handia: gure inguruan, 40 bat enpresa badaude hotzeko estanpazioan dihardutenak, eta horiendako jendea ondo gertatzea oso garrantzitsua da. Beste alde batetik, Maiatz proiektuak laguntzen du beste herrialde batzuetako antzeko erakunde eta zentroekin harremana bultzatzen. Berrikuntza eta garapenerako aukera ere ematen du, gure enpresak munduan lehen mailan egon daitezen.



GOIENKARIA

**Sektorea zelan dago orain?**

Gauzak geldi samar daude, baina erronkarako gertatu behar gara, izan ere, aukerak sortuko dira: espero da urte gutxian munduko kontsumitzaileen kopurua bi edo hiru bider handitzea. Lehiakideak ere izango ditugu, eta gure burua gertatu behar dugu aurrean egoteko. Gure burua gertatze horrek datza gure enpresak eta enpresetako pertsonak gertatzean, pentsaera aldetik eta lehiakortasunerako, bai hobekuntzan, bai Berrikuntza eta Garapenean.

**Lanik gabe dagoenari zer esango zenioke?**

Erraza ez da aholkuak ematea; baina gaur egun ezin gaitezke gora begira egon. Etorkizuna hor dago, aukerak izango dira, lana etorriko da, baina ez da txantxetakoa izango, baizik eta ondo gertatuta dauden pertsonendako izango da.

**ELKARTASUNA** > GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEAK

# Euskadiko 78 GGKE Arrasaten batuko dira bihar

Euskadiko Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundeen Koordinakundeak –ibarrekoak dira lau kide– Arrasaten egingo du batzar orokorra

**LEIRE KORTABARRIA** > ARRASATE

Euskadiko Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundeen (GGKE) Koordinakundeak Arrasaten egingo du bere urteko ohiko batzarra, bihar, zapatua. Lekua ezohikoa da, beti hiriburuen baten elkartzen direlako, baina aurten, Koordinakundeko Debagoieneko lantaldeak bultzatuta, ibarrera etorriko dira Euskadiko Koordinakundea osatzen duten 78 Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundeak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoatik.

Jakina, han izango dira Debagoieneko kideak ere: Mundu Solidarioa Helburu-AMS, Mugarik Gabeko Ingeniariak, Serso Euskal Herria eta Mundukide Fundazioa. Denak Kulturaten batzartuko dira 09:00etan.

Aurtengo gaien artean, hauek nabarmentzen ditu Nacho Ribechini Koordinakundeko kideak: "Garapenerako Lankidetza oso garrantzitsua da guretako; horren barruan, nazioarteko laguntzaren gaineko gai batzuk eztabaidatuko ditugu, hala nola, giza-garapen jasangarria; bestalde, garapenerako hezkuntza, eta administrazioek eta GGKEok zer egin dezakegun. Horrez gain, krisi humanitarioetan zelan jokatu; aspalditik jorratzen gabiltzan BPGeko %0,7 ematea; erakunde pribatuen eta GGKEon harremana eta haiek zer ekar diezaioketen Hegoaldeko garapenerako elkarlanari; eta Lankidetza Publikorako irizpideak errepasatuko ditugu, batez ere begiratuta ea udaletan zelan parte har dezakegun gehiago GGKEok".

**GGKE GEHIAGO DIRA IBARREAN**

"Ibarreko GGKEen errealitatea askoz zabalagoa da; denak ez dira Koordinakundeko kide", diote Debagoieneko Koordinakundeko kideek, baina denak ez dira Koordinakundeko kide; hala ere, horien lana ere aipatu gura dute Debagoieneko kideek: Arrasateko Harreman, Elkar Hezitzen eta Nubi; Bergarako FISC, Bubisher eta Oscar Romero Solidaritza Taldea; Oñatiko Banoia eta Tau Fundazioa; Aretxabaletako Hiruatx eta Felix Baltistan Fundazioa; Eskoriatzako Atxorrotx; Antzuolako Anelkar…

**etxeko leihotik**



**Eneko Azkarate** > 'eazkarate@goiena.com'

## Krisiak baldintzatuko du udalen agintaldi amaiera

Ekonomia krisiak harrapatu ditu bete-betean ibarreko udalak eta diru eskasiak baldintzatuko du agintaldiaren bigarren zatia. Diru eta baliabide gutxiago inbertsioetarako, laguntzetarako, herritarren zerbitzurako... Eta neurriak hartzen hasiak dira, %10erainoko murrizketak eginez aurrekontuetan. Antzuolan, esaterako, ezagutzera eman dituzte neurri zehatz batzuk: Torresoroako auditoriumean ez dituzte harmailak jarriko; baserrietako ur eta saneamendu lanen lehen fasea ez dute egingo; Bergarako Mizpirualde egoitzarako ez dute aurten dirurik jarriko; udal langile batzuk ez dituzte kontratatuko... Horrelakoak ohiko dira gainerako udaletan ere.

"Krisiari aurre egiteko, zorpetu daitezela Jaurlaritza eta Diputazioa"

Izan ere, krisiagatik, diru gutxiago jaso du Gipuzkoako Ogasunak eta Diputazioak diru gutxiago eman die udalei. Erakunde guztietan dabiltza antzera, baina udalen finantzazio modua aldatzea eskatu du Eudelek. Konpontzeko udalekiko duten "zor historikoa". Alkateek diote ohiko gastuaren %30 bideratzen dutela euren konpetentziakoak ez direnei aurre egiteko: euskaltegietara, musika eskoletara edo haurreskoletara. Arrazoia dute udalek. Zorpetu daitezela Jaurlaritza eta Diputazioa, zergak biltzeko ahalmen handiagoa duten erakundeak, eta bidera ditzatela diru gehiago udaletara, herritarrengandik gertuen dauden erakundeetara.

> **Bergarako** kanpoko igerilekuak zabalduko dituzte datorren astean. Bailarako igerileku ludiko berriena, txirrista, ur laster eta guzti. Txalotzekoa da gaztetxo, ume eta gurasoek batez ere erabiliko duten azpiegituran 1,7 milioi euro inbertitu izana.

> **Agintaldi** erdian, balorazioak egiteko ordua. Bergarako kasuan, ondo egindakoen artean: herria girotzeko ekimenak, Zabalotegi aretoa, kanpoko igerilekuak... Egitekoak: eskolen eraikinen auzia konpondu, liburutegi berria, auditoriuma...

**EUSKARA** > NORMALIZAZIOA

# Kataluniako hizkuntza aholkularitza enpresa batekin harremana hasi du EMUNek

Katalan hizkuntza aholkularitza ematen duen 7dquatre enpresako bi kidek EMUN bisitatu dute

**L.K.** > ARRASATE

EMUN euskara aholkularitza kooperatibak Katalunian sortu berri den 7dquatre enpresako bi ordezkariren bisita izan du egunotan. Arlo sozio-laboralean katalan hizkuntza aholkularitza emateko sortu zuten 7dquatre enpresa joan den urte bukaeran, eta EMUNek egiten duen lana ezagutzen izan dira enpresa horretako David Vila i Ros eta Marina Sagarra i Ruiz.

EMUN eta 7dquatre-ren arteko lehenengo harremana izan da honakoa, eta "hizkuntza normalizazioaren bidean elkarrekin aurrerapauso handiak" egin ditzaketela esan du EMUNek.

**HIZKUNTZA TAILERRAK**

Arrasateko kooperatibari dagokionez, bi bisitariak Tallers per la Llengua elkarteko dinamizatzaileak dira –hizkuntza dibertsitatearen inguruko sentsibilitatea bultzatzen duen elkarte bat–, eta TELP tailerrak egiten dituzte, norbere hizkuntzan eroso sentitzeko teknikak erakusten dituztenak. Horren harira, EMUNen esanetan, "tailerrak ematen duten esperientzia jasotzeko eta guk ere TELPetan dauzkagun hobekuntza beharrak kontrastatzeko aprobetxatu dugu".

Hemen eman dituzten bi egunotan, Kalitatea Fundazioaren eta Copreciren euskara planak ezagutu dituzte katalanek, eta EMUNen euskara planen metodologia zehatz aztertu dute.

**TURISMOA** > GASTRONOMIA

# Uztail osoan izango dira II. Jardunaldi Gastronomikoak, ibarreko turismoaren alde

Aurkezpen gisa, bakailaoa eta ardoa euro baten banatuko dituzte ekainaren 26an, Arrasaten

**L.K.** > ARRASATE

Uztailaren 1etik 31ra izango dira Debagoieneko II. Jardunaldi Gastronomikoak. Halaxe jakinarazi zuten antolatzaileek, Debagoieneko Mankomunitateko Turismo Sailak eta jatetxe batzuetako ordezkariek.

Jatetxeok bi lehen plater eta bi bigarren plater –arrazio erdikoak–, postrea, kafea, txakolina, sagardoa eta Errioxako Ederra ardo ondua eskainiko dituzte, eta bakoitzak zehaztuko du ze jateko eman eta ze egunetan. Menu guztietan izango dira eskualdeko ortuko produktuak eta bakailaoa.

**BAILARA EZAGUTZEKO AUKERA**

Antolatzaileok azpimarratzen dutenez, "ez dira soilik jardunaldi gastronomikoak; hau da, jatetxeek menu bereziak eskaintzen dituzte, baina produktuen jatorria eta elaborazio prozesua ezagutzeko aukerak ere eskainiko dira". Horrez gain, Debagoiena ezagutzeko aukera aurkezten da.

Ekainaren 26an, Arrasateko plazan, 19:00etan, pintxoak eta ardoa emango dituzte jatetxe parte-hartzaileek, euro baten.



Mankomunitateko ordezkariak, Hilarion, Baster Alde eta Lasa jatetxekoekin. G. ARANA

**DATUA**

**9**

**JATETXE PARTE-HARTZAILE**

Baster Alde, Hilarion, Santa Ana, Lasa, Mendigoia hotela, Soran, Etxe-Aundi, Goiko Benta eta Soraluze jatetxeak, jardunaldiotan.



zabalik

Rufina Olasagasti

# Emakumeok erabaki

Jendearen zaintza eta mantenimendurako emakumeek mendeetan egin izan dituen lanak jendartearen biziraupenerako ezinbestekoak ziren eta dira. Hortik sortu dira eskulan eta orratz-lanak, bizibidea ateratzeko beste lan batzuetatik sortu diren kirolen moduan: herri kirolak, ardi-mozketa, estropadak,... Jakina, eskulan eta orratz lanak egiteak ez du ukatzen produkzio arloan parte hartzea, baina ezta horretara behartzen ere.

Norberarena da bere buruari dagozkion erabakiak hartu eta aurrera eramateko ahalmena. Emakume edo gizon bakoitzaren erabakia da depilatzea, makilatzea, obretan lan egitea, gonak ala frakak janztea, haurrak izatea... Norbere buruan konfiantza da abiapuntua emakumeek boterea, baliabideak eta irabaziak gizonekiko berdintasunean eskuratzeko, eta gaztelaniaz bezalaxe euskaraz eroso bizi ahal izateko, izan lanean, aisialdian edo harremanetan.

**"Zaintza lanengatik gutxietsiak izan garen moduan, gutxietsiak izan gara euskaldun izateagatik"**

Zaintza lanengatik gutxietsiak izan garen moduan, gutxietsiak izan gara eta hainbat burla jasan ditugu euskaldun izateagatik. Orain ere gutxietsiak gara, eta gaztelania inposatzen digute erdaldun elebakarrek, zor zaizkigun zerbitzuak jaso ahal izateko gaztelaniaz egitera behartuz.

EKIN Emakumeak Elkartea eta bertako kideok jabetze prozesu batean gaude: bazkideen urteko batzarra ospatu berri dugu bertan helburuak hobeto betetzeko erabakiak hartuz, herriko bizitzan parte hartuz eta gure ekarpenak herritarrenganatuz. Arrasaten edo kanpoan jaiotako herriko emakume eta gizon guztien parte hartzea, laguntza, kritika, aholkuak espero ditugu eta eskertzen ditugu, gizonekin eta erdaldunekin lortu nahi dugun aukera berdintasunera heltzeko.

usteak uste

Mirari Altube

## Egoitza berria, tristura handia

Triste daude zaharren egoitza berrira joan diren Aretxabaletako nagusiak. Hala diote, behintzat, kalean; eta ez batek eta bik. Etxe berria, ilusio handia izan beharko litzateke, baina ez da hala. Herri erdi-erdian egotetik, bide ertz baten egotera pasatu dira; herritarren joan-etorri guztiak ikustetik, obrak eta kamioiak ikustera. Lanak bukatuko dituzte eta ingurua txukunduko dute; ea ba horrek poztasun apur bat ematen dien. Eta ea herritarrok zaharren egoitza berrirako bidea ikasten dugun.

marrazkiz

Unai Busturia




blog-top

## Hitzordu kristaua

**Anjel Lertxundi**
www.berria.info/blogak/lertxundi

Leirek zenbaki bereko bi dei galdu zeuzkan telefonoan. Ez zuen, ordea, zenbakia ezagutzen. Lanen baten eskaintza izan zitekeelakoan —ehunka curriculum bidaliak ditu hara eta hona—, zenbakia markatu eta beste aldean norbaitek telefonoa hartu bezain aise, euskaraz hasi zen Leire. Bi dei galdu zeuzkala, baina ez zekiela nondik deitzen zioten. Esaldiok amaitzerako, emakume petral batek erantzun zion zakar, oso zakar: *¡Háblame en cristiano!*. Leirek ez zuen telefonoa pausatzeko adorerik bildu —ehunka curriculum bidaliak ditu hara eta hona—, eta gaztelaniaz eman zituen une batzuk lehenago euskaraz emandako argibide berak. Ez zekiela nora deitzen ari zen, bi dei galdu zeuzkala eta…

Telefonoaren beste aldeko emakume petralak, zakar, oso zakar, Donostiako Gobernu Zibilarekin ari zela.

Egun batzuk lehenago eskatutako Nortasun Agiria egiteko txandaz gogoratu zen Leire. Hitzordu kristau bat eskatu zuen.

## Familia bila Erasmus ikasleentzat

**Joxe Aranzabal**
www.goiena.net/blogak/faroa

Irailean 15 ikasle etorriko zaizkigu Europatik HUHEZI fakultatera, Erasmus egitasmoaren barruan. Hori dela-eta, familia bila gabiltza, prest egongo direnak ikasle horiek hartzeko beren etxeetan. Lau hilabeteko kontua izango da: irailetik abendura, biak barne. Aldi horretan, ikasle horiek ikasi egingo dute, unibertsitate ikasketak osatzera datoz-eta. (…)

Inor animatzen bada, utz dezala erantzun bat blog honetan bertan, edo dei dezala fakultatera: 943 71 41 57 telefono zenbakira, eta galdetu Txema Egañaz (119 luzapena).

koplak

Julen Iriondo

## Arren, egizue bultza

Bihar da Quebrantahuesos
itxaroten dugu gogoz
entrenamendu guztia orain
bidean jartzeko asmoz.

Goizeko zazpi t' erditan
denak hasteko irrikan
han dauden maldak ezagututa
pentsatu arren birritan.

Giroa paregabea
txirrindulari oldea
inportantena iritsi eta
minik batere ez hartzea.

Eta lagunak bidean
animatzaile planean
malda handiago litzateke
haiek han egon ezean.

Sonbrilla ta barbakoa
musika ta sagardoa
guk sufrituko dugu nahikoa
haiek parranda majoa.

Barrua indarrez hutsa
haruntza eta honuntza
balantza baten ikusiz gero
arren egizue bultza.

**Goienkaria**

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Leire Kortabarria (Herriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Edu Mendibil (Goienka2a), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Imanol Soriano **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Itxaso Berezibar, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 20.000 ale • **Difusioa:** 19.724 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Debagoieneko Agifesek antolatuta, buruko gaixotasunen gaineko sentsibilizazio jardunaldien barruan, Julio Medemek ekoiztutako '%1 eskizofrenia' filma eman zuten eguaztenean Bergarako Zabalotegi aretoan. Filmaren ondoren, Juan Moro Zamudioko ospitaleko psikiatrak eskizofreniaren gainean berba egin zuen eta hara joandakoen galderak erantzun zituen.

**Juan Moro** > Zamudioko ospitaleko psikiatra

# "Gaur egungo gizartean buruko gaitzen gaineko kultura falta handia dago"

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

**Juan Moro psikiatrak Zamudioko ospitalean egiten du lan. Eskizofrenia buruko gaixotasuna dela eta biologiak eragin zuzena duela gaitzean azaldu zuen Zabalotegin eguaztenean. Gizarteak gaixo horien inguruan duen informazioa eskasa dela gaineratu zuen.**




Filmaren ondoren hitzaldia egin zuen Juan Moro psikiatrak eguaztenean. ARANTZAZU EZKIBEL

**Zer daki gizarteak eskizofreniari buruz?**

Gaixotasunari buruz dakiguna ezberdina da inguruan eskizofrenia duen gaixoren bat izan edo ez. Hau da, norbaitek bere inguruan esperientzia erreala bizi badu, gaixotasunari buruzko ideia argiagoa izaten du.

Bestalde, gizarteak informazio orokorra dauka; eta nik esango nuke informazio falta dagoela. Esan daiteke buruko gaixotasunen gaineko kultura falta dagoela. Filmetan, nobeletan edo albisteetan jasotako klixeak izaten ditugu. Eskizofrenia berba gaixotasuna ez den beste zerbait adierazteko erabiltzen da askotan prentsan: adibidez, lehiaketa eskizofrenikoa izan zela edo politikaren egoera eskizofrenikoa dela adierazteko. Erabilera horiek ez dira egokiak.

**Zerk eragiten du eskizofrenia gaixotasuna?**

Buruko gaitza da; hortaz, biologiak eragin zuzena du jatorrian. Hainbat faktoreri urrakortasuna adierazten du gaitzak. Genetikak ere eragina du, baina portzentaje txiki batean. Hortaz, eragina du aurretiko jarrera genetikoak, urrakortasun biologikoak, baina baita inguruarekiko integrazioak ere.

Urrakorra den pertsona batean gaixotasuna eragiten duen faktorea ezberdina izan daiteke; gaur egun, adibidez, droga izan daiteke faktore hori.

**Drogak eta alkohola detonatzaileak izan daitezke, baina pertsonak predisposizioa izan behar du?**

Bai, hori da. Drogak eta alkoholak ez dute gaixotasuna eragiten, baina gaixotasunaren abiarazle izan daitezke gaitza garatzeko urrakorrak diren pertsonengan.

**Ze tratamendu daude gaitzari aurre egiteko?**

Eskizofreniari aurre egiteko hainbat tratamendu daude. Alde batetik, farmakoak egongo lirateke: neuroleptikoak edo antisikotikoak deiturikoak. 50 urte baino gehiago duten farmakoak dira; horiek gaixotasunari aurre egiteko oinarrizkoak dira. Batez ere, aluzinazio, delirio eta paranoien gainean eragiten dute farmako horiek.

Gainera, pertsonaren funtzionamendua hobetzen laguntzen dute. Egunerokotasunean eragiten dute, pertsonaren gaitasun psikosozialean.

**Eta, tratamendu barik badago gaixotasunari aurre egiterik?**

Epe luzerako gaixotasuna da, kronikoa. Bizi guztirako gaixotasuna dela esan daiteke. Beste modu batera ulertzeko, epilepsia duen norbaitek tratamendu egokia hartzen badu, gaitza kontrolpean izan dezake. Bada, gauza bera dela esan daiteke.

Tratamendua hartu egin behar da, sintomarik ez izan arren. Gaixoa egonkor egon arren –sintoma barik, paranoia barik...– tratamendua hartzen jarraitu behar du. Horrek lagunduko dio berriz ere sintomarik ez agertzen.

Pertsona batek ez badu tratamendua jarraitzen, urtebetean gaixotasuna agertzeko portzentajea %75 da. Urtebetean baino gehiagoan ez badu tratamendua hartzen, protzentaje hori %100ekoa izan daiteke.

**Tratamendua jarraitzen dutenek bizimodu normala eraman dezakete?**

Pertsonaren funtzionamendu kognitiboak du eragina horretan. Egunerokotasunera egokitzeko duten ahalmenaren araberakoa izango da. Maila ezberdinak daude: batzuek euren lanarekin jarraitzen dute, familia eta lagun berak izaten jarraitzen dute; aldiz, beste batzuek eguneko zentrora edo ospitalera joan behar izaten dute.

Zentro horietan tratamendu psikosoziala eramaten da aurrera. Tratamendu hori, farmakologikoarekin batera, gaixotasunari aurre egiteko oinarria da. Alde batetik, gaitasunak lantzen dira gaixoa eskizofreniari aurre egiterakoan konpetenteagoa izateko. Hala, sintomak azkarrago antzemango ditu, laguntza eskatuko du... Bestalde, egunerokotasunean –higienea, garraioa hartu– egin behar duena landuko du.

**Eskizofrenikoak zaintzen dituztenak ingurukoak izaten dira. Nola eragiten du gaixotasunak senideengan?**

Familia bakoitza ezberdina da. Orokorrean esaten dutena da gaitza agertzen denean sorpresa hartzen dutela. Ez dakite zeintzuk diren sintomak; eurek ikusten dutena da pertsonaren portaeran dauden aldaketak. Zaila da, ez dute jakiten nora jo.

Gero, senide horrekiko pentsatu duten etorkizuna aldatzen dela ikusten dute: lana, familia... Poliki-poliki informazioa jasotzen dute eta gaixotasunari buruz duten iritzia aldatzen da. Ilusioa pizten zaiela esan daiteke.

**Zergatik da hain zaila gaixo hauen integrazioa?**

Esan daiteke gutxiago garatuta dauden gizarteetan integrazioa samurragoa dela; adibidez, herri txikietan. Beti dute egitekoren bat, eta horrela rol bat betetzen dute. Izan ere, gaur egungo gizartea konplexuegia da harremanak sortzeko.

DROGAK ETA ALKOHOLA

**"Ez dute gaixotasunean eragiten, baina gaitzaren abiarazle izan daitezke"**

TRATAMENDUA

**"Bizi guztirako gaixotasuna da; egonkor egon arren tratamendua hartu behar dute"**

INTEGRAZIOA

**"Herri txikietan beti dute egitekoren bat eta horrela rol bat betetzen dute, integratzeko"**

## Amazoniako istilu bortitzak

**Jon Gonzalez**
(Euskadiko Garapenerako GKEen Koordinakundeko komunikazio arduraduna)
Gasteiz

Euskadiko Garapeneko GKEek gaitzetsi egiten dituzte Peruko Amazonia inguruan gertatutako istilu bortitzak.

Duela hilabete batzuetatik, Amazoniako herri indigenak hainbat mobilizazio egiten ari dira Peruko gobernuak ateratako lege xedapen batzuei aurka egiteko. Lege hauen bidez, lur komunalak utzi edo saldu daitezke herri indigenei aldez aurretik kontsultatu beharrik gabe, eta horrek Peruk sinatutako Lanaren Nazioarteko Erakundearen 169 hitzarmen urratzen ditu. Protesta manifestaldi horien ondorio krudel bat orain dela gutxi Baguan bizi izandako indarkeria egoera izan da.

Mobilizazioak 2008ko abuztuan hasi ziren, baina aurtengo apirilean indar handiagoa hartu dute, Gobernuak beste behin ere konponbidea atzeratu zuelako borondate politiko eskasa erakutsiz elkarrizketa eta negoziazio espazioak sortzeko. Komunitate indigenen eskaerei kontra egin eta eskaera horiek deslegitimizatu nahi dituzte, eta horretarako, mobilizazioak kriminalizatzen ari dira nazioarteko iritzi publikoaren aurrean. Gainera, Asociacion Interetnica de Desarrollo de la Selva Peruana elkarteko presidentea (Peruko Amazoniako indigenen 57 federazioetako bozeramaile izan da Gobernuarekin egindako negoziazioetan) sedizio eta errebelamendu delituengatik akusatu dute.

Giza eskubideen bortxaketa honen aurrean, herrien solidaritate eta garapenaren alde lan egiten duten Euskadiko Garapeneko GKEek (GGKE) gaitzetsi egin nahi dituzte joan den ekainaren 5ean Peruko Amazonia inguruan poliziaren eta indigenen artean gertatutako indarkeriazko ekintzak. Gainera, Euskadiko GGKEek urte luzetan lan egin dute Perun eta harreman estua daukate komunitate indigenekin. Ondorioz, arduratuta daude Gobernua Peruko indigenen errealitateari buruz zabaltzen ari den informazioarekin eta ematen dion tratuarekin, informazioak egiazkoa eta objektiboa izan behar baitu eta kaltetutako komunitate indigenen ahotsa eta presentzia ezagutarazi behar baitira.

Horregatik guztiagatik, Euskadiko Garapeneko GKEen Koordinakundean bildutako erakundeek ondokoak eskatzen dizkiote Peruko gobernuari:

- Erantzukizuna har dezala bakea berrezartzeko, Amazoniako eskualdean indarkeria geldiarazteko eta gatazkan gertatutakoa argitzeko, egun horietan zehar pertsona ugari hil eta desagertu baitziren.

- Errespeta ditzala herri indigenen eskubideak, berma dezala beren bizitza eta elkarrizketa espazioak eraiki ditzala Peruko hiritarren beharrizanei eta eskaerei erantzuteko.

Hiritarrek GGKEoi utzi digute gure inguruneko gizartea eraldatzeko eta kalitatezko garapenerako lankidetza lortzeko erantzukizuna. Ondorioz, gaitzesten ditugu joan den ekainaren 5ean Peruko Amazonian poliziaren eta indigenen artean gertatutako indarkeria ekintzak.

## Korpus jaien biharamuna

**Asier Osinaga**
(Antxintxiketan KE)
Oñati

Joan zen domeka goizean, Oñatin, apostolu, santu, dantzari eta abarrak ikusten, burukomin pittin bat antzematen nuen. Dena dela, txantxikuar askoren sintomak izango ziren. Zapatua egun luze samarra izan zen Antxintxiketan Kirol Elkarteko kideontzako. Goizean, haurren lasterketak izan ziren plazan; giro ederra sortu zuten txantxikuar gazteek. Arratsaldean, berriz, Afrikatik etorritako korrikalari beltzek eta Txema Martinez espainiarrak ikuskizun paregabea eskaini ziguten oñatiarroi. Bero ikaragarria izan arren, maila handiko lasterketa ikusteko aukera izan genuen. Sari banaketarekin hasi aurretik, taldekideen aldetik omenaldi txiki bat jasotzeko ohorea izan nuen; dagoeneko adinean ere, aurrera goazen seinale. Han bertan, urduri samar nengoen eta egia esan, ez nekien nora begiratu.

Hala ere, lau lerro hauen bitartez, omenalditxo hau beraiei ere, taldekideei, eskaini nahiko nieke. Lasterketa antolatzeko egin duten lana handia izan baita. Zorionak Jexus eta konpainia. Eta, nola ez, Antxintxiketan Kirol Elkartearen aldetik eskerrik beroena babesleei eta Oñatiko herriari. Gaur, oraindik ere, biharamun arrastoak ditut gorputzean, ohitura falta izango da; hala ere, gurekin afaltzen gelditu zen korrikalari beltz batek zioen bezala: *"Tranki, vino es bueno corazón"*. Prozesio aurretiko mezan ere, apaizak ardoa edan omen zuen...

## Handikeriak

**Asier Martinez**
Arrasate

Bi futbol jokalaritan ia 160 milioi euro gastatzea errentagarria dela? Bai, zera! Zergatik daude, bestela, eliteko futbol ekipoak leporaino zorpetuta? Euren ahalmenaren gainetik bizi direlako; ordaindu ezin dituztenak erosten dituztelako, bankuei kreditua eskatuta, eta hedabideen konplizitateaz.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

**Barrenkalea 33 20570 BERGARA**
**Telefonoa: 943 25 05 05**
**Faxa: 943 25 05 12**
**Posta elektronikoa: goienkaria@goiena.com**

Debagoieneko
**PROFESIONAL LIBERALAK**



### ABOKATUAK

**BERNARDINO MAIZTEGI**
Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

**JUAN ANTONIO SIERRA**
Bergara / Irizar 2
T: 943 76 03 35

**LIA ALTUNA / BEGOÑA LASAGABASTER**
Arrasate / Iturriotz 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

**RAFAEL ARANBURU**
Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

**ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL**
Aretxabaleta / Basabe ind. f-0-10-pab.
T: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

### AHOLKULARITZAK

**AIERDI AHOLKULARITZA**
Bergara / Artekale 1
T: 943 76 03 50

**ANDRA MARI AHOLKULARITZA**
aretxabaleta / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

**ASEGI AHOLKULARIAK**
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

**TBG AHOLKULARITZA**
BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83

**ZENBAKI AHOLKULARIAK**
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

### ARKITEKTO TEKNIKOAK

**JESUS LASKURAIN PEREZ**
BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53

### EKONOMISTAK

**ARROBI / ANDONI URIBE ETXEBARRIA**
ESKORIATZA / Hidalga kalea 22, behea
T: 943 533 888
F: 943 533 865
uribe.arrobi@euskalnet.net

### ETXE ADMINISTRAZIOAK

**URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK**
ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

### PROKURADOREAK

**JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA**
DONOSTIA / Easo 57-3 eskuma
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.


ALDEKO AURREZKIA ALDEAN
Interesik gardenena.
Aurtengo udan, gozatu interesaz aldez aurretik. Hondartzan nahiz mendian, etxean zein oporretan, baina beti ere teknologia, diseinu eta erosotasun handiko punta-puntako produktu berriak erabiliz. Aukera ezazu zeure interesa zeure ohiko bulegoan, Telekutxaren 901 333 555 zenbakian, kutxa.net-en edota kutxaren kutxazainetan.
Aukeratu zer eraman
Zein lote duzu nahiago: entsalada-ontzia + 4 katilu, ala pitxerra + 4 edalontzi? Hobe kolore gorrian dekoratutako beirazko sorta osoa eramaten baduzu. Eta hondartzako eskuoihala baten (PRIVATAren 2 modelo edo Realaren modelo bat), hondartzako etzaulki baten edo kamera digital baten arteko aukera ere egin dezakezu. Kontsulta itzazu baldintzak.
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa

# Debagoieneko **OSASUN ZERBITZUAK**

## AKUPUNTURA

**INTEGU**
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

**LORENZO M. JOOSTEN**
Arrasate / Arrasate Pasealekua 29, Ezk behea / 943 79 29 13

## ALBAITARIAK

**ETXEBERRIA JULIO (DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)**
Bergara / 609 54 16 13

## ANALISI KLINIKOAK

**LABORRA ISABEL**
Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## BARNE MEDIKUNTZA

**IRIGOIEN VICTOR**
Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## DENTISTAK

**AGIRRE HORTZ KLINIKA**
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

**ARANBURU HORTZ KLINIKA**
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

**ARRASATE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

**ARREGI HORTZ KLINIKA**
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

**ASTIAZARAN SOLOZABAL**
Bergara / Iparragirre 1, behea / 943 76 27 95

**BENGOA SAN MIGUEL ANGEL**
Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

**BERGARA HORTZ KLINIKA**
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

**CAVIGLIA SILVANA**
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

**GOROSABEL J. ALBERTO**
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

**IRIARTE IRURETA ANE MAITE**
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

**IRIARTE IDOIA**
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

**LOPEZ DE GOIKOETXEA**
Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

**SAINZ MALKORRA ANA**
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## ENTZUMEN ZENTROAK

**INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

**GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA**

**TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA**
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## FISIOTERAPEUTAK

**ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA**
Arrasate / Garibai etorbidea 6B / 943 77 03 96

**ARZAK MIREN**
Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71

## HOMEOPATIA

**AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11 / 943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

**LARRAÑAGA ANDREA**
Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

**ARANTZETA JUAN MARI**
Elgeta / Salbador 28 / 943 76 80 54

**AZPEITIA IRUNE**
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

**ELORTONDO FLOREN**
Aretxabaleta / Basabe industrialdea D, z/g / 629 77 85 84

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## OPTIKAK

**ARRASATE OPTIKA**
Arrasate / Kontzezino 6 / 943 79 25 98

**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

**INSTITUTO OPTICO**
Arrasate / Kale Barria 32 / 943 79 71 68

## ORTOPEDIA

**ORTO LAGUN**
Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

**UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)**
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

**BENGOA NEREA**
Arrasate / Azoka kalea 4 / 659 58 66 89

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## PODOLOGOAK

**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

**OINEZ PODOLOGIA KLINIKA**
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKIATRA

**GALLASTEGI PABLO**
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

## PSIKOLOGOAK

**AGIRRE ENARA - PSIKOTERAPEUTA**
Antzuola / Olaran etxea 3, MA10 / 670 45 19 62

**GARMENDIA LANDER**
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

**NUÑEZ TXOMIN**
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## UROLOGOAK

**LLUCH ALBERTO (UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA)**
Arrasate / Ferrerias 56 / 943 79 44 22

## YOGA

**AREDHANA YOGA ETA GESTALT PSIKOTERAPIA ZENTROA**
Aretxabaleta / Santa Kurtz 24 / 616 96 57 95.

**SAMADHI YOGA**
Bergara / Masterreka 13, behea / 943 76 11 38 / 639 23 57 53

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.



**> ARRASATE**
Arrasate Musikaleko taldeek girotuko dituzte jai aurreko egunak **> 17**



**> BERGARA**
Lehenengo aldiz, Erdi Aroko euskal azoka izango da aste bukaeran **> 20**



**> ARETXABALETA**
San Juan bezpera berriz ere herriko plazan ospatuko dute **> 24**



**> ESKORIATZA**
III. Kirolariaren Egunak, bihar, hiru lehiaketa dakartza aurten **> 28**

**OÑATI** > AZPIEGITURAK

# Herritarrekin adostu dituzte Oñatiko bidegorri sarearen gaineko erabakiak

**ADOSTUTAKOAK**
Herriko eragileekin adostu dute trazatua, beste ezaugarri batzuen artean

**LEHEN TRAMUA**
Olakuatik Bidaurretako biribilguneraino egingo dute lehen tramua




Jose Mari Igartua zinegotzia, Edurne Egaña diputatua, Lourdes Idoiaga alkatea eta Angel Biain zinegotzia, asteleheneko prentsaurrekoan. MIREIA BIKUÑA

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI
Oñatiko Udalak herritarren partaidetza izan du herriko bidegorrien sarea nola egin zehazteko. Gipuzkoako Foru Aldundiak martxan jarritako *Kudeatuz* proiektuaren barruan kokatzen da, eta astelehenean aurkeztu zuten Oñatiko udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Ekitaldian egon ziren Lehendakaritzako eta Foru Administrazioko diputatu Edurne Egaña, Oñatiko alkate Lourdes Idoiaga eta Oñatiko bi zinegotzi, Jose Mari Igartua eta Angel Biain.

**BILERAK HAINBAT ERAGILEREKIN**
2008ko azaroaren 10ean sinatu zuen Oñatiko Udalak *Kudeatuz* proiektuan parte hartzeko hitzarmena. Helburua zen udalaren funtzionamenduan herritarren partaidetzarako metodo bat ezartzea. Horren harira, udal arduradunek pentsatu zuten bidegorri sarearen gaineko proiektua aukerakoa zela metodo berria probatzeko.

Ander Irusta geografoak egin zuen bidegorri sarearen gaineko proiektua. Udalak Txirrinka taldearen esku utzi zuen azter zezan, eta ondoren, erabakiak hartu aurretik, herriko eragileekin biltzea adostu zuten. Guztira, zazpi bilera egin dituzte. Besteak beste, merkatarien eta ostalarien ordezkariek, politikariek, teknikariek, lau ikastetxetako ordezkariek eta ezinduek –batez ere, itsuek – parte hartu zuten bileretan.

Siadeco izan da Oñatiko Udalaren aholkularia *Kudeatuz* proiektuaren barruan, eta euren laguntzarekin eta herritarren partaidetza zuzenarekin adostu dituzte bidegorri sarearen gaineko hainbat kontu; besteak beste, trazatua eta oinezkoendako kaleetan bidegorria nola txertatu zehaztu dute. Gainera, bidegorri sarearen lehen trazatua zein izango den adostu dute: Olakua auzoan hasi eta Bidaurretako biribilguneraino tartea. Lanak urtea bukatu aurretik hasiko dituzte.

"Orain arte lan astuna egin dugu", esan zuen alkateak aurkezpenean, "baina bide luzea dugu aurretik. Hurrengo pausoa bidegorriko trazatuaren lehentasunak zehaztea izango da. Tramu bakoitza noiz egingo dugun adostu beharko dugu".

**ZENBAT URTE BIDE OSOA EGITEKO**
Ia zazpi kilometroko luzera izango duen bidegorri sarea urte askotan zehar egiteko proiektua dela esan duen alkateak. "Gure aurreikuspenek diote zortzi-bederatzi urtetan bukatu beharko genukeela bidegorri sarea; baina, krisia luzerako bada, beharbada 12 urte beharko ditugu".

**BI HELBURU**
Foru Aldundiak garatu asmo duen *Kudeatuz* proiektuak bi helburu ditu. Alde batetik, gobernu sistemak hobetzeari buruzko hausnarketa egin gura dute; eta, beste alde batetik, herritarren parte-hartzea sustatu gura dute. Gipuzkoako Foru Aldundiaren politika berriak hiru zutabe dituela esan zuen Edurne Egaña diputatuak: "Erakunde publikoen arteko lidergo partekatua; lurraldeko erakunde eta eragileen arteko lankidetza publiko-pribatua; eta herritarrak politika publikoetan inplikatzea dira zutabeak. Hain zuzen ere, azken horretan sartzen da *Kudeatuz* proiektua". Gipuzkoako Foru Aldundiak 100.000 euro bideratu ditu hamar herritan gauzatuko duen proiektu horretarako.

**BIDEGORRIAREN TRAZATUA**

**> KURTZEKUA-BEREZAO**
Kale Zaharra eta Bidebarrieta zeharkatuko ditu. Adar honek bat egingo du San Prudentziotik Oñatira, Kutzetxoraino, Foru Aldundiak egingo duen bidegorriarekin.

**> URRUTXU-UGARKALDE**
Urrutxun egingo dute kirol gunetik hasita, Unibertsitate etorbidea, Portu kale, Santa Marina, Euskadi etorbidea eta Larraga kalea zeharkatuko ditu.

**> SEI BIDE-ADAR**
Bi adar nagusiekin bat egiten duten beste sei bide-adar izango ditu bidegorriak. Hain zuzen ere, Kalegoiena-Aita Lizarralde; Atzeko kale-Kalebarria-Lazarraga; Zubibarri-Irizar-Gerriko kantoi; Patrue kale-Arantzazuko Ama; Lizaur-Zubikoa kiroldegia; eta Errekalde.

**ESANAK**

## "Bidegorri sarearen proiektua partaidetzan oinarritutakoa izango da, eta idatzita geratuko da"

**Lourdes Idoiaga** > Alkatea

## "Aldundiaren eskuduntzakoak diren politiketan, herritarren partaidetza bultzatu nahi dugu"

**Edurne Egaña** > Diputatua

**OGASUNA** > 2009KO DIRULAGUNTZAK

# Abuztua baino lehen aurkeztu beharko dira aurtengo dirulaguntza eskaerak

Iaz bezala, aurten ere deialdi bakar eta bateratua egingo dute; hau da, talde eta elkarte gehienek epe bera izango dute laguntzok eskatzeko

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Asteon onartu du Udal Gobernuak 2009ko dirulaguntzen deialdia: 868.870 euro, herriko elkarte eta taldeen artean banatzeko. Iazko kopuruarekin konparatuz gero, 10.000 euro pasatxoko jaitsiera dago aurtengo kopuruan.

Orain, deialdia Gipuzkoako Buletin Ofizialera bidaliko dute eta han argitaratu ostean, hilabeteko epea zabalduko dute eskaerak jasotzeko. Epe zehatza jakin barik, jeneralean, abuztuko oporraldiaren aurretik egin behar izaten dira eskaerok.

Eta adi ibiltzea komeni da. Izan ere, iaz bezala, aurten ere ia elkarte guztiek epe berean aurkeztu beharko dituzte eskaerak.

Laguntzak eskatzeko eskabide orria bete beharra dago eta hori eskura daiteke herriko bost lekutan: Biztanleen Arreta Zerbitzuan, Gazte Informazio Bulegoan, Emakume Txokoan, Musakolako kiroldegian eta Arrasateko Udalaren webgunean (*www.arrasate-mondragon.org*).

Bi bide daude, berriz, eskaera horiek aurkezteko: Biztanleen Arreta Zerbitzuan edo, kirolarekin lotutako dirulaguntzetarako, Musakolako kiroldegian.



Aurtengo berritasunen artean, Arrasateko Udalak diruz lagunduko ditu eguzki plakak instalatzen dituztenak. GOIENKARIA

DATUA

**850**

**MILA EURO PASA**

868.870 euro banatuko ditu Arrasateko Udalak herriko elkarte eta taldeen artean; iaz baino 10.000 euro inguru gutxiago.

**IGOGAILUAK ETA EGUZKI PLAKAK**

Arrasateko Udaleko hamar sailek parte hartuko dute dirulaguntzen aurtengo deialdian.

Programei dagokienez, berriz, 25 dira, iaz baino bi gehiago; izan ere, bi ekimen berrirendako laguntzak izango dira aurten: igogailuak ipintzeko eta eguzki plakak ipintzeko dirulaguntzak, hain zuzen.

**GIZA BEHARRETARAKO**

Horrez gainera, laguntza orokorrak sailka begiratuta, adibidez, laguntza emango dute Gizarte Ongizate Sailean: erretiratuen elkarteendako, udal tasak ordaintzeko diru baliabide urriak dituztenendako, espetxean preso dauden pertsonen senideen garraio gastuetarako, garatzeko bidean lankidetza programak egiten dituzten gobernuz kanpoko erakundeei laguntzeko, eta droga mendekotasunen eta beste mendekotasun psikologikoen tratamendurako.

Enplegu Sailak, berriz, lanpostu berriak sortzeagatik laguntzak emango dizkie enpresei.

**EUSKARA IKASTEKO ETA BESTE**

Euskara Sailean, euskaltegietan euskara ikasten dabiltzanei, Udako Euskal Unibertsitatean parte hartzen dutenei edo, adibidez, errotuluak, irudi korporatiboa eta webgunea euskaraz egiten duten enpresa eta komertzioei emango dizkiete laguntzok.

Eta beste adibideren bat ipintzearren, gazte eta kultura elkarteendako, gizon eta emakumeen berdintasuna bultzatzeko edo ingurumenarekin lotutakoak bultzatzeko laguntzak izango dira.

## oharrak

KIROLA

**> Udako ikastaroak**

Ekainaren 21ean, domeka, bukatuko da AUKEAk antolatu dituen aurtengo udako ikastaroetarako izena emateko epea.

Bestalde, dagoeneko eskuragarri dago udako abonua: ume eta gazteendako, 34,40 euro.

ETORKINAK

**> Immigrazio plana**

Immigrazio Plana lantzen segitzeko hurrengo batzarra astelehenean, ekainaren 22an, izango da. *Lan Merkatua-Formakuntza eta Emakumea* landuko dute. 18:30ean da hitzordua, Kulturateko Loramendi aretoan.

TXATXILIPURDI

**> Lan eskaintza**

Txatxilipurdik pertsona bat behar du bulego lanetarako datorren ikasturterako. Lanaldi osoko kontratua eskainiko dute. Lanposturako aurkezteko gutxieneko baldintzak bete beharko dira: Gizarte Zientzietan diplomaduna; euskara maila handia, gidabaimena eta autoa. Informazio gehiago: 954 79 54 56.

**GATAZKA** > ITURBIDE EGOITZA

# Eskainitakoa "aplikatzeko" eskatu dute

Iturbideko azpikontratatutako langileek diote Udalak "eskumen guztiak" dituela auzi horretan

**U.M.** > ARRASATE

"Erdipurdiko egiak, Untzako langileei egindako proposamena ez betetzeko"; hori da, besteak beste, Iturbide egoitzako azpikontratatutako langileek eguazteneko prentsaurrekoan salatu zutena. *Asteleheneko Goienkaria*-n (09-6-15) Yolanda Perez de Arenatza Arrasateko Udaleko Ongizate Saileko zinegotzi eta Iturbide egoitzako batzordeburuak aditzera eman zuen Eusko Jaurlaritzak egoitzen eskumenak Diputazioari pasa zizkiola eta Iturbideko langileek ez zutela onartu Arrasateko Udalaren proposamena, "posible zenean".

**UDALAREN ESKU**

Horren aurrean, egoitzako langileek diote "foru aldundiek erabaki bitartean, legeak berak laugarren xedapen gehigarrian dio Eusko Jaurlaritzak bi urtean hartuko duela praktikan zerbitzua, arduraduna izango dela, eta legezkotasuna Udalarena dela".

Egoitzan zerbitzua ematen zuen Untza enpresak langileekin zuen kontratu etetea dela-eta (09ko apirila), berriz, zera diote: "Bi hilabete baino gehiago igaro dira eta enpresak ez du ezer aurkeztu idatziz, lanean jarraitzen du". Eta gaineratu dute: "Badakigu praktikan Udalak kudeatzen duela Iturbide egoitza; hortaz, eskumen guztiak ditu nahi duen guztia erabakitzeko". Beraz, diote Udalak martxoan eskainitakoa (besteak beste, soldatak %30,65 igotzea) aplika daitekeela, eta gaineratu dute 2009ko aurrekontuan badagoela horretarako partida bat.

*Pelukak eta ilea berreskuratzeko sistema berri eta pertsonalizatua*



Gubi
ILE APAINDEGIA
Otalora Lizentziaduna 5
Tel.: **943 79 12 74**

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82



Herritarrek pozik jaso zituzten euren etxe berrietako giltzak. JOKIN BEREZIARTUA

**ETXEBIZITZA** > LA CAIXAKO ETXEBIZITZAK

# Giltzak eskuan dituzte 148 onuradunek

Atzo banatu zituzten La Caixako etxeen giltzak; Udaleko eta La Caixako ordezkariak izan ziren

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE
La Caixaren Gizarte Ekintzak atzo eguerdian banatu zituen hilean 260 euroko alokairua izango duten 148 etxebizitzetako giltzak. Ekitaldira ez ziren onuradun guztiak agertu, baina bai gehienak. Eta agertzerik izan ez zutenek euren izenean senide edo lagunen bat bidali zuten. Onuradunen artean, 18 eta 35 urte arteko gazteak dira nagusi.

Giltzen banaketaren ekitaldian Arrasateko alkate Ino Galparsorok eta La Caixako ordezkari Juan Jose Mugurutzak eta Jaume Cabrek egin zuten berba. Galparsorok etxeon gizarte ekintza nabarmendu zuen eta baita etxeok non altxatu diren gogoratu ere. Hau da, "Arrasate ezaguna egin duen" Union Zerrajera lantegiaren gune berean. Alkateak gaineratu zuenez, "nahiko itxuroso geratu da eremua".

**ETXEBIZITZEN EZAUGARRIAK**
Guztira, 148 etxebizitza dira. Horietatik 132 logela bakarrekoak eta 16 bi logelakoak. Batez beste 50 metro koadro inguruko etxeak dira, balkoi eta guzti. Etxebizitza guztiek garajea eta trastelekua dute.

**AZPIEGITURAK** > ABIADURA HANDIKO TRENA

# Langile baten autoari egindako erasoa salatu dute

Eguazten goizaldean gertatu zen erasoak hainbat alderdiren gaitzespena jaso du

**J.B.** > ARRASATE
Ertzaintzak azaldutakoaren arabera, eguazten goizaldeko ordu batean, ezezagun batzuek AHTren lanetan diharduen langile baten autoko kristalak hautsi eta suziri bat bota zuten barrura. Autoa Zarugalde kalean zegoen, eta, Ertzaintzaren arabera, erasotzaileek suziria bota, eta herritar talde bat agertu zen. Erasotzaileek ihes egin, eta gasolinazko ontzi bat utzi zuten bertan. Ertzaintzak uste du autoa erre gura zutela, eta ikerketa hasi du egileak identifikatzeko.

**"BIOLENTZIA TERRORISTA"**
Alderdi politiko batzuek erasoa gaitzetsi zuten; horien artean, PSE-EE eta Zutik-Alternatiba koalizioa. Batzar Nagusietako presidente Rafaela Romerok, adibidez, "biolentzia terrorista" gaitzesteko eskatu dio Ino Galparsoro Arrasateko alkateari.



Autoko kristalak hautsi eta tapizeria hondatu zuen erasoak. GOIATZ ARANA

Zenbaki Aholkulariak






• **Juridikoa:**
- Zibila: Banantzeak, Dibortzioak, Herentziak, ...
- Penala: Hutsegite epaiketak, Salaketak, Zirkulazio istripuak, ...
- Administratiboa: Zigortzaile txostenak, Errekurtsoak, ...
- Merkantila: Kontratuak, Sozietateen eratzeak, ...

• **Laborala:**
- Ezintasuna, Erretiroa, Erreklamazioa, ...

• **Fiskala:**
- Etxebizitzen salerosketak, Enpresen balorazioak, Bideragarritasun-Txostenak, ...

• **Kontabilidadea:**
- Pertsona fisiko eta juridikoak, ...

**JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!**

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABALETA Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68
*zenbaki@zenbaki.es www.zenbaki.es*

**txaloak eta txistuak**



OIHANA ELORTZA

# Noiz txukunduko dute Garibai ondoko lursaila?

Garibai plazaren aldamenean dagoen lursaila noiz txukunduko duten galdetu du arrasatear batek. Irudian agertzen den lursaila, zikina egoteaz gain, arriskutsua ere badela dio herritarrak, ez dagoelako behar bezalako hesiarekin inguratuta. "Horko etxebizitza bota zutenetik dago horrela. Ea laster txukuntzen duten!", jarraitu du.

**bote prontuen**

**Ikerne Heriz** > Jifh arropa denda

# "Kolore biziak gustatzen zaizkit, gutxitan janzten naiz beltzez"



**OIHANA ELORTZA** > ARRASATE

**Duela bi hilabete zabaldu zuen Jifh denda Ikerne Herizek Olarte kalean. Mutilendako eta neskendako arropa du, gaztetxo zein nagusiagoendako.**

**Jifh. Seguru nago askok galdetu dizutela, eta nik ere galdetuko dizut: zer esan gura du izen horrek?**

Senarraren izena, nirea eta bion abizenen inizialak: Jokin, Ikerne, Fernandez eta Heriz.

**Nola bururatu zitzaizun izen hori jartzea?**

Egia esan, asko kosta zitzaidan izen egokia aurkitzea. Argi nuen motza izan behar zuela izenak, eta gogoratzeko modukoa. Alaben izenekin hitz-jokoa egitea pentsatu nuen, baina ez zitzaidan emaitza gustatzen. Azkenean, ilobak proposatu zidan Jifh, eta berehala esan nion baietz, momentuan gustatu zitzaidaneta. Grafiti itxurako diseinua, berriz, beste iloba batek egin zidan.

**Kolore asko dute arropek.**

Bai, ikaragarri gustatzen zaizkit koloreak. Denda bera ere berdez margotu dut; argi nuen zuriz ez nuela margotuko.

**Zeu ere kolore biziekin janzten zara?**

Bai. Beltzez janzten naizenean ere kolorea sartzen dut. Oso gutxitan ikusiko nauzue goitik behera beltzez jantzita. Kolorea behar dut; bizia, gainera. Marroia, adibidez, ez dut oso gustukoa.

**Eta modan marroia badago?**

Modari kasu egin behar zaio, baina bakoitzak jantzi behar du gustukoa duena, izaerarekin bat datorkion arropa.

GOIENA
aseguru
artekaritza
KOLEGIATU ZKIA.: 72.645

ZURE KONFINDANTZAGATIK MILA ESKER



ONDO PASA SAN JUANETAN!

Zurekin Zuretzat

**GASTEIZ** Libertad 6 - 12. bulegoa
Tel.: 945 00 00 71
Faxa: 945 00 00 72

**ARRASATE** Antso Abarka 6
Tel.: 943 79 59 81
Faxa: 943 79 39 18

**BERGARA** Zurradero 2
Tel.: 943 76 97 65
Faxa: 943 76 40 37

www.goienaaseguruak.com • goiena@goienaaseguruak.com

GOIENA ASEGURU ARTEKARITZA SL, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Admiistrazioen Sailak baimendurik, izena emanda Aseguruen Artekaritza Erregistro Berezian MS-241 Klabearekin



Arrasate Musikaleko ballet taldeko neskatilek emanaldia egingo dute gaur Amaia antzokian. EDORTA AIASTUI




Big Band taldea 22 lagunek osatzen dute. GOIENKARIA

**MUSIKA** > ARRASATE MUSIKAL

# Arrasate Musikaleko kideak, protagonista San Juan jaien atariko kontzertuetan

Ikasturte amaierako kontzertua gau,r Amaian; kantu ikasleena, Monterronen; eta Arrasate Musikaleko Big Band Taldea, Monterron parkean

**EDU MENDIBIL** > ARRASATE
Gaur, egubakoitza, hainbat hitzordu izango dira Arrasate Musikaleko taldeekin. Alde batetik, ikasturte amaierako kontzertua eskainiko dute talde ezberdinek Amaia antzokian, 18:00etan hasita. Gaztetxoak izango dira protagonista, eta honako talde hauek hartuko dute parte: Mikel Markiegik zuzentzen duen Orkesta Gaztea; haize-egurrezko taldea (Txus Arriaran da zuzendaria); ballet taldea (Jana Fuenterekin 8-16 urte bitarteko 20 bat neskatila ari dira); eta, azkenik, tailer musikaleko neska-mutilek ere hartuko dute parte gaur.

Ia ordu berean, 18:30ean, kantuko ikasleek emanaldia egingo dute Monterron jauregian. Tere Gonzalez irakaslearen esanetara 20 bat lagunek dihardute kantua ikasten, gehienak urtero Arrasaten egiten duten zarzuelan jardundakoak. Edu Artzamendi piano jolearen laguntzarekin, hainbat pieza eskainiko dituzte gaur.

**BIG BAND TALDEA, MONTERRONEN**
Gaurko azken hitzordua gauekoa izango da. Azken urteotan sanjuanetan ohiko bilakatu den Arrasate Musikaleko Big Band taldearen emanaldia izango da Monterron parkean, 22:30ean. Zigor Martinez bergararra dugu zuzendaria, eta 22 lagunek osatzen dute taldea. Askotariko estiloak jorratzen dituzte: bluesa, bossa nova, rocka, jazza... Hainbat kantu klasikoren bertsioak joko dituzte.

**SAN JUAN EGUNEAN, BANDA**
Bestalde, eguaztenean, San Juan egunean, Bandak kontzertua eskainiko du Monterron parkean, 13:00etan. Mikel Markiegiren zuzendaritzapean, pasodobleren bat eta Juanito Artzamendiren *Gora Arrasate* eta *San Juanetako ereserkia* ez dira faltako programan. Kontzertuaren aurretik, 11:00etan, kalejira egingo dute, eta erraldoiekin eta gaita joleekin elkartuko dira eguerdi aldera.

**MUSIKA** > ZUZENEKO EMANALDIAK

# Formatu txikiko kontzertuak, Kulturaten irailean

Elurretan, Garret Wall Band, Anni B. Sweet eta Saioaren kontzertuak, iraileko bi asteburutan

**E.M.** > ARRASATE
Irailean formatu txikiko musika emanaldiak egingo dituzte Kulturateko areto nagusian. Horixe aurreratu zuen Karmelo Alberdi Udaleko Kultura teknikariak eguaztenean, Arrasate Irratiko mikrofonoetan. Alberdiren hitzetan, "batez ere pop eta folk kontzertuak izango dira, estilo horiei tartea egiteko, ez baitago aukera handirik gurean horrelako kontzertuetarako, eta uste dugulako zaleak badituztela". Emanaldiak, esan bezala, Kulturateko areto nagusian izango dira, klaustroak arazoak ematen dituelako akustika aldetik.

**IRAILEKO BI ASTE BUKAERA**
Hasiera baten, bi aste bukaeratan izango dira kontzertuak: irailaren 11n eta 12an eta irailaren 18an eta 19an, hain zuzen ere.

Ordiziako Elurretan taldeak irekiko du zikloa irailaren 11n eta, hurrengo egunean, Garret Wall Band izango da Kulturaten. Hurrengo astebururako, berriz, Anni B. Sweet Malagako kantaria (astean Andreu Buenafuenteren saioan izan da) eta Saioa bakarlaria (hilaren 19an) iragarrita daude.



Garret Wall Band Kulturaten izango da datorren irailaren 19an. GOIENKARIA

**'UDAZABAL', UZTAILETIK AURRERA**
Bestalde, uztailetik irailera bitartean, *Udazabal* programari heldu ko dio Kultura Zerbitzuak. Monterronen zinema emanaldiak izango dira egubakoitzetan, uztailaren 3tik aurrera, eta, horrez gain, dantza ikuskizunak, kontzertuak, kaleko ikuskizunak eta bestelakoak gertatu dituzte. Uztailaren 17an, Graffiti Classics musika eta umorea uztartzen dituen talde ingelesa izango da Monterronen.

> MUSIKA

## Goikobalu Gazte eta Goikobalu Txikiren emanaldia dago gaur

Goikobalu Gaztek eta Goikobalu Txikik emanaldia egingo dute gaur, egubakoitza, San Frantzisko elizan, 20:00etan. Rakel Murgiondo gazteen zuzendariarekin 32 gaztetxo dabiltza (12-18 urte bitartekoak) eta Goikobalu Txikin beste 15 (5-11 urte); Amaia Aboitiz da zuzendaria.

> MOTORRERO EGUNA

## Bitter Honey eta La Txusma taldeak, biharko motor festan

Bihar, zapatua, Motorrero Eguna ospatuko da Arrasaten, 14:00etan hasita Laubide plazan. 19:00etarako Bitter Honey eta La Txusma taldeen kontzertua iragarrita dago. Rocka eta motorra, elkarrekin. Kontzertua debalde izango da.


McAwen Dauen eta Dribling, joan den astean (3-8). GOIENKARIA

**ARETO FUTBOLA** > ZALDIBARKO TXAPELKETA

## Paulaner Driblingek eta Lasagabasterrek bihar jokatuko dute finala (18:00)

**X.U** > ARRASATE

Zaldibarko txapelketa iritsi da amaierara, hitzordu handiaren unera. Bihar, 18:00etan jokatuko dute orain arte talde onena izan den Paulaner Driblingek eta Lasagabasterrek.

Finalera begira askorendako Paulaner Dribling da faboritoa. Liga erregularrean talde onena izan da, kopa txapelketa eskuratu zuen orain dela hamabost egun eta, hori gutxi balitz, ligako *pitxitxia* dute, Asier Manso (33 gol). Lasagabaster bosgarrena izan zen liga erregularrean, eta ordutik ez dute aukera bakarra galdu, finalera iritsi arte. Gainera, iazko txapeldunaren gainean gabiltza berbetan. Finalaren aurretik, 16:30ean, AT Celaya eta McAwen Dauen lehiatuko dira hirugarren postuagatik.

Antolatzaileek erabaki dituzte aurtengo jokalari onenak: Iker Teixeira (Betrayer), Jorge Mora (Lasagab.), Gorka Dueñas (AT Celaya), Xabi Altuna (Aboka.), Jorge Reguero (Dribling) eta atezain onena, McAwen Daueneko Gari Ortuoste.

**PILOTA** > SAN JUAN TXAPELKETA

# Zubillaga: "Inoiz baino pilotari gazte gehiago ditugu, eta oso onak"

Martitzenean jokatu zituzten San Juan txapelketako finalak; asteburuan ere final mordoa dituzte

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Guztira 53 pilotari gaztek jardun dute urtarrilean hasi zuten txapelketan, eta horren gaineko hausnarketa egin du Mauri Zubillagak: "Taldean egin ditudan urte guztietan inoiz ez ditut horrenbeste pilotari izan, eta pilotan oso ondo egiten dutenak, gainera".

Martitzeneko finetan, infantiletan lehenengo sailkatu zen Julen Moron eta bigarren izan zen Aitor Etxezarreta. Kadetetan, berriz, txapelketa irabazi zuen Asier Larreak, bigarren izan zen Oier Arregi eta hirugarrena Ander Urrutia. Eta gazte mailan, azkenik, onena Danel Etxagibel izan zen, Asier Goitia bigarrena eta Beñat Arabaolatza hirugarrena.


San Juanetako txapeldunak, klubeko pilotari nagusiekin. ARRASATE PILOTA TALDEA

**FINAL MORDOA**

Arrasateko pilotariak batera eta bestera ibiliko dira asteburuan. Alebinetan Muruak eta Llodiok Elorrioko torneoko finalerdiak jokatuko dituzte gaur (20:00) eta bihar Gasteizen lehiatuko dira, Lakuako txapelketako finalerdian (17:00). Alebinetan Narbaitza eta Moron Elorrion izango dira baita ere. Arregik Gipuzkoako Txapelketako finalerdia jokatuko du bihar Lazkaon, eta Joseba Garatek alebinetako talentuen txapelketako finala jokatuko du bihar, 16:00etan Lazkaon.


ORTU EKOLOGIKOAK
GARAGARTZA AUZOAN



**IZENA EMATEA**
**Epea:** Ekainaren 18tik uztailaren 10era.
**Tokia:** BAZ (Maisu Arano pasealekua 8).
Astelehenetik ostiralera: 8:30etik 19:00etara.
Larunbatetan: 9:00etatik 13:00etara.

**Behin behineko zerrendak**
**Eguna:** Uztailaren 17an
**Tokia:** *www.arrasate-mondragon.net* webgunean eta iragarki-taulan.

**ZOZKETA**
Irailaren hasieran.

**OSO GARRANTZITSUA!**
**Onarpen irizpideak aldatu egin dira. Nahiz eta aurrez izena emanda izan, orain eskaera orria berriro bete behar duzula gogoratu.**

**Etxe bakoitzetik pertsona bakarrak parte hartuko du zozketan.**

AGENDA 21
ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

**ZERBITZUAK** > AGORROSIN EKINTZA GUNEA

# Eguaztenean zabalduko dute kanpoko igerileku berria

## 10:00-23:00 ordutegiarekin irailaren 13ra arte egongo da zabalik

### Beste berrikuntza batzuen artean, ez da beharrezkoa izango bainu-gorroa janztea

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Aurreikusitakoa baino egun batzuk lehenago, eguaztenean, irekiko dute kanpoko igerilekua. Antzibar enpresak egin ditu lanak 1.688.992 euroko aurrekontuarekin.

Familien aisialdirako pentsatutako igerilekua da eta horren arabera antolatu dute. Igerilekuari dagokionez, 380 metro koadro ditu, 0,50 eta 1,40 metro arteko sakonera eta lau gunetan banatuta dago: bata da jolas eta ekintza libreetarakoa; bestea, sakonera txikiena duena eta txirrista txikia, haurtxoendako gunea; hirugarrena, ur azkarren gunea –ura botatzen duen perretxiko antzekoa du erdian–; eta laugarrena, 4 metro garai den txirristarena.

Igerilekua inguratzen du 5 metro zabal den hormigoizko pergola antzekoak. Hori da etorkizunean estalkia jartzeko egitura edo euskarria.

Berdeguneari dagokionez, igerilekua egiteko erdigunean galdu den zatia irabazi da Ipintza futbol zelai aldera. Hala, berdeguneak guztira 3.600 metro koadro ditu.









Kanpoko igerilekuaren hainbat ikuspegi; argazki nagusia txirrista handitik aterata dago. MONIKA BELASTEGI

### KANPOKO IGERILEKUAREN ZERBITZUAK ETA ERABILERA ARAUAK

**> EGUTEGIA** Ekainaren 24tik irailaren 13ra zabalik. Barruko igerilekua ere zabalik egongo da. Gainera, barruko igerileku handiko hiruzpalau kale egokituko dituzte jolaserako. 17:30-19:00 ordutegian dinamizatzailea ere egongo da.

**> ORDUTEGIA** Egunero, 10:00-20:30 ordutegia izango du.

**> PREZIOA** Eguneko sarrera da 5 euro 18 urtetik gorakoentzat eta 2,5 euro, beherakoentzat. Bestalde, balio du Agorrosingo zerbitzu guztietarako eta egun osorako –ekintza gunetik irtenez gero, berriz sar daiteke txartel berarekin. Hil osoko abonua da 15 euro.

**> BAINUA** Edonor bainatu ahal izango da kanpoko igerilekuan, baina debekatuta egongo da igerilekura salto egitea.

**> GORROA** Ez da bainurako gorroa erabiltzeko beharrik egongo.

**> SOROSLEAK** Hiru egongo dira egunero. Bata, goizeko txandan; bestea, arratsaldekoan; eta hirugarrena errefortzurako egongo da, jende gehien ibiltzen den ordutegian, 15:00-20:00 ordutegian.

**> KOMUNAK ETA ALDAGELAK** Iaz bezala, berdegunerako propio erreserbatutako aldagelak eraikin nagusian egongo dira. Komunak, berriz, kanpoan, hori ere iaz bezala.

**> JATEKOA ETA EDATEKOA** Berdegunean ogitartekoa eta halakoak jan ahal izango dira. Ezingo da zakutontzi (fianbrera) edo antzekoetan eramandakorik jan berdegunean. Horretarako erabiliko da komunen gaineko terrazatxoan egokitutako lekua: mahaiak, aulkiak eta gerizpea emateko bi haima jarriko dituzte. Edatekoari dagokionez, ezingo da kristalezko ontzirik eraman.

**> HAMAKAK** 17 jarriko dituzte berdegunean, eta doan izango dira. Hamakok lagatzeko orduan lehenetsiko dituzte hirugarren adinekoak eta mugikortasun arazoak dituzten pertsonak. Norberak etxetik ere eraman ahal izango du berea, baina ezin izango du hurrengo egunerako berdegunean laga, etxera eraman beharko du berriz bueltan.

**> TOBOGANAK** Handirako erabilera arauak daude: banan-banan jaitsi beharko da eta jaisteko postura izango da hankak aurrean eta burua atzean. Hilaren 24rako erabiltzailearen neurri eta pisuari lotutako bestelako arau batzuk ere zehaztekoak dira.

**> TABERNA** Berdegunetik igo ahal izango da. Hain justu, berdegunea zabalik dagoen ordutegian bitan banatuko dute taberna: zati bat izango da berdeguneko erabiltzaileendako; bestea, gainerakoendako. Hori horrela, terraza ere berdeguneko erabiltzaileek erabili ahal izango dute.

**> LIBURUTEGIA** Aurten ere liburutegiak mailegu zerbitzua emango du berdegunean.

**bere ustez**



Jon Suinaga

## Ohorezko kontuak gure herrian

Bergara, 1633garren urtea. Egun eguzkitsu batean, eguerdiko hamabietan, bi gazte Barrenkale kaletik zihoazen. Pedro de Amuchategui plazako norabidean eta San Joan de Moyua kalea jaisten. Toke egin zuten elkar gurutzatzerakoan eta zalaparta sortu zen. Garrasiak, irainak eta mehatxuak entzun ziren. Maltzurra, doilor eta txakurra Pedrorentzat eta arlotea eta zakarra Joanentzat. Armak ateratzeko asmoarekin eskuak gerrikora joan ziren baina, zorionez, dagak zorroan geratu ziren.

**"Armak ateratzeko asmoarekin eskuak gerrikora joan ziren baina dagak zorroan geratu ziren"**

Ondra jokoan zegoen eta gauzak ezin ziren horrela geratu, noski! Elkar auzitara eraman zuten *ohorea berreskuratzeko* asmoarekin. Joanek irabazi zuen epaiketa eta Pedro kondenatua izan zen; 2.000 marabediko isuna eta sei hilabete Bergaratik erbesteratuta. Horrela garbi geratu zen ezin zutela *kalitatezko* pertsona bati dohain iraindu.

Liskar honek XVII. mendeko abenturazko nobela batetik ateratakoa ematen du, baina hori eta askoz gehiago, 1991 urtean J.M. Orbeak idatzitako *Historia social de Bergara en su época preindustrial* liburuan irakurri daiteke.

trinmer telecomunicaciones
tdt televisión digital terrestre
**Bergaran ere badago Lurreko Telebista Digitala!**
Kontsulta iezaguzu eta soluzio onena eskainiko dizugu, ez itxaron gehiago eta alda zaitez TB digitalera.
**TRINMER 20 urte antenetan**
LTDerako aurrekontuak. Protokoloa eta Boletina barne
TRINMER Telekomunikazioen instalatzaile ofiziala 1305
Egogain Kalea 2-Bac 20600 EIBAR
Tel.: 943 12 73 50 – 943 10 89 43 | Faxa: 943 20 73 60
*antenas@trinmer.com* | *www.trinmer.com*

**ANTIA**
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
**Matxiategi 8. BERGARA**
**Tel.: 943 76 15 09**

disdira
**ile apaindegia**
**edertze gela**
Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

**TELEIXA BILTEGIAK**
**Eraikuntza materialak**
Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

**AISIALDIA** > ERDI AROKO EUSKAL AZOKA

# Erdi Aroko euskal azoka, bihar eta etzi

Ikuskizunez gain, 60 bat artisau-postu egongo dira, eta artisau lanbideak zuzenean ikusteko aukera ere bai

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Bihar, zapatua, eta etzi, domeka, Erdi Arora itzuliko da herria. Izan ere, Erdi Aroko euskal azoka antolatu du Udalak aste bukaerarako, lehenengoz.

Ikuskizunak, historia kontalariak, bertsolariak, kale animazioa, euskal jolasak, ipuin kontalariak, hegazti erakusketa, ezpata borroka, artisauak, janari postuak, artisauak… Askotarikoak egongo dira azokarako bereziki atondu dituzten hainbat gunetan banatuta, eta ikuskizunak izango dira San Martin plazan; artisau eta jaki postuak, San Martin eta Munibe plazetan; eta historia kontalariak egongo dira San Pedroko elizpean. Bestalde, umeendako gune bereizia jarriko dute Ariznoa plazan, goiko plazan.

**IKUSKIZUNAK ETA ARTISAUAK**

Askotariko ikuskizunak egongo dira: ezpata borroka, bertso paperak, kale animazioa, antzerkia eta hegazti harraparien erakustaldia, besteak beste.

Artisauei dagokienez, 60 saltoki inguru egongo dira, eta, horrekin batera, artisau lanbideak zuzenean ikusteko aukera ere egongo da: perratzaileak, abarkagileak, harri-joleak…

Gainera, janari postuak ere egongo dira; kebap, krep, olagarro eta talo postuak.

**EUSKAL HERRIKO HISTORIA**

Historiak ere izango du txokoa Erdi Aroko euskal azokan. Euskal Herriko historiako pasarteak ezagutu nahi dituenak horretarako aukera izango du San Pedroko elizpean –zapatuan, 13:30ean eta 19:00etan eta domekan, 11:30ean eta 18:00etan–. Gainera, Euskal Herriko historiari buruzko erakusketa ere jarriko dute.

**UMEENDAKO GUNEA**

Umeek eurendako propio prestatutako gunea izango dute Ariznoa plazan. Erdi Aroko zirku tailerra, euskal jolasak, ipuin kontalaria eta mitologian oinarritutako kalejira egongo dira, beste gauza batzuen artean.



60 bat artisau-saltoki egongo dira San Martin eta Munibe plazetan. Irudian, bitxigilea Arrasateko azokan. GOIENKARIA

## Azokaren egitaraua

**20, zapatua**
- **10:30** Deialdia: txalapartariak.
- **10:45** Pregoia eta irekiera ekitaldia.
- **11:30** Erdi Aroko euskal kale animazioa.
- **12:00** Ezpata borroka.
- **13:00** Bertso paperak.
- **13:30** Historia kontalaria.
- **17:00** Ezpata borroka.
- **17:30** Erdi Aroko kale animazioa.
- **18:30** Bertso paperak.
- **19:00** Historia kontalaria.
- **20:00** Hegazti erakusketa.
- **21:00** Zer ote?

**21, domeka**
- **10:30** Deialdia: txalapartariak.
- **11:00** Erdi Aroko euskal kale animazioa.
- **11:30** Historia kontalaria.
- **12:15** Ezpata borroka.
- **13:00** Bertso paperak.
- **13:30** Hegazti erakustaldia.
- **17:00** Ezpata borroka.
- **17:30** Erdi Aroko euskal kale animazioa.
- **18:00** Historia kontalaria.
- **18:30** Bertso paperak.
- **19:00** Hegazti erakusketa.

## Umeen guneko egitaraua

- **10:30-14:00** Erdi Aroko zirku tailerra.
- **10:30-14:00** Euskal jolasak.
- **12:30-13:30** Ipuin kontalaria.
- **13:15-14:30** Mitologia kalejira antzerkia.
- **16:30-20:00** Erdi Aroko zirku tailerra.
- **16:30-20:00** Euskal jolasak.
- **16:30-20:00** Ipuin kontalaria.
- **16:30-20:00** Mitologia kalejira antzerkia.






GOIENKARIA

## Bideberrin, aparkaleku gutxiago

Eguenean hasi ziren makinak Bideberriko errepidean lanean. Errepidea bi noranzko bihurtzeko lanak dira eta horretarako aparkalekuak kendu egin behar izan dituzte. Mantendu egin dituzte Eroski kontra daudenak.

> GAZTETXEA

### Ekitaldiak aste bukaeran, gaztetxearen 9. urtemuga ospatzeko

Gaur, egubakoitza, mahai jokoak egongo dira, 17:00etan hasita. Bihar, zapatua, triki poteoa egongo da 12:00etan eta 14:00etan bazkaria egingo dute. Txartelak eros daitezke 4 eurotan Kortazar, Arrano eta Pol-Pol tabernetan. 23:00etan kontzertua izango da Karkaba eta Los Huevos Kinder taldeekin. Etzi, domeka, *Elephant* izeneko filma emango dute, 18:00etan, zineklubean.

> JAIAK

### Jaiak ospatuko dituzte San Juan auzoan eguaztenean

Eguaztenean, San Juan eguna, ospakizun eguna izango da San Juango auzotarrendako. 12:00etan meza egongo da hango ermitan, San Joxepe erretiratuen abesbatzak abestuta. Meza bukatu eta gero, luncha egongo da, trikitilariek alaituta.

Auzotarrek bergarar guztiak gonbidatu eta animatu nahi dituzte San Juan eguna eurekin ospatzera.

**MUSIKA** > EMANALDIA

# Orfeoiko eta Gaberoko umeen kontzertua domekan

Ikasturte bukaerako emanaldia Mariaren Lagundia elizan izango da, 19:00etan

**M.B.** > BERGARA
Bergarako Orfeoi Txikitxoak, Bergarako Orfeoi Txikiak eta Gabero Abesbatzak ikasturte bukaerako kontzertua egingo dute domekan. Hiru taldeak Mariaren Lagundia elizan elkartuko dira, 19:00etan.

Kontzertua bi zatitan banatzen da: hasieran hiru taldeek banakako saioak egingo dituzte, azken hiruhilekoan ikasi dutena erakusteko; eta bukaeran, hirurek elkarrekin abestuko dute.

**BUKATZEKO, DENAK BATERA**
Bergarako Orfeoi Txikitxoa igoko da lehenik oholtza gainera. Sei kantu eskainiko dituzte; besteak beste, *Lau katu eta danbor bat* eta *Good News*.

Ondoren, Orfeoi Txikiaren txanda izango da. *Udazken koloretan* kantuarekin hasiko dute emanaldia, eta bost kantu eskainiko dituzte. Gabero Abesbatzak egingo du hirugarren saioa. Guztira, zortzi kantu eskainiko dituzte; besteak beste, *Alami* eta *You raise me up*. Bukatzeko, hiru taldeek bi kantu eskainiko dituzte: *Kokoleoko* eta *Io sono un bambino*.

Aitor Biainek zuzenduko ditu hiru taldeak eta Eli Mendiaratz izango da kontzertuko piano-jotzailea.

**ANTZERKIA** > EMANALDIA

# Gaur, 'Txanobarragorro' antzezlana Zabalotegin

**M.B.** > BERGARA
Azeri antzerki taldeak *Txanobarragorro* izeneko lana eskainiko du gaur Zabalotegi aretoan, 22:30ean. Sarrerak txarteldegian salduko dituzte emanaldia hasi aurretik.

**'OFF'-EKO AHOTSA ETA IRUDIAK**
*Txanobarragorro* antzezlana makroprozesuetan oinarritzen da. "Ez dugu makroprozesu konkretu bati buruz berba egiten. Terrorismo kontzeptuaren abusuaren kritika da", esan digu taldeko kide Ibon Arregik.

*Txanobarragorro* Azeri taldeak egiten duen bigarren lana da –aurretik, *Kastillako dorreak* egin zuten –. Oholtza gainean Ander Lipus izango da aktore bakarra. Harekin panpinak egongo dira. *Off*-eko ahotsa eta irudiak tartekatuko dituzte.

**MUSIKA** > 'KANTARI' KARAOKE IKUSKIZUNA

# 1.000 lagun baino gehiago 'Kantari' ikuskizunetan

Batez beste, 100 lagun egon ziren aste bukaeran Zabalotegin GOITBk grabatutako saio bakoitzean

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA
Parte-hartzaileek erantzun bikaina eman zioten *Kantari* karaoke ikuskizunari. Baina ikusleek ere bikain erantzun zuten Bergaran egindako saioetan. Zapatuan eta domekan egindako ikuskizunetan 1.100 lagun inguru bildu ziren Zabalotegi aretoan. "Domekako saioetan zapatukoetan baino ikusle gehiago egon zen", esan digute Zabalotegiko arduradunek. Batez beste, 100 bat lagun egon ziren ikuskizun bakoitzean. "Domekako ikuskizun batzuetan Zabalotegi bete egin zen eta 120 txartelak agortu egin ziren", esan digute.

**BERGARA, ANTZUOLA ETA ELGETA**
Zapatu eta domeka artean 11 ikuskizun grabatu zituzten, eta guztira, 8 eta 12 urte arteko 270 neska-mutikok parte hartu zuten; hain zuzen ere, 243 bergararrek, 23 antzuolarrek eta lau elgetarrek. Parte-hartzaile bakoitzak bina gonbidapen zituen aretoan sartzeko. Gainerako sarrerak txarteldegian banatu zituzten.

**TELEBISTAKO EMISIOAK**
Grabazioak egin ondoren, ikuskizuna telebistaz ikusteko unea heldu zaie. Zabalotegin grabatutako ikuskizunak uztailean emango dituzte GOITBn: uztailaren 10ean, 13an, 14an, 15ean, 16an, 17an, 20an, 21ean, 22an, 23an eta 24an. Guztiak, 20:45ean.


Joan den zapatuan parte hartu zuen talde bateko kideak. GOIENKARIA

JOXE MARI IPARRAGIRRE
BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA

ERIZAIN LAGUNTZAILEA

Erdi mailako heziketa zikloa.
Osasun familia. A-D EREDUAK

LANBIDE ETORKIZUNAK

- Ospitaleko erizain laguntzailea
- Zaharren egoitzetan
- Eguneko zentruetan
- Lehen artapenetako laguntzailea
- Kontsulta pribatuetan.
- Hortz-kliniketan laguntzailea.
- Gaixoen zaintza.

MATRIKULA EGITEKO EPEA:
ekainaren 29tik uztailaren 3ra
(biak barne)



J.M.IPARRAGIRRE B.H.I
Santa Barbara bidea z/g – 20700 URRETXU (Gipuzkoa) • Tel./ Faxa: 943 72 14 03 / 943 72 14 13
www.iparragirre.net - jmiparragirre@edunet.es

**FUTBOLA** > IPINTZAKO UDAKO FUTBOL TXAPELKETA

# Ipintza futbol txapelketako hamahiru partidu asteburuan

Gizonezkoetan hiru jardunaldi jokatu dituzte. La juve, Ez dakiu eta Indar gorri taldeak daude hiru multzoetan agintzen



A ze flaxa eta Real America taldeak, eguaztenean (12-2). Amerikarrek zazpi jokalarirekin amaitu zuten partidua. X.U.

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Bergara Kirol Elkarteak antolatzen duen txapelketa badoa aurrera. Aste barruan norgehiagoka mordoa jokatu dituzte, baina asteburuan ere izango da hitzordurik, gaurtik hasita guztira 13 partidu jokatuko dituzte-eta (ordutegiak beheko taulan).

Aurtengo txapelketak ere arrakasta galanta izan du, guztira 33 talde dabiltzalako jokatzen –hamasei talde gizonezkoetan (futbol 11), bederatzi talde nesken txapelketan (futbol 8), eta zortzi talde beteranoetan (futbol 8)–.

**LIGA ETA KOPA**

Taldeak orain momentuan ligan daude murgilduta, baina antolatzaileek segituan helduko diote kopa txapelketari, ligako lehenengo fasean kanporatutako taldeek jokatuko dutena.

Gizonezkoek ekainaren 23an jokatuko dute ligako azken jardunaldia, emakumezkoek uztailaren 1ean eta beteranoek ekainaren 27an. Eta, talde onenek aurrera egingo dute, ligako azken fasera. Finalak, berriz, uztaileko bigarren asteburuan jokatuko dituzte. Egubakoitzean, uztailak 10, gizonezkoen finala izango da, eta zapatuan, uztailak 11, nesken finala eta baita beteranoen txapelketakoa ere.

**Ipintzako txap.**

**PARTIDUAK**

**Ekainak 19, egubakoitza**

**19:00** Potzu ta zapaburuak-S.O.S (neskak).
**19:00** Flowerpower-Zutaz pentsatz. (nesk.)
**20:00** Pentols-OuPitxuou (neskak).
**20:00** Plaust-Ostrukak (neskak).

**Ekainak 20, zapatua**

**09:45** Plaust-Pentols (neskak).
**09:45** Zutaz pentsatzen-S.O.S (neskak).
**10:45** Botobekutz-Oupitxuou (neskak).
**10:45** Ostrukak-Potzuetazapaburuak (nesk.).
**11:45** Indar Gorri-Santana River (Gizonezk.)

**Ekainak 21, domeka**

**10:15** Irish-Errotagain (Beteranoak)
**10:15** Infernokua-Azeflaxa (Beteranoak)
**11:15** Sin funda-La juve (Beteranoak)
**11:15** Gorriones-Komando Pipe. (Betera.)

## UD Akabaoak taldeak liga eta kopa poltsikora

Erretratuko UD Akabaoak taldea izan da aurtengo Labegaraietako txapelketan jaun eta jabe. Liga irabaztearekin konformatu ez eta joan den asteburuan jokatu zuten kopa txapelketako finala (6-2).

Zigalikatis taldeak ondo estutu zuen gerora txapeldun izango zena. 1-2 joan ziren aldagelara, baina bigarren zatian Akabaoak taldeak erreakzionatu egin zuen, bost gol eginez.



ASIER PEREZ

**GIMNASIA ERRITMIKOA**

## Ikasturte amaierako jaia egingo dute gaur

**X.U.** > BERGARA

Ariznoa gimnasia elkarteak gaur, egubakoitza, egingo du ikasturte amaierako jaialdia. Labegaraietan. Eta, 18:00etan hasiko duten jaialdi horretara Bergarako gimnasia zale guztiak daude gonbidatuta.

**TROFEOZ BETETAKO URTEA**

Ariznoa taldeak gura beste trofeo eta sari irabazi ditu aurtengo ikasturtean. Alde horretatik gimnasta bergararrak oso fin ibili dira.

Baina hori ez da ikasturtea nota altuarekin amaitzeko motibo bakarra, izan ere, Ariznoak antolatutako urteurren jaialdia biribila izan zen. Gaur urtean zehar horrenbeste sari irabazi dituzten gimnastek jardungo dute.

> ESKUBALOIA

### Federazioak zilarrezko intsignia Josetxo Muniategiri

Gipuzkoako eskubaloi federazioak eguaztenean banatu zituen urrezko eta zilarrezko intsigniak.

Guztira bost teknikarik jaso zituzten zilarrezko intsigniak, eta horietako bat izan zen Josetxo Muniategi. Horrekin batera, Benito Muxika bekak ere banatu zituzten.

> LANAK

### Agorrosineko atletismo pista itxita egongo da lanengatik

Futboleko aldagela berrietako lanak direla-eta, Agorrosingo atletismo pistak itxita egongo dira, eta baita Ipintzara sartzeko ate nagusia ere –Agorrosingo tabernatik egongo da sarrera.

Oraingo astean hasi dituzte lanok, eta irailean amaituko dituzte.

> TXIRRINDULARITZA

### Mikel Aristi eta Eneko Lizarralde oso ondo joan den asteburuan

Bergarako Mikel Aristik gaztetxoen torneoa irabazi du, Seguran, Urdulizen eta Rivabellosan (Araba) egindako lasterketei esker. Bestalde, joan den asteburuan egin zuten San Antonio sarian Asier Unanue izan zen azkarrena, eta Lokatzako Eneko Lizarralde hirugarren helmugaratu zen.

GOIERRI
Autogidarien Eskola
Edozein eratako gidabaimenak atera ditzakezu
Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

Kabutzia
ARRAINDEGIA
Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

UREDERRA
ITURGINTZA
Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta
Arruriaga 11
686 943 918

**kanpotarrak bergaran**

**Suad Kebir** > Marokoarra
Baserri baten bizi da

# "Baserrian bizi naiz eta gatzatua liluragarria dela iruditzen zait"

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA

**Suad Kebir marokoarra duela bederatzi hilabete heldu zen gurera. Bizitza hobearen bila etorri zen, eta, hasierako hilabeteak "oso gogorrak" egin bazitzaizkion ere, gustura dagoela esan digu. Bergarako Helduen Eskolan dihardu eskolak hartzen.**

"Kostata" baina gure ohituretara ohitzen doala esan digu Suad Kebirrek. Duela bederatzi hilabete heldu zenean, hizkuntzarekin arazo asko izan zituela esan digu: "Oso galduta sentitu nintzen, baina Bergarako Helduen Eskolan izena eman nuen, eta irakasleen laguntzarekin hasi naiz espainola menderatzen".

Bere jaioterrian, Rabaten, irakaslea zen eta frantsesa irakasten zuen, baina hango soldatak txikiak zirenez, Euskal Herrira etortzea erabaki zuen. Egun, irakasle lanak alde batera utzita, 94 urteko emakumea zaintzen du. "Egia esan, oso gustura nago. Egun dudan lanarekin Marokon baino hiru aldiz gehiago irabazten dut. Bi seme-alaba ditut eta haiengatik gogor egin behar dut lan". Baserri baten bizi da zaintzen duen emakumearen familiarekin. "Oso ondo tratatzen naute. Baserri baten bizi izateak dituen alde onak ezagutu ditut; besteak beste, animaliak ditugu".


Suad Kebir.

**"Hurrengo erronkak euskara ikasi eta seme-alabak ekartzea dira"**

**EGURALDIA ETA EUSKARA**

Janariarekin arazorik izan ez duela esan digu, eta orain pikanterik gabe jaten du. Dena den, bada janari bat oso gustuko duena, gatzatua: "Izugarri gustatzen zait, batez ere eztia botatzen badiot. Liluragarria da!"

Eguraldiak ere asko harritu duela esan digu: "Ekainean euria egitea eta lo egiteko bi manta eta pijama luzea erabiltzea berria da niretako. Marokon ez dugu halako tenperatura aldaketarik egun batetik bestera".

Maroko faltan sumatzen duela dio, baina oraingoz oporretan bakarrik joateko asmoa duela esan digu: "Ez daukat itzultzeko asmorik".

Suad Kebirren hurrengo erronkak bi dira: euskara ikastea (irailean hasiko da) eta seme-alabak ekartzea.


IÑIGO LARRAÑAGA

## 84koek kinto bazkaria egin zuten

1984. urtean jaiotakoek kinto bazkaria egin zuten ekainaren 13an. 36 bat lagun elkartu ziren Tartufon bazkaltzeko. Ondoren, DJ saioa eta dantzaldia izan zuten. Gauez parrandarekin jarraitu zuten. Iñigo Larrañaga eta Miren Elizburu izan ziren antolatzaileak.

**oharrak**

HEZKUNTZA
**> Aurre-matrikula zabalik dago Helduen Heziketa Eskolan**

Helduen Heziketa Eskolan zabalik dute aurre-matrikula hilaren 23ra arte. Ikasturte berrirako behin betiko izenematea iraileko lehen hamabostaldian egin beharko dute. Interesatuak eskolatik pasa daitezke edo 943 76 44 52 telefonora dei dezakete.

LANPOSTUA
**> Udaleko Ur Zerbitzuko Iturgin lanpostu bi betetzeko deialdia**

Ur brigadan hutsik dauden bi lanpostuak lehiaketa-oposizio librean beteko dituzte. Bete beharreko baldintzak eta eskaera orriak *www.bergara.net* webgunean eskura daitezke. Izenematea zabalduko dute deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean kaleratu ondoren.

LARRAÑAGA
AUTOESKOLA
MASTERREKA 10ean GAUDE




**Masterreka 10** Tel.: 943 76 16 63 **BERGARA**
**Santa Ana 11** Tel.: 943 74 10 11 **ELGOIBAR**



Irudian, joan den urteko San Juan bezpera. MIRIAN BITERI

JAIAK > SAN JUAN BEZPERA

# Suaren magia eta dantzak uztartuko dira martitzenean plazan

Herriko plazan egingo dituzte berriro San Juan bezperako ekimenak: Loramendi eta Leizarrakoen emanaldia, dantzaldia, sua eta tantaia jasotzea

MIRIAN BITERI > ARETXABALETA
Debagoieneko gainontzeko herrietan egiten den moduan, Aretxabaletan ere behar bezala ospatuko dute martitzenean San Juan bezpera. Joan den urtean antolatutako egitarauarekin alderatuta, aldaketa bakarra dago aurtengoan: tokia. Egun horretako ospakizunak betiko tokira itzuliko dira berriro; hau da, herriko plazara. Iaz obretan zeuden plazan, eta, hortaz, ezin izan ziren han egin; kirol etxeko aurrealdean egin behar izan ziren.

**LORAMENDI ETA LEIZARRA**
Egitarauari dagokionez, ekimenak oso antzekoak dira. Arratsaldean hasiko dira. Betiko moduan, 18:30ean, Loramendi dantza taldeko eta Leizarra musika eskolako ikasleek emanaldia egingo dute.

Jarraian, etxeko txikienen artean negar nahiz barre algarak eragiten dituzten pertsonaiak irtengo dira kalera, herriko txistularien laguntzaz. Buruhandiak aurrean jartzen diren guztien atzetik irtengo dira; ume edo nagusi. 21:00etan, Imuntzo eta Beloki trikitilariak igoko dira agertokira. Erromeria eta trikiti munduan aurkezpenik behar ez duen bikoteak pieza alaiak, freskoak eta dantzagarriak joko ditu zerua guztiz ilundu arte.

Jarraian, San Juan bezperako beste klasikoaren ordua iritsiko da: Loramendi dantza taldearen eskutik, sanjuanetako zortzikoa. Sua handik gutxira piztuko den seinale da esandako hori.

**SUA ETA TANTAIA**
Dantza amaitzean, 22:30ean, San Juan sua piztuko dute eta jarraian, Imuntzo eta Beloki musika taldeak dantzaldiarekin jarraituko du. Eta, aspaldiko ohiturari jarraituz, datorren urteko Santa Ageda neska-mutilek tantaia jasoko dute herriko plazan.

Mobiliario
ARENAZA
• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Iber
Loteria
Paper denda
Liburuak
Otalora 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

Jon Díaz
Harakina
Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

PRESOAK > KEPA URRA

# Kepa Urra Almeriako espetxera eraman dute

M.B. > ARETXABALETA
Gose greban zegoen bitartean, Puerto I espetxetik atera zuten joan den asteburuan Kepa Urra eta orain Almeriakoan dago. Senitartekoek egunak eman dituzte arduratuta, Urra non zegoen ez zekitelako. Puerto I espetxekoekin kontaktuan jarri baziren ere, han inork ez zien aretxabaletarraren gaineko azalpenik eman.

Amnistiaren Aldeko Mugimenduak aretxabaletarren egoera salatu du. Jakinarazi du ekainaren 9an Puerto Ieko funtzionarioek Urraren gela miatu zutela, eta "dena hankaz gora utzi". Hurrengo egunean, berriro sartu eta Urrari bera miatu behar zutela jakinarazi zioten; aretxabaletarrak, baina, uko egin zion horri. Isolamendu gela batera eraman zuten orduan, eta, Amnistiaren Aldeko Mugimenduak emandako datuen arabera, aurpegian hainbat golpe eman zizkioten.

> UDALA

## Dagoeneko udako ordutegiarekin hasi dira udaletxean: 08:00etatik 14:00etara dago zabalik

Joan den astelehena ezkero udal langileak udako ordutegiarekin hasi dira, eta, hortaz, goizez bakarrik dago zabalik udaletxea: 08:00etatik 14:00etara. Orain arte, ekainaren 15etik irailaren 15era arte izan dute ordutegi hori. Aurten, baina, irailaren bukaerara arte luzatzea erabaki dute. Udaletik jakinarazi digute Udaltzaingoak normal egingo duela lan, goizez eta arratsaldez.

> UDALA

## Berdintasun Planari ekarpenak egiteko epea zabalduko du Udalak astelehenean, hilak 22

Berdintasun Plana batzordean onartu ostean, astelehenean, ekainak 22, horri ekarpenak egiteko epea zabalduko du Udalak. Plana Aretxabaletako webgunean eta liburutegian dago. Interesa duen edozeinek hamabost egun izango ditu ekarpenak egiteko. Jarraian, horiek aztertu eta osoko bilkurara eramango dute plana.

> ZERGAK

## Ondasun higiezinen gaineko zerga ordaintzeko epea zabalik egongo da abuztuaren 19ra arte

Aurtengo ondasun higiezinen gaineko zerga ordaintzeko borondatezko epea abuztuaren 19an amaituko da. Helbideratu gabeko erreziboak udal diru-bilketa bulegoan, astelehenetik barikura 08:00etatik 13:30era, entitate laguntzaileetan edo Internet bidez *www.aretxabaleta.com* orrian ordain daitezke.



MIRARI ALTUBE

## Gidatzerakoan aurrezteko ikastaroa

Martitzenean egindako gidatze ekonomikoaren gaineko ikastaroan hamabost lagunek parte hartu zuten. Txema Haya irakasleak gutxiago kutsatu eta gehiago aurrezteko automobila zelan gidatu behar den erakutsi zien lau ordutan. Energiaren Euskal Erakundearen ibilgailuetan buelta eman eta Hayak hainbat aholku eman zizkien ikasleei.

KULTURA > HAUSNARKETA

# Kultura Planari herritarrek egindako ekarpenak jaso dituzte

Herritarren hausnarketa txostenean jaso dute, eta orain, Udalak behin-behineko ondorioak aterako ditu; uztailaren 9an aurkeztuko ditu


Herritarrak kulturaren gaineko hausnarketa egiten, taldetan elkartuta. ELHUYAR

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA
Kultura Plana apirilean jarri zuen abian Udalak eta oraindik lanean jarraitzen dute, Elhuyar Aholkularitzak bideratuta. Plan hori egiteko, herritarren laguntza eskatu zuen, eta oraintsu arte jardun dute lanean hainbatek. Behin lana bukatuta, Udalari dagokio ekarpenak aztertu eta proposamen zehatzak egitea.

**LAU LANTALDE, 55 HERRITAR**
Kultura Planaren helburua da Aretxabaletako bizitza eta dinamika kulturalaren inguruko hausnarketa egitea eta kultura mailako etorkizuneko ildoak definitzea. Eta lan hori herritarren parte-hartzean oinarrituta egin gura izan du Udalak.

Horretarako, lau talde osatu zituzten: hiru, adinaren arabera –16-20 urte, 20-55 urte artekoak eta 55 urtetik gorakoak–, eta laugarrena, herriko taldeetako ordezkariekin osatuta. Hala, 55 lagunek hartu dute parte.

Talde bakoitzak bi saio egin ditu. Lehenengo saioan, atzera begiratu eta herriko kulturaren egoera eta bilakaera aztertu dute. Bigarrenean, ostera, etorkizunerako proposamenak egin dituzte.

Lantalde horietan landutakoa txosten batean jasotzen dabil orain Elhuyar Aholkularitza. Txosten horretan oinarrituta, beste saio bat egingo du Udaleko ordezkari politikoekin eta teknikariekin. Saio hori egindakoan, behin-behineko ondorioak aterako ditu Udalak, herritarrei aurkezteko.

**AURKEZPENA, UZTAILAREN 9AN**
Uztailaren 9an aurkeztuko du egindako lana Udalak, Arkupen, eta prozesuan parte hartu duten guztiak daude gonbidatuta azken saio horretara. Udalak behin-behineko ondorioen eta erabakien berri emango du, eta herritarrek euren iritziak konpartitu ahal izango dituzte. Elkarri entzutea, xehetasunetan sakontzea eta eman behar diren argibideak ematea da saio horren helburua, Elhuyarren esanetan. Prozesua bukatzeko, behin betiko erabakiak hartuko ditu Udalak eta herritarrei helaraziko dizkie gero.

> DEIA

### Gurasoen laguntza gura du Udalak buruhandietarako

Kultura batzordeko buru Inaxio Garrok batzarra egin du herriko ikastetxeetako guraso ordezkariekin buruhandien ekitaldiak bideratzeko. Gurasoen laguntza ezinbestekoa dela jakinarazi zuen Garrok; hain zuzen, guraso horien umeek gozatzen dutelako gero buruhandiekin. Urtean lau aldiz irteten dira buruhandiak eta jaiegun horietarako ikastetxe bakoitzetik gutxienez hiru guraso elkartzea da helburua.

> IRTEERA

### 'Puenting'-a egiteko irteera antolatu du Loramendik

*Puenting*-a egitera joateko irteera antolatzen dabiltza Loramendi Euskara Elkarteko kideak. Azkoitira joango dira eta 16 urtetik gorako edonork eman dezake izena Loramendin bertan 943 77 09 70; azken eguna: uztailak 2. Irteeraren data oraindik zehaztu barik daukate.

Bestalde, dagoeneko hasita dago emakumeen arteko frontenis txapelketa. Finala uztailaren 17an izango da.


Umeak, Lekeitioko hondartzan, arraunak eskuan dituztela. MURRUKIXO

IRTEERA > MURRUKIXO

## Umeak eta helduak gustura, Lekeitiora egindako irteeran

Aulestin hasitako mendi buelta egin ostean, arraunean egin zuten

**M.A.** > ARETXABALETA
Aulestitik Lekeitiora (Bizkaia) mendi buelta egin zuen Murrukixo Mendizale Elkarteak joan den domekan. Familia giroko irteera izan zen eta talde ederra elkartu zen: 46 lagun.

Mendi buelta gogorra izan zen, baina gaztetxoek ez zuten izan inolako arazorik, eta bizkor ibili ziren elkarren ondoan. Mendian bakarrik ez, arraunean ere bikain moldatu ziren. Pirti eta Goia begiraleak izan zituzten lagun eta kresal usainarekin gozatzen erakutsi zieten gazte aretxabaletarrei. Horregatik eskerrak eman gura dizkiete Murrukixoko kideek, baita Isuntza Arraun Elkarteari ere.

Murrukixok familia giroko irteerak antolatzen dituen bigarren ikasturtea da, eta udazken ingururako ezusteko irteera gertatzen dabiltzala esan digute.

MUSIKA > LEIZARRA MUSIKA ESKOLA

## UDAko abestiarekin bukatu zuten kontzertua ikasleek

Azken kontzertua eta meriendak eginda bukatu dute kurtsoa musika ikasleek

**M.A.** > ARETXABALETA
Astean bukatu dute ikasturtea Leizarra musika eskolako ikasleek. Martitzenean egindako kontzertua izan zen urteko ekitaldirik garrantzitsuenetakoa, eta ikasleek ikasitakoaren berri eman zioten Iturrigorri pilotalekuan elkartutako jendetzari.

Txikienek *Maiderren baserrian* abestu zuten, dotore abestu ere. Gero musika tresnen erakustaldia egin zuten eta talde txikitan hainbat abesti jo zituzten. Musika eskolako abesbatzak ere abestu zuen –neskak guztiak–, baita bakarka ere. Metallica taldearen bertsio bat ere eskaini zuten, baina kontzertuko unerik hunkigarriena bukaeran iritsi zen. Haizezko instrumentuak jotzen dituztenek ezustekoa zeukaten gertatuta ikusleendako, Aretxabaleta Kirol Elkarteko abestia hain zuzen. Pozik jarraitu zuten ume eta helduek.


UDAko abestia jotzen, haizezko musika tresnekin. MIRARI ALTUBE

**oharrak**

ANTZERKIA
**> 'Renato' antzezlana, gaur**
Ganso Teatro taldeak *Renato* antzezlana eskainiko du gaur Arkupen (22:00). Sarrera 8 euro da.

ERAKUSTALDIA
**> Gimnasia erritmiko erakustaldia gaur**
Aretxabaleta Kirol Elkarteko gimnasia erritmiko taldeak erakustaldia egingo du gaur Herriko Plazan (18:30).

KONTZERTUA
**> Inalectrik bakarlariaren kontzertua izango da bihar**
Iñaki Sagasta (Inalectrik) aretxabaletarrak kontzertua eskainiko du bihar, zapatua, Arkupen (22:00). Debalde da.

ERRETIRATUAK
**> Bizkai aldera joateko txartelak salgai**
Erretiratuak Bizkai aldera joango dira uztailaren 2an. Bakio, Armintza, Algortako portua eta beste hainbat paraje bisitatuko dituzte. Txartelak aurrez salduko dituzte Basotxon, hilaren 23an eta 24an, hain zuzen (11:00-12:00).

ERAKUSTALDIA
**> Dantza afroamerikarrak**
Jaiki elkarteak dantza afroamerikarren erakustaldia egingo du gaur, plazan (19:30).

# Berriz ere.

**GOIENKARIA da hedabide irakurriena Debagoienean, berriz ere.**
CIESen 2009ko lehen neurketak horixe dio.
Zuk eta beste 36.000 lagunek baino gehiagok irakurtzen dute astero.
Gipuzkoa osoan, 44.000 lagunek.
Eskerrik asko irakurleoi eta publizitatea jartzen duzuen guztioi.




Goienkaria

Udalekuak Oñati eta inguruetan egingo dituzte uztailaren 15etik 31ra arte

Dagoeneko zabalik dago izenemate epea, hilaren 25era arte: posta arrunt bidez edo posta elektronikoz eman daiteke izena

**AISIALDIA** > UDALEKUAK

# Gazteendako udalekuak antolatu dituzte uztailerako

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Oñatiko gaztetxeak 17 urtetik gorakoendako udalekuak antolatu ditu. Hain zuzen ere, uztailaren 15etik 31ra egingo dituzte udalekuak Oñatin eta inguruetan. Oraingoz, zabalik dute izenemate epea. Helduendako udalekuetan parte hartu gura dutenek hilaren 25a baino lehen eman beharko dute izena. Bi modutara eman dezakete izena: alde batetik, gutuna bidaliz (LIZ, Olakua 18 7-A, 20.560 Oñati); edo bestela, *ubili@euskalerria.org* helbidean.

Izena ematerakoan izen-abizenak, helbidea eta jatorria idatzi beharko dituzte. Antolatzaileak uztailaren 1a inguruan jarriko dira hartu-emanetan izena eman dutenekin,

**BALDINTZAK**

Oñatiko gaztetxeak antolatutako udalekuetan parte har dezakete 17 urtetik gorako gazteek. Bete beharreko beste baldintza batzuk hauek dira: barne araudia errespetatzea (esandako orduan jaiki eta oheratu); udalekuetara ezingo dute ez mugikorrik, ez autorik ezta dirurik eraman (izenemateko 100 euroak bakarrik onartuko dituzte), sukaldeko eta garbiketa lanak guztion artean egin beharko dituzte eta ez dute animaliarik eta senitartekoen bisitarik onartuko egonaldiak irauten duen artean.

Antolatzaileek diote udalekuak euskaraz egingo dituztela. Dena den, erdal hiztunak direnek ere parte hartzeko aukera izango dute, euskararekiko errespetua erakusten badute.

**MENDI IRTEERAK ETA BESTE**

Hamabost eguneko udalekuetarako askotariko ekintzak antolatu dituzte: tailerrak, mendi ibilaldiak, dantzaldiak eta jolasak egingo dituzte, besteak beste. Gainera, gau batzuk kanpin dendan egingo dituzte, eta beharrezkoa da lozakua eta esterilla eroatea. Bestalde, errekan bainatzeko aukera izango dute eta bainu jantzia eroatea aholkatzen dute.

Udalekuen gaineko informazio gehiago gura dutenek edo zalantzak argitu gura dituztenek *ubili@euskalerria.org* helbidera idatz dezakete.

## oharrak

ERAKUSKETA

**> Oteitzaren gaineko erakusketa, domekara arte**

*Oteiza, bizirako proiektua* delako erakusketa ikusgai egongo da domekara arte, 18:30etik 20:30era.

HITZALDIA

**> Osteoporosiaren gaineko hitzaldia**

Pake Lekun egingo du hitzaldia Nagusilaneko kide Edurne Anduezak hilaren 23an, 17:00etan.

MUSIKA

**> Ganbarakoek bi kontzertu egingo dituzte**

Alde batetik, kantu tailerreko bi taldeek *Pentagramenea* ipuin musikatua eskainiko dute gaur, 18:00etan, Ramon Irizar kaleko lokalean. Beste alde batetik, Ganbara kantu eskolakoek ikasturte bukaerako kontzertua egingo dute bihar, 19:00etan, Santa Ana antzokian. Eskolako talde guztiek hartuko dute parte emanaldian. Bukaeran, luncha egongo da.



ALOÑA MENDI

## Gipuzkoako eta Arabako taldeak nagusi

Corpuseko hirugarren eskubaloi txapelketa jokatu zuten aurreko aste bukaeran. Infantil mailako Gipuzkoako, Arabako, Bizkaiko eta Nafarroako selekzioek parte hartu zuten. Mutiletan Arabako selekzioa gailendu zen eta nesketan, Gipuzkoakoa (goiko irudian). Iñaki Cantero oñatiarrak zuzentzen duen taldean Aloñako jokalari Leire Azurmendik eta Miren Ugartek jokatu zuten. Mutilen finalean Araba eta Nafarroa lehiatu ziren. Arabarrek irabazi zuten 25-20. Emakumeen finala parekatuagoa izan zen. Arauzko 60 minutuak 19nako berdinketarekin bukatu zituzten Gipuzkoak eta Bizkaiak. Hortaz, txapelketa penalti jaurtiketetan erabaki zen. Gipuzkoako taldeak hiru gol sartu zituen eta bizkaitarrek, bakarra.

> OSPAKIZUNA

### Meza egingo dute domekero Urbian azaroaren 1era arte

Aspaldiko ohiturari jarraituz, Joseba Etxeberria frantziskotarra meza esaten hasi da Urbian domeketan, eta horrela jarraituko du azaroaren 1era arte. Hain zuzen ere, 11:30ean hasten du elizkizuna. Era berean, uztailaren 31n, San Inazio eguna, eta abuztuaren 15ean, Andre Mari eguna, elizkizun bereziak egingo ditu artzainendako eta mendizaleendako.

Batez beste, 40 bat lagun elkartzen dira domekero Urbiako ermitan.

**JAIAK** > OLAKUA AUZOA

# Olakua auzoko jaiak ospatuko dituzte gaurtik domekara arte

**M.B.** > OÑATI

Auzoko jaiak ospatzeko aste bukaera heldu zaie Olakuako auzotarrei. San Andres Etxebizitza Kooperatibak askotariko ekitaldiak bildu ditu jai egitarauan; besteak beste, rock kontzertua, bertsolariak, auzo bazkaria, pailazoak eta mus txapelketa izango dira. Eta ekitaldi guztiak Olakua auzoko saskibaloi kantxan egingo dituzte.

Jaiak 19:00etan hasiko dituzte gaur. Txorimaloak eta erraldoiak auzoko kaleetan ibiliko dira txistularien laguntzarekin.

Ordurako, oholtza berotzen egongo dira rock kontzertuan parte hartuko duten hiru taldeak: Ez, Galdu Arte eta Zarta taldeak, hain justu ere. Zuzenekoa 22:00etan hasiko dute, jai egitarauan 22:30ean hasiko dela jartzen duen arren.

**ASKOTARIKO EKITALDIAK**

Bihar, 12:30ean, Oñatz dantza taldeko dantzari txikienek emanaldia egingo dute, eta jarraian herriko bertsolarien txanda helduko da. Urteroko ohiturari jarraituz, 14:30ean auzo bazkaria egingo dute Natur Eskolan. Bazkarirako txartelak salgai daude Olakua eta Artxubi tabernetan. Bertsolariek eta trikitilariek girotuko dute bazkaria.

Arratsalderako txikienendako hitzorduak iragarri dituzte: 17:30ean Potxin eta Patxin pailazoek emanaldia egingo dute eta 19:00etan txorimaloak irtengo dira. Zapatua bukatzeko erromeria egingo du Orots taldeak 20:00etan eta, etenaldiaren ondoren, 23:00etatik aurrera.

**DOMEKA**

Domekan, 12:30ean, auzoko hildakoen aldeko meza egingo dute Bidaurretan. Ondoren, herri kirol erakustaldia egingo dute saskibaloi kantxan. Arratsaldean, mus txapelketa, umeendako jolasak eta jai bukaera izango dira. Jaietako azken ekitaldia hilaren 27an egingo dute; hain zuzen ere, kadete mailako txirrindulari proba.



Musikarik ez da faltako biharko jaialdian; irudian, orain dela bi urte trikitilariek plazan eskainitako emanaldia. IKER BARANDIARAN

BAZKARIA

## Denboraldia agurtzeko bazkaria egin zuten zapatuan

Bazkaria egin zuen Eskoriatzako kirol elkarteak zapatuan denboraldia agurtzeko. Bertan, 70eko hamarkadako lasterkari Lourdes Izurrategik eta Daniel Muñozek aipamen berezia jaso zuten.

Denboraldian ondoen ibili diren kirolarien lana ere saritu zuten. Pilotan, Alex Oiartzabal izendatu zuten pilotari onena eta etorkizunean Mikel Zubizarretak zeresana sor dezakeela azpimarratu zuten. Iker Beamurgiak mendizale onenaren saria jaso zuen. Areto-futbolean, Andoni Arriaran, Koldo Azkue, Jorge Mora, Aratz Kortazar, Kevin Merino, Alfredo Martins eta Asier Diezen lana txalotu zuten; eta saskibaloian, Alazne Gutierrez, Maider Garai, Ane Mariñelarena, Yaiza Exposito, Ane Sanchez, Fernando Raso eta Juani Morillorena. Aurtengo elkartearen saria, azkenik, Maite Usabiagak jaso zuen.

**KIROLA** > III. KIROLARIAREN EGUNA

# Eskoriatzako Kirol Elkarteak jaiz jantziko du herria bihar

Elkarteak III. Kirolariaren Eguna egingo du bihar; kirol hitzorduez gain, gastronomia lehiaketak eta dastatzea egongo dira egun osoan

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA

Bihar, zapatua, Kirolariaren Eguna egingo dute Eskoriatzako Kirol Elkartekoek. Hirugarren edizio honetako egitarau zabalak orain arte egin ez diren hiru lehiaketa aurreikusten ditu; arratsalde partean egingo dira horiek.

Eskoriatzako Kirol Elkarteko presidente Manolo Muñozek azaldu digunez, 17:30ean areto futboleko jaurtiketa lehiaketa egongo da plazan: "Ate txiki bat jarriko da, atezainik gabe; barruan kono bi jarriko dira. Baloia bi horien artean sartu beharko da, abilidadeak izango du lehiaketa horretan garrantzia". Handik ordubetera, toki berean, saskibaloiko hiruko saskiratzeen lehiaketa hasiko da. Azkenik, 20:00etatik 21:00etara patatak zuritzeko nazioarteko lehiaketa egingo dute lehen aldiz. Horretarako izenemateak bi euro balioko du.

Muñozek lehiaketa horren gaineko azalpenak eman dizkigu: "Parte hartzaile bakoitzak kilo bat pisatzen duen patata poltsa hartu beharko du eta han dauden patatak zuritu. Denbora jakin batean patata-azal gehien biltzen duenak irabaziko du lehiaketa".

**PARTIDUAK**

Hitzordu berri horietaz gain, urterokoak ere egongo dira. Kirolariaren Egunari 10:30ean emango diote hasiera kiroldegian, saskibaloi partidu batekin. Kirol elkarteko gizonezko beteranoak emakumezko beteranoaren kontra lehiatuko dira. 10:45ean, berriz, herriko pilota txapelketako finalak hasiko dira; eta 11:00etan, umeendako jokoak plazan. Ordu berean, tortilla lehiaketari ekingo diote. Sukaldariek ordubete izango dute tortilla prestatzeko; 12:00etan aurkeztu ostean, epaimahaiak ordu erdiko epea izango du tortlila gozoena zein den erabakitzeko. 12:30ean irabazleen izenak jakinaraziko dira.

**HERRI BAZKARIA**

Handik bi ordura, herri bazkariari emango diote hasiera. Bazkari horretarako txartelak erosteko epea dagoeneko amaitu da. Antolatzaileek 60 lagun inguru espero dituzte.

Bazkaldu ostean, ekimenek jarraitu egingo dute. Areto-futboleko jaurtiketa lehiaketa amaitu ostean, esan bezala, saskibaloiko hiruko saskiratzeen lehiari hasiera emango diote 18:30ean. Ordu eta toki berean, txuleta jana egongo da; arrakasta itzela duen ekimena da hori.

Patatak zuritzeko nazioarteko lehiaketaren ondotik, jai bukaerako txupinazioa botako dute 23:00etan. Orduko indar barik egongo dira Kirolariaren Euneko parte-hartzaileak.

**GALIZIAKO BIDAIA**

Bestalde, Eskoriatzako Kirol Elkarteko presidenteak jakinarazi digu uztailerako aurreikusita zegoen bidaia bertan behera geratu dela, jende gutxik eman du-eta horretan izena. Galiziara joatekoak ziren uztailaren 3tik 5era bitartean.

Villar
Ile apaindegia
Olazar auzoa 9
Tel.: 943 71 50 42
ESKORIATZA

## Dagoeneko zabalik dago kanpoko igerilekua

Kanpoko igerilekuan egoteko eguraldi ederrarekin inauguratu zuten zapatuan udako kanpaina. Beroa eta eguzkia izan ziren nagusi. Ordutik hona eguraldiari dagokionez denetarik egon bada ere, igerilekuak zabalik dihardu honako ordutegian: astelehenetik zapatura, 10:00etatik 20:00etara; eta domeka eta jaiegunetan, 10:30etik 14:30era. Irailaren 13ra arte egongo da zabalik.



M.B.

**LANA** > DEIALDIA

# Gaur amaitzen da epea bi peoi kontratatzeko deialdian izena emateko

INEM eta Eskoriatzako Udalaren artean, udalerrian sei hilabetez egun osoz lan egingo duten bi peoi hartuko dituzte

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA
Langabezian dauden eskoriatzarrendako interesgarria izan daitekeen deialdia egin du Udalak asteon. Laster bi peoi kontratatuko ditu eta joan den astelehenean horretarako eskaerak jasotzeko epea zabaldu zuen. Interesa dutenek azkar ibili behar dute, gaur, barikua, amaitzen da-eta izena emateko epea.

**GARBIKETA LANAK**
Landa eta kaleguneetan garbiketa lanak egiteaz eta gune publikoak txukun edukitzeaz arduratuko dira bi langile berri horiek. Horretarako, igeltserotzan oinarrizko esperientzia eduki beharko dute eta sasi-garbitzeko makinak erabiltzen jakitea ere eskatuko zaie. Eskaintzen den kontratua sei hilabetekoa izango da, lanaldi osoz; eta maila profesionala, berriz, 7.a da.

Baldintza orokor bakarra exijitzen da: eskaera aurkeztu gura dutenek Arrasateko INEMen izena emanda izan beharko dute ekainaren 15a baino lehenagotik. Horretaz aparte, joan den ekainaren 15a baino lehenagotik Eskoriatzako Udalean erroldatuta egotea ere eskatuko zaie eskaera aurkezten dutenei.

**LEHENTASUNA**
Horren harira, Udalak azpimarratu du lehentasuna izango dutela azken hamazortzi hilabeteetan lana galdu dutenek, langabeziagatiko babes txikiagoa dutenek, familia ardura handiagoa dutenek, Txertaketa Errenta Aktiboaren (RAI bezala ezagutzen dena) programan aurkitzen direnek eta minusbaliatuek.

Baldintza guztiak betetzen dituzten pertsonek eskaera aurkeztu beharko dute Arrasateko Enplegu Bulegoan edo Eskoriatzako udaletxean. Internet bidez ere bidaltzeko aukera egongo da, posta elektronikoz bidalita *bop2005510@inem.es* helbidera, eta horretan 2036 erreferentzia jarriz.

Enplegu Bulegoak egiaztatuko du baldintza orokor guztiak betetzen direla eta izangaiak lehentasunaren arabera antolatuko ditu, eskaeran ezarritako baremoari jarraituz. Jarraian, Udalak hautaketa prozesua osatuko du eta probak edo elkarrizketak burutu ahalko ditu izangaiak baldintza zehatzetara egokitzen diren ala ez baloratzeko.

Eskoriatzako Udalak eta INEMek elkarlanean egin dute deialdia. Gipuzkoako 2009 urteko Enplegu Sustapen Programaren barruan dago hori. Horren gainean informazio gehiago gura dutenek *www.inem.es* webgunean aurkituko dute.

**EUSKARA**

## Seiehun euro daude euskara bultzatzeko

**M.B.** > ESKORIATZA
Euskararen normalizaziorako laguntzak eskatzeko deialdia zabalik dago. Aurten, Udalak 600 euroko partida aurreikusi du. Hiru laguntza mota daude: euskara hutsezko errotuluak jartzekoak, irudi korporatiboa euskaraz jartzekoak eta euskara ikastekoak. Lehenengo bietan 250 euro bideratuko dira bakoitzera eta hirugarrenean, 100 euro.

Leintz Udal Euskaltegitik kanpo egindako euskara ikastaroetarako eskariak aurkezteko epea uztailaren 15ean amaitzen da; gainontzeko kasuetan, azaroan. Informazio gehiago gura dutenak udaletxera joan daitezke.


MIRIAN BITERI

## Beheko Errotako musikariak, zaharren egoitzan

Beheko Errota musika eskolako ikasleek emanaldia egin zuten eguazten arratsaldean herriko zaharren egoitzan. Hala, hamahiru musikarik askotariko musika tresnak jo zituzten: trikitia, gitarra, akordeoia, biolina, saxofoia eta flauta. Musika emanaldiak ordu erdi inguru iraun zuen eta bai musika eskolakoak eta baita nagusiak ere oso gustura geratu ziren eta datorren urtean ekimena errepikatzeko asmoa agertu zuten. Horren harira, esan beharra dago lehen aldia izan dela zaharren egoitzan kontzertua eskaini dutela. Gaur, barikua, bestalde, ikasturte amaierako emanaldia egingo dute Ibarraundin, 18:00etan.

## Mila koloreko grafitia egin zuten zapatuan gaztelekuan

Zapatuan grafiti tailerra izan zuten Eskoriatzako gaztelekuan. Arratsalde osoa pasa zuten gazteek, Danelen laguntzarekin, grafiti erraldoia egiten. Bertan, *Mila kolore* idatzi zuten. Hitz horien bidez, egun berean amaitu zen Aste Zapatistarekin bat egin gura izan zuten gazteek: kolore guztien errespetua, indigena, azal iluneko pertsonena eta baita zuriena ere.


ESKORIATZAKO GAZTELEKUA

> JAIAK

### Aukeratu dute aurtengo San Pedro jaietarako esaldia

*Jaixek die nire pekatu. Aurtenguagatik, San Pedro, barkatu!* Horixe da San Pedro jaien harira, hamar urteotan izan diren esaldien artean eskoriatzarrek aukeratu dutena. Camila Mejias, Iñigo Aldai, Igor Elkorobarrutia, Dorleta Largo eta Ibon Segurak iaz aurkeztutako leloa da.

Udalak azaldu du lehiaketan 50 lagunek parte hartu dutela eta esaldi irabazleak 15 boto jaso dituela. Horrekin batera, esan du esaldi bat ere ez dela gelditu boto barik. Parte-hartzearen %95 Udaleko webgunean jaso da.

**ELKARTASUNA** > ANELKAR

# Anelkarren kantu afarirako sarrerak daude oraindik ere

**I.A.** > ANTZUOLA

Anelkarrek kantu afaria antolatu du ekainaren 20rako, zapaturako. Sarrerak hartzeko mugaeguna zehaztu bazuten ere, antolatzaileek jakinarazi digute oraindik salgai daudela. Fermin Balentzia kantari nafarra gidari dela, afalostean euskal kantagintzako abestiak kantatuko dituzte denen artean eta herritarrak kantura animatu nahi dituzte Anelkarkoek.

**BRASILGO BERRI**

Afariko dirua Senegalgo Zinguinchor herrian arroza zuritzeko makina bat erosteko eta Kongoko Kapiri herrian mendiko urak kanalizatzeko aitzurrak erosteko erabiliko dute.

Bestalde, Brasilen Juan Antonio Lizarralde zenarekin elkartasun lanetan jardundako Santiago Millanek hitzaldia egingo du martitzenean, hilaren 23an, 18:30ean, Olaranen.

> AZPIEGITURAK

## Udal Pilotalekua itxi egingo dute zapatuetan eta domeketan eguerditik aurrera

Frontoian jokaera desegokiak sarriago eta txarragoak direnez, erabaki da asteburuetan 14:00etan aurrera frontoia ixtea. Ordu horretatik aurrera pilotan jokatu nahi duenak udaletxean eskaera orria bete beharko du eta giltza eskuratu 10 euroko fidantza ordainduz eta 16 urtetik beherakoen kasuan gurasoek egingo dute eskaria.

> TXIRRINDULARITZA

## Unai Larrea izan zen irabazle Ondarreko jaietan egin zuten bizikleta jinkanan

Ondarren bizikleta jinkana izan zen zapatuan eta 29 neska-mutikok hartu zuten parte. Hutsik egin gabe, 26 segundotan egin zuen ibilbidea Unai Larreak eta hura izan zen irabazle; Mikel Arregik bost segundo gehiago behar izan zituen. Bizikleta challengeko hirugarren proba, Uzarragako Igoera, eguenean egin zuten.

> ZERBITZUAK

## Liburutegia goizez bakarrik egongo da zabalik astelehenetik irailaren 14ra arte; abuztuan, itxita

Astelehenetik, ekainaren 22tik aurrera, liburutegian udako ordutegia izango dute eta goizez bakarrik egongo da zabalik: 11:00etatik 14:00etara. Irailaren 14ra bitartean mantenduko dute ordutegi hori, baina herritarrei jakinarazi nahi diete abuztuan liburutegia itxita egongo dela.

> JAIAK

## Mairuaren Alarderako jende gehiago behar denez, luzatu egin dute izena emateko epea

Mairuaren Alardea Eraberritzeko batzordeak deialdia egin zuen herritarren artean parte-hartzaileak aurkitzeko. Aurten jende gehiago beharko denez, nahi dutenak garaiz daude izena emateko. Horretarako udaletxera edo batzordeko kideengana jo dezakete edo mezu bat bidali *kultura@antzuola.net* helbidera.



Torresoroako auditoriumean aurreikusita zeuden harmailak ez dituzte egingo oraingoz. GOIENKARIA

**EKONOMIA** > OGASUN ETA PERTSONAL BATZORDEA

# Neurriak hartu ditu Udalak krisiaren aurrean

Aurreikusitako hainbat inbertsio ez egitea erabaki dute, laguntza gutxiago jaso dutelako

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA

Udaleko Ogasun eta Pertsonal batzordeak erabaki du neurriak hartzea krisi ekonomikoari eta Udalaren finantza egoerari aurre egiteko. 2008an 155.000 euro gutxiago jaso zituen Udalak Gipuzkoako Foru Aldunditik, eta Udaletik diotenez, "aurten ere antzerako zerbait gertatuko da, iragarpenen arabera". Aldundiarekin egindako "finantzazio planean" aurreikusi bezala, "Udaleko diruzaintza soberakina txikia izan arren, bi edo hiru urtean beherako tendentzia iragartzen dugu eta egoera geldiarazi nahi genuke".

**INBERTSIORIK EZ**

Neurri nagusia izango da 2009an diruzaintza soberakinekin egin nahi zituzten inbertsioak bertan behera uztea. 16.000 euroko kostua zuten eta udal ekarpenetik eta dirulaguntzatik erdibana ordaindu behar ziren Torresoroako harmailak ez dituzte egingo. Baserrietako ur eta saneamendu lanen lehen fasea ere ez da egingo. Kostua 108.000 euro zen eta dirulaguntzetatik 68.000 euro ordaintzea zen asmoa eta Udalak 40.000 euroko ekarpena egitea.

Bestalde, 2008ko balantzea aztertu eta ikusitako desorekek ere badute eragina neurriak hartzerakoan. Urteko aurrekontuak egitean dirulaguntzetan beherapenak planteatu arren, gehiago murriztu behar dira, eta %10 jaitsiko dituzte; eguneko zentro eta etxez etxeko laguntzan aurreikusitakoa baino gehiago da Udalak ordaindu beharrekoa; Mizpiruldera bideratzeko aurreikusitako 4.220 euroak ez dituzte emango; telefonoetan aldaketak egin eta 2.000 euro inguru aurreztuko dituzte; lorezaintzan, berriz, ia 20.000 euro; eta 2009an hutsik dagoen brigadaburuaren postua ez betetzea erabaki dute.

**LANGILEEN KONTRATAZIOA**

Postu hori hutsik geratu arren, langileei dagokienez hainbat irizpide zehaztu dituzte 2009rako. Brigadaren definizioa egingo dute etorkizuneko brigadaren egitura eta zereginak definituz; Foru Aldundiak krisiaren eragina txikitzeko asmoz langileak kontratatzeko laguntzak bideratu ditu eta brigadarako langile bat kontratatzea da asmoa, Udalak enpresa gastuak ordainduko lituzke eta Foru Aldundiak langilearen soldata sei hilabetez; INEMeko laguntzekin ere brigadarako langilea hartuko dute eta guztira urte amaierara bitartean hiru langile izango lirateke. Azkenik, 2010. urtearen hasieran Auzolan programa abiatuko dute Bideberri mankomunitatearen bitartez. Lan munduan barneratzeko arazoak dituzten pertsonekin osatutako taldea izango da sei hilabeteko iraupena izango duena.

Inbertsioak bertan behera utzi, gastu arrunta gutxitu eta langileei dagokienez neurriak hartuz aurre egin nahi diote arazoari.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

DEKORAZIOA ABAD PINTURAK ANTZUOLA PAPER PINTATUAK
INDUSTRI MANTENIMENDUA
Jose Gomez Abad
Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19

EGAÑA
Era guztietako arotz lanak
Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatu eta barnizatuak
Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

**EUSKARA** > UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA

# Elgeta Ueman sartzea onartu dute

Uemak kudeatzen du euskara plana eta, Udaleko langileak ez ezik, herritarrak ere Elgetan euskaraz eroso bizi izatea ahalbideratzen du

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ELGETA

*Euskarak elkartzen gaituelako* lelopean, Uema (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) Eguna ospatu zuten joan den zapatuan Nafarroan, Beran.

Jai giroan ospatu arren, batzarra ere egin eta han onartu zuten zazpi udalerri berri Ueman sartzea, tartean Elgeta. Nafarroako Araitz, Larraun, Etxalar eta Bera; Bizkaiko Busturia; eta Gipuzkoako Amezketa eta Elgeta sartuta, 61 herri dira Uemako kide.

**HERRIARENDAKO ONURAK**

Ueman sartzearen helburua da herriko bizitzaren arlo guztietan euskaldunak erosoago sentitzea. Izan ere, Uemako udalerrietan biztanleen %70 gutxienez euskaldunak dira. Hortaz, euskararen erabilera arlo sozial guztietara zabaltzea eta udal euskaldun guztiekin euskara nagusi izango den gunea antolatzea da asmoa.

Ana Gillegi Euskara zinegotziak esan digunez, "Kultura eta Euskara batzordean aspalditik ikusten zen euskara planaren beharra, eta Udalak orain ez daukanez baliabide pertsonalik horri aurre egiteko, Uemak kudeatzen du plan guztia eta eurak dira pertsona egokienak euskara planak aurrera egin dezan".

Elgetan izango dituen onuren artean Ana Gillegik aipatu ditu udal teknikariek Uematik jasotzen dituzten ikastaroak: "Oso ikastaro zehatzak egiten dituzte, udal bakoitzak dituen beharren araberakoak".

Oro har, herriarendako ere izango ditu onurak Ueman sartzeak. Besteak beste, Udalarekiko harremanak, idatzizkoak zein ahozkoak, euskaraz egin ahal izango dira eta Udalak kaleratzen dituen agiriak eta jakinarazpenak ere herritarrek ulertzeko moduan aterako ditu Udalak. Merkataritza eremua euskalduntzeko ere ahalegina egingo du Uemak herriko merkatariei euskarazko materiala emanez.

Uemako herrietako artistek, gainera, aukera izango dute Kultur Elejirako gidan sartzeko eta Uemako herrietan euren eskaintza ezagutarazteko. Eta Udalak dirulaguntzak eskuratu ahal izango ditu formatu txikiko kultura ekitaldietarako.

**HIZKUNTZA URRAKETAK SALATU**

Elgetan oso ohikoa ez bada ere, oraindik asko dira elgetarren hizkuntza eskubideak errespetatzen ez diren arloak. Hortaz, Berako ekitaldian Uemak eta Hizkuntza Eskubideen Behatokiak hitzarmena sinatu zuten eta konpromisoa hartu herritarrak babesteko. Besteak beste, hizkuntzarekin lotutako salaketak bideratzeko, postontzia ipiniko dute udaletxean eta kexak dauzkaten elgetarrek hara jo beharko dute.

Hori guztia euskararen mesedetan, baina erdaldunen hizkuntza eskubideak zapaldu gabe eta inor baztertu gabe egingo dutela diote Uemakoek. Hortaz, etorriberriak integratzeko ahalegina egingo dute Uemako udalerrietan harrera planen bitartez eta berdintasunean oinarrituta.

**KIROLA**

## Kirol eskaintza zabala uztailerako

Spinning, pilates, yoga, tai txi, arku tiroketa eta trialsin saioak izango dira

**I.A.** > ELGETA

Zapatuan, hilaren 20an, Egokik antolatuta, atletismo ekintzak egingo dituzte kiroldegi inguruan 10:00etatik 11:00etara bitartean.

Umeak ez ezik, helduak ere kirolean ibiltzen dira eta, ekaina amaitzean, ikasturteko Udal Kirol Zerbitzuko eskaintzetan etena izaten da. Urtetik urtera Kirol Zerbitzua hobetzeko asmoz erabiltzaileei idatzi bat helarazi diete zerbitzuen gainean duten iritzia jasotzeko. Hala, idatzi hori bete eta kiroldegiko harreran, tabernan, dagoen postontzira bota behar da.

**UDALEKUAK**

Bestalde, gaur, egubakoitza, amaituko da udaleku irekietan eta Uda Kirol Kanpainan izena emateko epea. Udalekuak uztailaren 6tik 24ra bitartean izango dira. Kirol eskaintza, berriz, honakoa da: helduendako spinning, pilates, yoga eta tai txi saioak; gazte eta helduendako uztailaren 22an arku tiroketa saioa; eta ume eta gazteendako uztailaren 9an eta uztailaren 11n trialsin saioa.

Hurrengo ikasturterako kirol eskaintzarako izena emateko epea irailean zabalduko dute.



Zapatuko erromerian dantzatuko dituzten erritmoak ikasteko saioak izan dira astean Espaloian. IRATI AGIRREAZALDEGI

**JAIAK** > KOADRILEN EGUNA

## Azoka Nagusiko jaiak girotzeko I. Koadrilen Eguna zapatuan

Gixau lehiaketa, umeendako puzgarriak, herri bazkaria eta erromeria gertatu dituzte

**I.A.** > ELGETA

Udalak I. Koadrilen Eguna antolatu du biharko, zapatua. "Koadrilen Eguna antolatu dugu jaietarako motorrak berotzen hasteko. Parte hartzeko gauzak antolatu ditugu, gure jai eredua parte-hartzean oinarritzen da-eta. Koadrilak animatu gura ditugu jai honetan eta jaietan ere parte hartzera; izan ere, jaietako egitarua dena delakoa izanda ere, jaiak norberak egiten ditu", esan digu alkateak.

Ume eta nagusiek ondo pasatzeko aukera izango da goizean barrena.

Nagusiak 10:30ean hasiko dira gixau lehiaketarekin plazan. Koadrilan gertatuko dute okela patatekin, eta saltsarako talde bakoitzak nahi dituen osagaiak erabiliko ditu. Goizean zehar lagun giroan sukaldari onenen pare ibili ondoren, 13:30ak eta 14:00ak bitartean aurkeztu beharko dute gutxienez hamar lagunendako kazuela.

Batzuk ontzi artean dabiltzan bitartean, beste batzuk, umeak, hain zuzen ere, Salbador kalean ibiliko dira 11:00etatik aurrera, eurendako propio ipinitako puzgarrietan.

**DANTZAK IKASTEKO AZKEN SAIOA**

Usainak gosea eragingo die batzuei eta nekeak beste batzuei; hortaz, 14:30erako Udalekoek mahaiak eta aulkiak ipiniko dituzte plazan herri bazkarirako.

Ordu horretan banatuko dituzte gixau lehiaketako sariak. Gixauaren puntua eta zaporea 0tik 10era bitartean neurtuko dituzte eta itxura, 0tik 5erako puntuazioarekin. Irabazleak 100 euro eta garaikurra jasoko ditu; bigarrenak 60 euro; eta hirugarrenak 30 euro.

Bazkalostean Erdizka Lauetan taldearekin erromeria egongo da; eta gaur, egubakoitza, da azken eguna, 19:00etatik 21:00etara bitartean Espaloian erromeriarako dantzak ikasteko.

**HEZKUNTZA**

## Ikasturte amaierako jaialdia gaur Espaloian

**I.A.** > ELGETA

Ikasturte amaiera dela-eta Herri Eskolako ikasleek jaialdia egingo dute gaur, egubakoitza, Espaloian. 14:30ean hasita umeek dantza eta kantu saioak egingo dituzte herritarrendako.

Bestalde, martitzenean, ekainaren 23an, ikasturteko azken eskola eguna izanik, umeek, denek batera, eskolan bazkalduko dute Guraso Elkartekoek gertatutako bazkaria. Ondoren, ikasleendako eta irakasleendako jaia izango da Espaloian.

**SAN JUAN BEZPERA**

Gainera, San Juan bezpera izanik 17:30ean umeendako jolasak izango dira kiroldegi kanpoan. Guraso elkartekoek ogitartekoak banatuko dizkiete umeei; eta gero txitxiburruntzia egingo dute eta baita sua ere.

Aperribay, s.l.
Marmoldegi eta granitoak
Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA



Etorkizunean eraiki ahalko den etxebizitza kopurua mugatu nahi du Udalak. ARRITXU BARRUSO

**HIRIGINTZA** > PLAN OROKORRA

# Aramaiok "herri lasai eta rurala" izaten jarraitzea nahi du Udalak

Plan Orokorraren helburuak onartu ditu Udalak; auzoak landagune moduan mantendu nahi dituzte

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Udal Gobernua ez zegoen ados STOA enpresak urtearen hasieran aurkeztutako Plan Orokorreko aurreproiektuarekin, ez zetorrelako euren helburuekin bat. Hori horrela, Plan Orokorrerako Aholku Kontseilua sortu zuen, eta kontseilu horrek herritarrek hasierako aurreproiektu horri egindako proposamenak jaso ditu. Auzoetako bizilagunekin bilerak egin zituzten Udaleko ordezkariek. Orain, auzoetan jasotako informazioarekin eta Aholku Kontseiluak jasotako proposamenekin, Plan Orokorraren irizpideak eta helburuak zehaztu dituen txostena egin dute. Joan den astean egindako ezohiko osoko bilkuran, udalbatzak aho batez onartu zuen txostena, eta orain, Plan Orokorra lantzen diharduen enpresari helaraziko diote.

Udalak Aramaiok "herri rural eta lasaia" izaten jarraitzea nahi du eta txostenean jasotzen da ezingo direla 100 etxebizitza berri baino gehiago eraiki. Auzoei dagokienez, berriz, erabaki dute ahalik eta gehienak landagune moduan mantendu nahi dituztela, etxebizitza gehiegi eraiki ez daitezen.

Plan Orokorrean jaso behar diren zenbait proiektu ere zehaztu dituzte txostenean: zaharren egoitza, suhiltzaile-etxea, parke berri bat, araztegia edo *district heating* azpiegitura. Azken horrek posible egingo du egurra erreta lortutako energia herri guztian zehar banatzea.

### Proiektu batzuk

- Edateko ur depositua
- Hondakin-uren araztegia
- Errepide berriak
- Parkea
- Suhiltzaile-etxea
- Zaharren egoitza (erresidentzia)
- Eskola eremuaren zabaltzea
- Egurraren bidez energia lortzea
- Gasa sortze azpiegiturak
- Ur-jausiendako azpiegiturak
- Heliportua

> ARAMAIOKO ONDAREA BERRESKURATZEKO TALDEA

## Herritarrak animatu nahi dituzte lehenengo auzolanean laguntzera bihar, 09:00etan, plazan

Aramaioko Andramari ermita konpontzen hasiko dira AOBTkoak, herriko ondarea berreskuratzeko daukaten lehen asmoa daeta. Joan den neguan zuhaitz bat erori zen ermitako eskaileretara eta oso txarto dago; hori horrela, euren lehen ekintza eskailera horiek konpontzea izango da. Gainera, lau pertsona inguruko taldetxo batek Maskañoko iturria ere konponduko du egun berean. 09:00etan egin dute hitzordua, herriko plazan. AOBTko kideek azaldu dute komeni dela norberak bere aitzurra eroatea.

> ZUIAKO KOADRILA

## Zuiako Koadrilako gazteen Euskararen Eguna ospatuko dute datorren barikuan, hilaren 26an

Murgian ospatuko dute aurten Zuiako Koadrilako gazteen Euskararen Eguna; ekainaren 26an, barikuan, izango da hori. 12 eta 20 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago ekitaldia. Izena emateko azkeneko eguna ekainaren 22a izango da, astelehena. Interesa dutenek Aramaioko liburutegian eman beharko dute izena. Murgiarako autobusa Aramaioko ikastolatik irtengo da egubakoitzean, 16:30ean, eta doakoa izango da. Egitarau zabala antolatu dute: wii, lehiaketa, rokodromoa, ohe elastikoa, 7 legoako botak...

> KULTURA

## Donostiako Eskola-Gurutziaga abesbatzak kontzertua eskainiko du bihar, zapatua

Bixente Goikoetxea abesbatzak antolatuta, Aieteko Eskola-Gurutziaga abesbatzak kontzertua eskainiko du bihar San Martingo elizan, 20:30ean. 40 ahots baino gehiago batzen ditu Juan Jose Oconek zuzentzen duen abesbatza donostiarrak eta hainbat sari irabazi dituzte: 1998an Autolgo musika-abesbatzen jaialdian bigarren saria lortu zuten. Aramaion honako abestiak eskainiko dituzte, besteak beste: *Gure lagunak arteko abestia, La Bourrée* eta *Cantares*. Jon Alberdik jardungo du piano-jotzaile.

> SANTIKURTZ ERMITA

## Bihar hasiko dituzte Santikurtz konpontzeko lanak, eta herritarren laguntza eskatu dute

Aixola auzoko Santikurtz ermita auzolanean konpontzeko deialdia egin dute. Teilatua osorik konpontzea da asmoa eta barne eta kanpoko hormak apaindu egin nahi dituzte. Auzolanak hiru aste bukaeratan egitea aurreikusten dute eta oraingoa izango da lehenengoa. 08:00etan egin dute hitzordua goiko tabernetan. Antolatzaileek herritarrak animatu nahi dituzte auzolanean parte hartzera; egun-pasa polita izango dela azaldu dute.

**JAIAK** > SAN JUANAK

# Azkoaga auzoan festa giroa, bihartik

Sanjuanak ospatuko dituzte Azkoagan, zapatuan hasita, eta egun handia martitzenean izango da

**A.B.** > ARAMAIO

Altzari zaharrak, kartoiak eta egur zatiak gordetzen hasteko garaia da; gain-gainean dugu San Juan gaua eta Azkoagan ere San Juan sua egiteko guztia prest daukate. Martitzenean izango da hori, baina zapatuan hasita jai giroan murgilduta ibiliko dira Azkoaga auzoko bizilagunak.

Bihar iluntzean hasiko dituzte jaiak eta herriko musikariek kontzertua eskainiko dute elizan. Festarekin jarraitzeko, ondoren, herri afaria egingo dute eta goizeko ordu txikietara arte dantzan jardungo dute erromeriarekin.

Martitzenean egun handia izango da eta egun osoan izango dira ekintzak: lore-batzea, kanpai errepika, paperezko hegazkin jaurtiketa eta, nola ez, iluntzean San Juan sua egingo dute.

Eguaztenean ere ez da atsedenerako denborarik izango; besteak beste, kalejira, hamaiketakoa eta puzgarriak egongo dira.



Joan den urteko San Juan jaietako argazkia, Azkoaga auzoan. J.A. AXPE.

### Sanjuanetako egitaraua

**Ekainak 20, zapatua**
- **20:00** Herriko musika joliek
- **21:30** Afaixe eta erromerixie

**Ekainak 23, martitzena**
- **17:00** Lora-batzia
- **18:00** Txopo tenteixe tentetu
- **19:00** Kanpai errepika eta txingarretan erretako gutiziak
- **19:30** Papelezko hegazkin jaurtiketa eta 1. OPEN irekia
- **20:30** San Juan suek Santagedatxon eta kalejira

**Ekainak 24, eguaztena**
- **12:00** Mezie eta sorten bedeinkapena
- **12:45** Txitxerrie, txorixue eta errioxako saldak
- **18:00** Puzgarriak
- **20:00** Mus eta Briska txapelketa

**Ekainak 25, eguena**
- **12:00** Hildakuen aldeko meza

## argazki zaharra



### Emakume koadrila

Orain legez, lehen ere koadrilan elkartzen ziren gazteak. Hemen, emakume koadrila iturriaren aurrean agertzen da. Goian: Mari Carmen Aranburuzabala, Mariasun Beitia, Maria Rosario Arana, ezezaguna, Maria Blanca Arana. Behean: Milagros Beitia, Marcelina Aranburuzabala, Arrate Arana eta ezezaguna.

**Argazkia:** Gatzagako Udala.
**Testua:** GOIENKARIA.
**Urtea:** 1970.

**OSPAKIZUNA** > SAN JUAN BEZPERA

# Zuriz jantzita agertzeko dei egin du Udalak San Juan bezpera ospatzeko

Jolasak egingo ditu Gurelek, eta sardinak eta saiheskia jango dituzte herritarrek sua piztu aurretik

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Martitzenean, ekainak 23, San Juan bezpera ospatuko dute Gatzagan, baita udako solstizioari ongietorria egin ere. Urteroko egitaraua gertatu du Kultura Sailak, baina aurten aparteko deia egin du: zuriz jantzita agertzea. Ainara Zubillaga Kultura zinegotziak azaldu digu horren zergatia: "Jakin dugu ohitura zela zuriz jantzita joatea egun horretan eta, gainera, lau orriko hirustaren bila ibiltzea. Hirusta (trebola) hori urte guztian gorde eta hurrengo urteko San Juan sutara bota behar da norberaren desio edo nahiekin batera".



Gureleko kideak jolasak antolatzen iturriaren inguruan. GOIENKARIA

**JOLASAK, JATEKOA ETA SUA**

San Juan bezperako ekitaldiak Gurel elkarteak hasiko ditu eta ilunkara girotzeko eskulanen bat –iaz erratzak egin zituzten– eta jolasak egingo dituzte. Urtero legez, sardinak eta saiheskiak erreko dituzte gero, herritar guztiendako (21:00) plaza inguruan, eta bukatutakoan San Juan sua piztuko dute (22:30). Ez da izango Gatzagako su bakarra, baserri inguruetan ere egingo dute-eta bakarren batzuek.



**PILOTA** > HERRI ARTEKO TXAPELDUNEKIN

# Etxaniz: "41 urte pasatu dira, baina orduko finala domekakoaren antzerakoa izan zen"

Lehena eta oraina batu ditu GOIENKARIAK, 1968ko eta 2009ko txapeldun bergararrak

Klubetako ordezkari eta pilotazaleek bat egiten dute: "Lan handia dago atzean"




Domekako txapeldun Ander Mugurutza eta Eneko Mugurutza, 1968an Bergarako lehen txapela irabazi zuen pilotarietako batekin, Migel Etxanizekin. XABIER URTZELAI

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Argazkiko txapel horiek berriro ere bergarar batzuen buruan jantzita ikusteko 41 urte igaro behar izan dira. Eta, neurri handian, horrek erakusten du herri artekoa irabazteak zer esan gura duen. Hain zuzen ere, Bergarako lehena eta oraina elkartu gura izan ditugu, senior mailako mugurutzatarrak eta 1968ko txapeldunetako bat, Migel Etxaniz –harekin batera txapela jantzi zuten Gonzalezek, Arazkonagak, Altunak, Gallastegik eta Garitanok, beheko erretratuan–.

**GAUZAK EZ DIRELA ALDATU...**

Etxanizek onartu du 1968ko finalak eta domekakoak antzekotasun handiak izan zituztela: "Bietan irabazi genuelako lehenengo partidua, bigarrena galdu eta hirugarrenean erabaki zelako txapela nork irabaziko zuen". Eta, nahiz eta garaipen horien artean urte asko pasatu diren, ospakizunak ere antzerakoak izan ziren: "Guk Azkoitian bertan egin genuen bazkaria; han bazen Illarra izeneko jatetxe bat, eta diskoteka moduko bat ere bazuten. Handik Bergarara etorri ginen, eta hemen ere udaletxean harrera egin ziguten, lunch eta guzti. Hori bai, ez dut uste domekan besteko jendetza zegoenik". Izan ere, profesional gutxik jasotzen duten harrera egin zieten pilotari bergararrei domekan: "Ez genuen horrelakorik espero. Bagenekien galdu ala irabazi udaletxean harrera egingo zigutela, eta txapela irabazita plazan jende apur bat egongo zela, baina ez horrenbeste!", adierazi zuten Muguruza lehengusuek.



Urretxuren kontrako garaipena, Azkoitian, 1968an. BKE

**2007AN, ETA ORAIN 2009AN**

Arrasatek 2007an egin zuen lorpena errepikatu zuen Bergarak domekan, eta horrek esan gura du Debagoieneko pilota taldeetan lana ondo egiten dela, ondo eta asko.

Hori bai, Antzuolako Olalde pilota elkarteko ordezkari Felix Agirrek gogorarazi du herri txikiendako oso zaila dela horrelako txapelketa bat irabaztea. Hasteko, parte hartu ahal izatea ere ez da erraza: "Urte askotako lanaren emaitza da hori, eta kategoria bakoitzean maila oneko pilotariak behar dira. Herri txikietan hor dugu arazoa, ez ditugula kategoria guztietarako pilotariak. Izan ere, gaur egun geroago eta gazte gutxiago ibiltzen da pilotalekuan".

**"LANA DAGO ATZEAN"**

Felix Agirre (Antzuola) Mauri Zubillaga (Arrasate), Joseba Iñurrategi (Eskoriatza), Jose Luis Barrena (Oñati), Luis Mari Gutierrez (Bergara), Reyes Azkoitia bera... Debagoieneko pilotaren alde lan eta lan dabiltzan sei adibide dira horiek, Bergarako taldearen lorpena baloratzeko aproposak. Eta gehienek azpimarratu dute gauza bera, ibarreko klubek oso harreman estua daukatela: "Normalean federazioak



Zorionak, Bergara!

iñarra masajeak
AZKARATE aroztegia
Avenida kafetegia
Agorrosin taberna
OGIZUN koop. elk. okindegia
BILTOKI
BILTOKI ASPIZA S.L.

hiriburu ondoko klubak hartzen ditu kontuan, eta horrelako txapelketa bat Gipuzkoako bazterreko klub batek irabazten duenean izugarri pozten gara", adierazi du Mauri Zubillagak. 2007an txapela irabazita, Zubillagak ondo daki –eta gainontzekoek ere gauza bera errepikatu dute– Reyes Azkoitiak, *Guti*-k eta konpainiak zelako lana egin duten: "Urte asko egin behar dira pilotalekuan *matxakatzen,* hor ez dago besterik".

**"BADUT ARANTZA HORI"**

Aspeko kirol zuzendari Jokin Etxanizengara ere jo dugu, azken urteotan Zezeagarekin batera profesionaletara iritsi den bergararra. Baina aitak irabazi zuen txapela, ezin semeak irabazi: "Eta badut arantza hori, txikitatik gertutik jarraitu izan dudalako txapelketa hori, aitak jokatzen zueneko sasoitik. Ze giro egoten zen pilotarien artean, partidu osteko afariak... Gu herri arteko txapelketako finalerdietara iritsi ginen, 1994an izan zela uste dut, baina ez genuen hortik aurrera egin. Eta bai, arantza hori dut barruan. Horregatik, asko poztu nintzen domekan Bergarak txapela irabazi zuenean".

Txapeldun izanda ere, pilotariek aste barruan normal jarraitu dute lanean. Irizar eta Resuzta, esaterako, Oñatin izan ziren eguaztenean, plazako txapelketan. Eta bihar, Debarro txapelketako finaletan izango dira, Arrasatekoekin batera, Eibarren.

IBARREKO PILOTA ZALEEN ETA KLUBETAKO ORDEZKARIEN IRITZIA



**Jose Ramon Madinabeitia**

Pilotari ohia

Oso ondo jokatuta irabazi zuten finala, han ez zen bromarik. Urte askotako lanaren ondorioa da. Atzetik joan ziren, baina ez ziren urduri jarri. Dena dela, Ander Mugurutza azpimarratuko nuke: aurrelaria izanda, atzean bikain.



**Joseba Lezeta**

Kazetaria

Senior mailan Ander Mugurutzak egin duen txapelketa erabakigarria izan da. Finalera iristeko atzelari oso onen kontra jokatu du: Baez, Epelde, Gorrotxategi... eta sekulako maila erakutsi du berea ez den postuan.



**Mauri Zubillaga**

Arrasateko taldeko ordezkaria

Izugarri poztu nintzen txapela Bergararendako zela ikusita. Aste barruan egon nintzen Reyesekin, eta esan nion banuela txutxumutxu bat, Gorrotxategi ez zegoela ondo. Baina Reyesek ordurako bazekien hori.



**Joseba Iñurrategi**

Eskoriatzako taldeko ordezkaria

Herri arteko txapelketa irabazi izanak erakusten du Bergarako taldean oso ondo egiten dutela lan. Izugarri poztu ginen, Debagoieneko taldeon artean harreman oso estua dugulako. Berehala deitu nien zoriontzeko.



**Luis Mari Gutierrez**

Bergarako taldeko delegatua

Txapelketa hau irabazi izana oso garrantzitsua izan da guretako, urtetako lanaren fruituak batzen gabiltzalako. Urtebete pasatxo dela proiektu berri bati ekin genion, Udalaren babesa izan genuen, eta badatoz emaitzak.



**Felix Agirre**

Antzuolako taldeko ordezkaria

Pozten naiz, eta Reyes Azkoitiarengatik batez ere, urte askoan dabilelako batek daki zenbat pilotarirekin lanean. Herri txikiagoetan zaila da txapelketan parte hartzea, ez ditugulako pilotariak hiru kategorietan.



**Jokin Etxaniz**

Aspeko kirol zuzendaria

Bergarak lortu duena egiteko lan handia egin behar da. Eta uste dut umeak pilotalekura eramaten ditugun gurasook eskertu egin behar dugula pilotako taldean dabiltzanek egiten duten lana. Eskertu eta baloratu.



**Jose Luis Barrena**

Oñatiko taldeko ordezkaria

Hor lan handia dago, harrobiko lana. Eta taldean oso giro ona egon behar du, derrigor. Dena dela, pilotari gazteendako tentsio larregiko txapelketa da. Esperientziaz esaten dut hori, nik lau final jokatu eta laurak galdu ditudalako.






Markel Blanco, Gipuzkoako beste atleta batzuekin batera, iazko Challengeko lasterketa hasteko gertu. X.U.

**ATLETISMOA** > GIPUZKOAKO CHALLENGEA

# Gipuzkoako atleta onenak Mojategin

## Bihar, zapatua, egingo dute Mojategin (17:00) Gipuzkoako challengeko jardunaldia

**X.U.** > ARRASATE

Gipuzkoako atleta onenak batuko dira bihar, zapatua, Mojategin. Joan den astean Tolosan egindako jardunaldiaren ondoren Arrasatek hartuko du errelebua. Hala, atletismoaren hainbat modalitatetan lehiatuko dira ehunka atleta, tartean, Debagoieneko asko. Besteak beste, 200 eta 400 metroko lasterketak, pisu jaurtiketak, luzera saltoa, altuera saltoak eta pertika saltoak egingo dituzte.

**HUTSUNEAK IZANGO DIRA**

Arrasateko atletei dagokienez, kontutan hartzeko moduko hutsuneak izango dira, Lore Mar, Maialen Axpe eta Eukene Dorronsoro Motrilen (Granada) izango direlako, Espainiako txapelketan parte hartzen.

Bestalde, kadete mailako Malen Azua Zaragozan izan zen joan den astean. 3,15 metroko saltoa eginda –marka pertsonala– laugarren sailkatu zen.

## Buruz buruko txapeldun Martinez de Irujo Uarkapen etzi

San Juan jaien barruan pilota jaialdi erakargarria antolatu dute domekarako Arrasaten (Uarkape, 17:00). Eta duda barik, buruz buruko txapeldun izan berri den Juan Martinez de Irujoren partehartzeak egiten du jaialdia horren erakargarri.

Lehenengo partiduan Del Reyk eta Galarza VI.ak Berasaluze IX.aren eta Urberuagaren kontra jokatuko dute. Ondoren etorriko da estelarra: Irujok Beroiz izango du bikotekide, eta Gonzalez eta Pascual kontrario.




GOIENKARIA

> PILOTA

### Debarroko txapelketako finaletan Arrasate eta Bergara aurrez aurre

Debarroko txapelketako finalak jokatuko dituzte bihar, zapatua, Eibarko Astelehena pilotalekuan (17:00). Senior mailan Elgetako eta Elgoibarko pilotariak izango dira aurrez aurre. Kadete eta gazte mailan, berriz, Arrasateko eta Bergarako pilotariek neurtuko dituzte indarrak. Gallastegi eta Rezusta Etxagibel eta Arabaolazaren kontra, eta Rezusta eta Irizar Bolinagaren eta Agirregabiriaren kontra.

> XAKEA

### Juan Manuel Ruiz Euskadiko txapelduna infantil kategorian

Arrasate-San Andres Xake Elkarteko jokalariak aurten ez die kontrarioei aukerarik eman. Gipuzkoako txapelketan aise nagusitu zen, torneoko sei partidak irabazita. Eta joan zen asteburuan berdina egin zuen Euskadiko txapelketan: sei partida jokatu zituen, eta seiak irabazi. Juan Manuel Ruiz eta Asier Etxagibel –hirugarrena Euskadikoan– Espainiako txapelketan izango dira uztailean.

> MENDIKO BIZIKLETA

### Lizarralde kirolak taldeko kadeteak aurreko postuetan

Lizarralde Kirolak taldeko kadete mailakoak denboraldi biribila egiten dabiltza. Talde sendoa dute, baina batez ere Iker Eskibel eta Alex Aranburu dabiltza nabarmentzen. Tolosan, esaterako, bigarrena izan zen Eskibel eta hirugarrena Aranburu. Eta, Bastidako lasterketan Eskibel izan zen azkarrena, eta bigarrena Aranburu. Hurrengo hitzordua Gueñesen izango dute, ekainaren 27an.

**ZIKLISMOA** > QUEBRANTAHUESOS 2009

# Debagoieneko 169 ziklista bihar Quebrantahuesos-en

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Iritsi da zikloturista askorendako urteko hitzordua, bihar 07:30ean Sabiñanigon hasiko duten Quebrantahuesos proba. 10.000 lagun izango dira irteera puntuan, 205 kilometroko ibilbidea egiteko gertu, eta horietako 1.466 txirrindulari gipuzkoarrak izango dira –debagoienekoak 169, iaz baino bederatzi gehiago–. Behean dator aurten parte hartuko dutenen zerrenda; *Asteleheneko Goienkaria*-n izango dituzue emaitzak.

## Quebrantan egongo direnen zerrenda

| | | |
|---|---|---|
| Arana Arteaga, Benjamin | 1167 | Antzuola |
| Aranguren Fernandez, Jon | 5230 | Antzuola |
| Arin Fernandez, Lander | 4833 | Antzuola |
| Asensio Garitagoitia, Gaizka | 6357 | Antzuola |
| Baleztena Zubikarai, Karlos | 4489 | Antzuola |
| Chaparro Izagirre, Iker | 1200 | Antzuola |
| Garmendia Zabalo, Imanol | 982 | Antzuola |
| Gurrutxaga Zubimendi, Iñaki | 185 | Antzuola |
| Mendia Bilbao, Ibai | 5494 | Antzuola |
| Taboada Ruiz, Claudio | 7620 | Antzuola |
| Arana Arexolaleiba, Aitor | 396 | Aramaio |
| Arriolabengoa Kalparsoro, Beñat | 2831 | Aramaio |
| Arriolabengoa Kalparsoro, Mikel | 5626 | Aramaio |
| Azkarate Beitia, Cesar | 1965 | Aramaio |
| Altuna Arkauz, Jon | 5521 | Aretx. |
| Amiano Salterain, Urtzi | 5089 | Aretx. |
| Atxa Azpiazu, Jon | 5630 | Aretx. |
| Biteri Zubia, Ibon | 8247 | Aretx. |
| Bote Mateos, Mikel | 6584 | Aretx. |
| Elkorobarrutia Arriola, Asier | 587 | Aretx. |
| Eraña Elkoro, Ibon | 3319 | Aretx. |
| Garai Anduaga, Eneko | 6512 | Aretx. |
| Garate Magunacelaya, Isidro | 4765 | Aretx. |
| Guenetxea Sasiain, Asier | 2690 | Aretx. |
| Igartua Eskibel, Miren | 6764 | Aretx. |
| Irusta Aiertza, Alfredo | 3823 | Aretx. |
| Iturbe Fernadez, Gorka | 5938 | Aretx. |
| Kortabarria Heriz, Haritz | 1703 | Aretx. |
| Lezeta Gartziandia, Xabier | 5945 | Aretx. |
| Rosado Carrasco, Jesus M. | 6866 | Aretx. |
| Urkia Zulaika, Jon | 380 | Aretx. |
| Abarrategi, Abel | 4432 | Arrasate |
| Arana Lasaga, Egoitz | 5254 | Arrasate |
| Arantzabal Ojanguren, Bernardo | 7661 | Arrasate |
| Azkarate Morras, Iñigo | 4444 | Arrasate |
| Berasaluze Velez De Men. Urtzi | 3086 | Arrasate |
| Bidaburu Aranzabal, Asier | 5199 | Arrasate |
| Castillo Santamarina, Javier | 2651 | Arrasate |
| Corral Ezkurra, Iñaki | 4668 | Arrasate |
| Dorronsoro Calleja, Jon | 3887 | Arrasate |
| Galan Gomez, Amalio | 5241 | Arrasate |
| Gallastegi Goikolea, German | 1946 | Arrasate |
| Gallastegi Uribe, Xabier | 3405 | Arrasate |
| Gonzalez Ozaeta, Bixente | 3233 | Arrasate |
| Gonzalez Romero, Mikel | 6026 | Arrasate |
| Hierro Garcia, Juanjo | 1414 | Arrasate |
| Ibabe Ruiz De Azua, Unai | 3197 | Arrasate |
| Jauregui Bidaburu, Iñaki | 7522 | Arrasate |
| Kortabarria Mayor, Jose Mª | 3364 | Arrasate |
| Landa Azurmendi, Jose Miguel | 4039 | Arrasate |
| Laskurain Bidaburu, Aitor | 7351 | Arrasate |
| Lezea Iriarte, Mikel | 6431 | Arrasate |
| Loiti Loiti, Oskar | 1666 | Arrasate |
| Nin Laskurain, Gorka | 4929 | Arrasate |
| Remon Sanchez, Manu | 5341 | Arrasate |
| Solis Ezkurra, Imanol | 3694 | Arrasate |
| Ugalde Ferrero, Argoitz | 4045 | Arrasate |
| Urtzelai Atxa, Xabier | 6039 | Arrasate |
| Valor Caballero, Nicanor | 1520 | Arrasate |
| Zuazubiskar Isasti, Aimar | 6566 | Arrasate |
| Zubizarreta Iñarra, Mikel | 3977 | Arrasate |
| Agirrezabal San Miguel, Igor | 928 | Bergara |
| Alberdi Unzurrunzaga, Bigen | 6111 | Bergara |
| Almorza Aranguren, Mikel | 2286 | Bergara |
| Aranburu Murgizu, Jose Inazio | 5379 | Bergara |
| Aranguren Irazola, Gotzon | 7891 | Bergara |
| Aranguren, Aritz | 2874 | Bergara |
| Arotzena Bergaretxe, Jose Maria | 2242 | Bergara |
| Arregi Beraza, Garikoitz | 753 | Bergara |
| Arregi Biziola, Manu | 1472 | Bergara |
| Arrieta Arkauz, Jon | 2588 | Bergara |
| Arrieta Etxeberria, Gorka | 884 | Bergara |
| Casanellas Ameskoa, Javier | 5103 | Bergara |
| Eguren Gabiria, Beñat | 3495 | Bergara |
| Eguren Laskurain, Xabier | 2749 | Bergara |
| Elkoro Arana, Mikel | 6302 | Bergara |
| Gallastegi Luarizaristi, I. Ander | 3224 | Bergara |
| Goitia Zelaia, Josu | 1711 | Bergara |
| Gonzalez Urteaga, Ana | 6260 | Bergara |
| Larrañaga Gabilondo, Xabier | 5735 | Bergara |
| Larrañaga Larrañaga, Gorka | 6263 | Bergara |
| Larrañaga Recio, Lander | 2129 | Bergara |
| Leston Jauregi, Iker | 410 | Bergara |
| Martin Manzanal, Jesus | 5073 | Bergara |
| Martin Manzanal, Jose Manuel | 5081 | Bergara |
| Muxika Agirre, Ibon | 649 | Bergara |
| Otaegi Martin, Josu | 3333 | Bergara |
| Pascual Valdivieso, Jose Luis | 4422 | Bergara |
| Pineda De La Cruz, Patxi | 2213 | Bergara |
| Sanz Segovia, Jesus | 2735 | Bergara |
| Taboada Ruiz, Jose Luis | 400 | Bergara |
| Teran Salgado, Oscar | 3670 | Bergara |
| Unamuno Eraña, Igor | 383 | Bergara |
| Unamuno Lekuona, Jon | 3596 | Bergara |
| Verguizas Nieto, Antonio | 2409 | Bergara |
| Zangitu Gil, Xabier | 1268 | Bergara |
| Aranguren Arozena, Xabier | 136 | Elgeta |
| Arantzeta Agirre, Eñaut | 1540 | Elgeta |
| Arrazola Arabaolaza, Garikoitz | 2308 | Elgeta |
| Askasibar Zubizarreta, Oskar | 42 | Elgeta |
| Irazabal Elorriaga, Iñigo | 6216 | Elgeta |
| Agiriano Zubizarrreta, Aitor | 7990 | Eskoriatza |
| Castañeda Sanchez, Alfonso | 7310 | Eskoriatza |
| Errarte Mugika, Mikel | 2109 | Eskoriatza |
| Errasti Iriarte, Joseba | 7587 | Eskoriatza |
| Fachal Moral, Javier | 5731 | Eskoriatza |
| Gabilondo Urtaza, Xabier | 603 | Eskoriatza |
| Galarraga Beitia, Iker | 5377 | Eskoriatza |
| Gallastegi Goikolea, Emete | 363 | Eskoriatza |
| Gartzia Martin, David | 3509 | Eskoriatza |
| Kortazar Altuna, Gotzon | 7571 | Eskoriatza |
| Perez De Eulate Errarte, Josu | 5621 | Eskoriatza |
| Salgado Mata, Jon | 5360 | Eskoriatza |
| Uribe Beristain, Goio | 1403 | Eskoriatza |
| Zubizarreta Elizburu, Gaizka | 7835 | Eskoriatza |
| Agiriano Bengoa, Jesus Mari | 1130 | Oñati |
| Aizpeurrutia Altzelai, Jon | 5693 | Oñati |
| Albizu Uriarte, Jon | 742 | Oñati |
| Aldekoa Beitia, Jabier | 1182 | Oñati |
| Anduaga Alberdi, Roberto | 1732 | Oñati |
| Arregi Urtzelai, Aitzol | 559 | Oñati |
| Axpe Ezpeleta, Patxi | 8158 | Oñati |
| Biain Regueiro, Gorka | 7901 | Oñati |
| Campo Ibarrondo, Ivan | 7524 | Oñati |
| Chohan Madinabeitia, Adrian | 6846 | Oñati |
| Egaña Herran, Asier | 3277 | Oñati |
| Elortza Zubia, Unai | 1536 | Oñati |
| Erostarbe Arkauz, Jose Antonio | 1481 | Oñati |
| Errotalde Corta, Xabier | 4762 | Oñati |
| Etxeberriarteun Uribetxe., J.L. | 7030 | Oñati |
| Gartzia Moreno, Juan Carlos | 7299 | Oñati |
| Gartzia Urtaza, Andoni | 6637 | Oñati |
| Gerrikagoitia Arrien, Jon Kepa | 5880 | Oñati |
| Gomez Campos, Igor | 5173 | Oñati |
| Guridi Gezalaga, Juan Luis | 2778 | Oñati |
| Guridi Urtzelai, Xabier | 418 | Oñati |
| Igartua Urzelai, Iñaki | 296 | Oñati |
| Iriondo Martinez De Zuazo, Julen | 5524 | Oñati |
| Iturbe Agirrebalzategi, Andoni | 4948 | Oñati |
| Iturbe Murgiondo, Agotz | 6918 | Oñati |
| Jausoro Murgiondo, Iker | 6060 | Oñati |
| Kortabarria Paredes, Igor | 90 | Oñati |
| Larrea Igartua, Ana | 4454 | Oñati |
| Larrea Igartua, Iñigo | 1479 | Oñati |
| Lasagabaster Madinabeitia, J. | 2826 | Oñati |
| Laskurain Markuleta, Arkaitz | 749 | Oñati |
| Lertxundi Ugartemendia, Jose M. | 1453 | Oñati |
| Lizarralde Lizarralde, Gorka | 1158 | Oñati |
| Luis Urtzelai, Xabier | 5361 | Oñati |
| Madina Agurre, Iñigo | 6426 | Oñati |
| Martin Peralta, Ainhoa | 8044 | Oñati |
| Martin Peralta, Mikel | 5964 | Oñati |
| Molina Diz, Juan Cecilio | 1687 | Oñati |
| Murgiondo Belastegi, Igor | 4434 | Oñati |
| Negreira Cobas, Jose Antonio | 5142 | Oñati |
| Otxoa Aizpurua Calvo, Agustin | 2290 | Oñati |
| Perez Diez, Cayetano | 3210 | Oñati |
| Perez Serrano, Fco. Javier | 7315 | Oñati |
| Robles Zugadi, Iker | 4986 | Oñati |
| Rojo Diez, Luis | 390 | Oñati |
| Salazar Gomez, Gerardo | 4501 | Oñati |
| Sierra Gartzia, Jose Antonio | 1430 | Oñati |
| Txintxurreta Igartua, Roberto | 7890 | Oñati |
| Urtaza Agirrezabal, Aitor | 743 | Oñati |
| Urtaza Gambra, Juan Cruz | 2154 | Oñati |
| Urteaga Bikuña, Iñaki | 8096 | Oñati |
| Urtzelai Aguirrebaltzategi, Asier | 1571 | Oñati |
| Villar Umerez, Jon | 7617 | Oñati |
| Zubizarreta Urbizu, Javier | 3394 | Oñati |

ITURRIA: WWW.QUEBRANTAHUESOS.COM



> **MUSIKA**
Ekon taldea jaialdi handienetan izango da asteburuan **> 38**



> **SANJUANAK**
Jaiak izango dira Arrasaten, oraingo aste bukaeran hasita **> 39**



> **AITOR SAN MIGEL**
Ikaslea da Aitor San Migel bergararra. Telekomunikazio Ingeniaritza ikasten dabil eta Emon taldean dihardu, gitarra jotzen **> 42**



Elkar-Hezi ikastetxeko 33 ikaslek hartu dute parte proiektuan, Irudian, Jauregi baserrian filmatzen.



Imanol Biain eta Asun Artzuaga aktore lanetan eta Gaizka Irizar eta Ibai Garai ikasleak.



Aitor Perosterena zuzendaria eta Gaizka Irizar, Oñatiko kanposantuan filmatzen.



Jagoba Txintxurreta eta Dorleta Murguzur eta Maitane Igartua ama-alabak Arantzazun. ARGAZKIAK: LEIRE BARBERO

# Zinema eta literatura uztartuz, filma egin dute Oñatin

Elkar-Hezi ikastetxeko DBHko 4. mailako ikasleek eta haien gurasoek egindako filma gaur Oñatiko kultura etxean

Irakurzaletasuna bultzatzeko 'Una experiencia lectora' filmatu dute

**EDU MENDIBIL** > OÑATI

Film estreinaldia izango dute gaur Oñatin. Baina Hollywoodekoak beharrean, Oñatikoak bertakoak izango dira izarrak, *Una experiencia lectora* izenburuko lana etxean filmatutako lana da-eta.

Elkar-Hezi ikastetxeko DBHko 4. mailako ikasleek eta haien gurasoek hartu dute parte. Irakurzaletasuna bultzatze aldera, gaztelaniako mintegian sortutako proiektua izan da. Lehenbizi, ikasleek euren gustuko liburu bat aukeratu eta, ondoren, beraien gurasoei eskutitz bat idatzi behar izan zieten, liburuak sortutako hausnarketak kontatuz. Gurasoek, aldiz, idatziz erantzun behar zieten seme-alabei. Martin Jauregialtzo irakaslearen hitzetan, "gurasoen eta ikasleen arteko harremana sustatzea zen helburuetako bat eta gaur egun hain ohikoa ez den idatzizko metodoa erabiltzea pentsatu genuen. Sorpresa bat baino gehiago hartu dute gurasoek eta seme-alabek, eta esperientzia guztiz positiboa izan da". Nagusiki gazte literaturako lanak erabilita, familian bizi izandako esperientziak gogora ekarri dituzte ikasleek, irakurritako lanak egoera pertsonalekin lotuz.

Bigarren urratsa esperientzia horren filmaketa izan da. Oñatiko toki esanguratsuak aukeratu dituzte filmaketarako (Arrikrutz, unibertsitatea, Arantzazu...) eta 12 ikasle eta bost guraso jarri dira kamera aurrean. Aitor Perosterenak jardun du zuzendari, Ruben Idigorasen laguntzaz, eta sei egunetan filmatu dute. Martin Jauregialtzok azpimarratzen duenez, "hizkuntza literarioa eta zinematografikoa batu nahi genituen eta elkargunea topatu. Asko ikasi eta gozatu dute ikasleek"

**AURKEZPENA, GAUR**

Emaitza, 54 minutuko DVDa, gaur Oñatiko kultura etxean ikusgai izango da, 19:00etan. Gonbidapen gehienak banatuta daude eta gutxi batzuk banatuko dituzte leihatilan.

## Eguraldiaren, zaraten eta ordutegiaren menpe

Kanpoko grabaketak egitea, eguraldiaren, zaraten edo ordutegiaren menpe ibili behar izatea izan da zailtasun handienetakoa. Esaterako, lehenbiziko egunean, zazpi orduz jardun zuten eta hortik 6 bat minutu besterik ez dute erabili. Hala ere, ikasleen inplikazioa ikusita, errepikatzeko moduko esperientzia izan dela diote. Filmaketa gaztelaniaz egin dute, Martin Jauregialtzo eta Leire Barbero gaztelaniazko irakasleekin. "Datorren urtean baliteke bikoizketa tailerra egitea euskaraz, eta orduan iritsiko da filma euskarara itzultzeko unea", dio Jauregialtzok. Eskerrik beroenak eman nahi dizkiete laguntza eman dieten guztiei.

**MUSIKA** > JAIALDIAK

# Ekon taldea, jaialdi erraldoietan buru-belarri

Ekon taldeak bi kontzertu izango ditu asteburuan eta talde horretako abeslari Juan lau alditan igoko da agertokira hainbat talderekin

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

Arrasateko Ekon taldeak bi kontzertu garrantzitsu izango ditu asteburuan; egunotan Euskal Herrian izango diren bi jaialdi handienetan arituko dira: Kobetasoniken eta Hatortxu Rocken.

Gaur, egubakoitza, 00:30ean igoko dira Lakuntzako (Hatortxu Rock) jaialdiko agertoki handira. Gaurkoa da, gainera, Ekon taldea bueltatu izanaren arrazoia: Hatortxuko eskaerak bultzatu zituen taldea berregin eta bira antolatzera.

**METAL HITZORDUA**

Horrez gain, bihar, zapatua, Bilboko Kobetamendin ospatuko den Kobetasonik jaian ere egongo da Ekon, 14:20ean. Euskal Herriko hiru taldeetatik bat izango da hura.

Ekon taldeko abeslari Juanek jakinarazi digu asteburu hau "zoratzekoa" izango dela, baina ilusio handia daukatela: "Bi jaialdiek daukate esku hartzeko arrazoi garrantzitsuak; Hatortxuk, helburuarekin bat egiten dugulako eta historikoa izango delako; eta Kobetasonik, gaztetxotatik gustuko izan ditudan taldeak ere izango direlako".

Juanek aitortu digu Hatebreed eta Mötley Crue taldeak ikusteko irrikan dagoela.



Arrasateko Ekon taldearen itzulerako formazioa. GOIENKARIA

DES-KONTROL, EKON, GOVERNORS ETA RIP

## Arrasateko lau taldek esku hartuko dute Hatortxu Rock jaialdian

Ekoneko abeslari Juanek lan handia izango du asteburuan. Ekonekin dituen konpromisoez gain, Juanek berak gidatzen duen Governors zapatuan Hatortxu Rock jaialdian izango da (talde hori izan da aurtengo Hatortxuren kantua idatzi duena). Eta hori gutxi balitz, Juanek bi kantu abestuko ditu RIP taldearekin egubakoitzean Lakuntzan.

"Hatortxun aritzea oso berezia izango da; kantua idaztea proposatu zigutenetik buru-belarri egon garelako, Ekon-en itzulera kontzertu garrantzitsua hori izango delako eta RIP taldearekin bi kantu abestea niretako ohorea delako. Gogorra izango da, baina merezi izango du, ziur", azaldu zigun Juanek.

Bestalde, Des-kontrolek 03:45ean egingo du kontzertua, baina aurretik (01:45), RIP-eko Julek eta Txerrak, *Osoron* baxua lagun dutela, dagoeneko klasikoak diren kantuak eskainiko dituzte. Hainbat lagunek hartuko dute mikrofonoa: Fer Sapo, Kop-eko Juanra, Obligaciones-eko *Pela*, NOKeko *Podri*, Etsaiakeko Auo eta Iñigito eta Juanek.



**JAIAK** > SANJUANAK ARRASATEN

# Gainean dira krisia protagonista izango duten San Juan jaiak

Aste bukaeran hasiko dira jai egitarau barruko ekitaldiak, eta martitzenetik zapatura bitartean festa giro herrikoiak ez du atsedenik izango

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

*Txin-txin, txin txin, krisiaren hotsa*. Halaxe egokitu du Txosna batzordeak euskal kantu ospetsua San Juanetarako. Izan ere, krisia presente izango da aurten. Hona bi adibide: Udalak jaietako aurrekontua murriztu egin behar izan du eta Txosna batzordeak *Krisixa? San Juanetan berpiztu daigun herrixa!* aukeratu du lelo. Gainera, krisiari aurre egiteko hamaika ekimen prestatu dituzte festek iraun artean.

**AURRETIK, MOTORRAK BEROTZEN**

Diru gutxiago, eta jai luzeagoak. Aste bukaeran jai egitarau barruan dauden zenbait ekitaldi ospatuko dira. Aipagarrienak dira Motorrero Eguna, Arrasateko Margo Taldearen lehiaketa eta Haur Dantzarien Eguna.

Bihar izango da Motorrero Eguna. Eneko Girado antolatzaileak jakinarazi duenez, "eguraldiak baldintzatuko du parte-hartzea". Eguraldi aurreikuspenak onak dira eta antolatzaileek 120 motorzale inguru bilduko direla espero dute. Rock doinuak ere entzun ahalko dira –Bitter Honey eta La Txusma–, eta edatekoa ez da faltako zapatuko jaian. Laubide plazan ezarriko dute gunea; gonbita egina dago.

Bestalde, Arrasateko Margo Taldeak *5. Herensugea* lehiaketa antolatu du, margotzea gustuko duen edonori begira: baldintza bakarra da 09:00etatik 10:00etara Tamayo paper dendan izena ematea. Eta azkenik, domekan Euskal Herriko dantzek hartuko dute Arrasate, goiz eta arratsaldez.

Gero, astelehenean beharrezkoa den deskantsua hartu, eta martitzenetik zapatura arte jai giro herrikoia izango da nagusi.



Makala jasotzen iazko San Juan jaietan. IMANOL SORIANO

## Sanjuanetako egitaraua

### MARTITZENA, 23

**12:00** Ferrerias plazan TXUPINAZOA eta txosnagunearen irekiera.
**14:30** 150 lagunendako BAZKARI HERRIKOIA gaztetxean.
**16:00** Arrasateko TXISTULARIEKIN DIANA.
**16:30** Herriko Plazan ETXAFLEROAK eta BONBA JAPONIARRAK.
**17:00** Herriko Plazan ZIRIKA ZIRKUS taldearen *Ilargian* ikuskizuna.
**17:30** Maalatik hasita TXOPOTEOA, DRAGOI ALDE txarangak alaituta.
**19:00** Herriko plazan MAKALA jasotzea.
**19:30** San Juan Batailatzailearen parrokian SALBE SOLEMNEA.
**21:30** ERREMENTARI DANTZA; Arrasateko euskal musika eta dantza taldeek parte hartuko dute.
**22:30** SAN JUAN SUA Herriko Plazan.
**23:00** Herriko kaleetan zehar, NAGUSIEN DANBORRADA. SUDCek antolatuta. Ostean, Herriko Plazan GAUBELA taldearekin DANTZALDIA.
**23:00** Punk-rock KONTZERTUA txosnagunean: Decepcion Rock, Paraplejia eta El Matadero taldeekin.



### EGUAZTENA, 24

**08:00** Txosna batzordeak antolatuta, TXOKOLATADA elizpean.
**08:30** DIANA, ARRASATEKO GAITEROEKIN.
**09:00** ENTZIERROA. Ferrerias kaletik irten, Erdiko kaletik eta Iturbidetik pasatu ostean, Laubide plazako zezen-plazan bukatuko da; gero, zaleendako bigantxak zezen-plazan.
**11:00** MEZA NAGUSIA San Juan Batailatzailearen parrokian. Ordu berean, Arrasateko Erraldoien eta Kilikien KONPARTSAren KALEJIRA.
**11:00** Arrasate Musikaleko MUSIKA BANDArekin KALEJIRA.
**12:00** Herriko Plazan OHOREZKO AURRESKUA eta SAN JUAN ZORTZIKOA dantzatuko da.
**12:30** Abaroan OMENALDIA 80 URTETIK GORAKO NAGUSIEI.
**13:00** Monterron parkean KONTZERTUA, Arrasate Musikaleko MUSIKA BANDAREN eskutik.
**18:00** Txosna batzordeak antolatuta, II. Bikoizketa/Sex metraia gaztetxean.
**19:30** Zezen-plazan zezen jaialdia ERREKORTADOREekin eta beste ikuskizun batzuekin.
**19:30** Mexikotik DOLORES SAN JUAN Y MARIACHI TEQUILEÑO taldearen eskutik KALEJIRA.
**21:00** PINTXO DASTAKETA gaztetxean.
**21:00** Herriko Plazan, DRAGOI JANA.
**22:00** Gaztetxean, KARAOKEA.
**23:00** Santa Babaratik SU ARTIFIZIAL ikusgarriak, Astondoa Pirotekniaren eskutik.
**23:30** DISKO FESTA, Herriko Plazan, OIHAN VEGArekin.
**23:30** Monterronen TXATARRERIA KEATON taldea. Buster Keatonen filmen emanaldi musikatuak dira talde honek proposatzen diguna.



### EGUENA, 25

**08:30** DIANA Arrasateko Gaiteroekin.
**09:00** ENTZIERROA. Ondoren, bigantxak zezen-plazan.
**09:30** Haurrak eta gaztetxoak iratzartzeko DIANA.
**10:30** Biteri plazan haurrek eta gaztetxoek ongietorria egingo diote EGUZKI LARUri eta kalejiran joango dira Zaldibar pilotalekura. Ondoren, jolasparkea 13:30ak arte.
**12:00** GRAFITI HERRIKOIA txosnetan. Gaia: Krisia.
**13:00** Herriko plazan BERTSO SAIOA. Gai-jartzailea: Asier Ibaibarriaga. Bertsolariak: Jokin Labaien, Oihane Pereira, Amets Arzallus eta Sustrai Colina.
**13:30** APAR JOLASA Biteri plazan.
**16:30-18:30** Zaldibarren Eguzki Laruren jolasparkea irekiko da berriro, merienda eta zurrupaki tropikalarekin.
**18:00** Txosnagunean HERRI PROBAK. Ondoren, antzerkia.
**18:00-20:00** Txosnetan eta gaztetxean "Krisiaren aurkako orduak": tragoak merkeago, sorpresak eta krisiaren aurkako jolasak.
**18:30** Haurren kalejira Zaldibartik Monterronera.
**18:30** Seber Altube plazan HAPPY STARS taldearen ikuskizuna.
**19:00** PIRRITX eta PORROTX pailazoek *Piratak* ikuskizuna aurkeztuko dute, Monterron parkean. Ondoren, Eguzki Laruri agurra.
**19:30** Arrasateko Gaiteroak eta Arrasate Musikaleko perkusio eta haize taldeen irteera.
**20:00** LARRAIN DANTZA Herriko Plazan. Ondoren kalejira.
**20:00** Seber Altube plazan HAPPY STARS taldearen ikuskizuna.
**22:00** Txosnagunean Punk-rock eta oi! KONTZERTUA: Arrasateko Last Rebels eta Motherfuckers eta Berlingo Radio Dead Ones taldeekin.
**22:30** Herriko Plazan DANTZALDIA Nueva Alaska taldearekin.



### EGUBAKOITZA, 26

**08:30** DIANA Arrasateko Gaiteroekin.
**09:00** ENTZIERROA. Ondoren, bigantxak zezen-plazan, LOS INCANSABLES txarangak girotuta.
**11:00** Arrasateko erraldoi eta kilikiekin konpartsaren kalejira.
**12:00** Arrasateko trikitilarien eskutik kalejira.
**12:00** *Segway* ibilgailu dibertigarria erabiltzeko aukera Biteri plazan.
**12:00-14:30** Herriko Plazan, eta Eusko Labelen eskutik, HEGALUZE eta ATUN GORRI dastatzea GOIKOBALU abesbatzaren laguntzarekin.
**17:30** Txosna batzordeak antolatuta TRIKIPOTEOA.
**18:00** Errekortadore ESKOLA gaztetxoendako, zezen plazan.
**18:00** Herriko Plazan ATXIKISTAN ikuskizuna (umeen berbena).
**19:00** Debagoieneko II. jardunaldi gastronomikoen aurkezpena. Bakailao PINTXOEN BANAKETA Herriko Plazan.
**19:00** AGAKOk sortutako Itxungi irrati librearen aurkezpena gaztetxean
**19:30** Herriko Plazan SOKA DANTZA.
**20:00** Gaztetxean TRECE AMORES taledaren eskutik *Is this a beautiful world?* antzezlana.
**21:00** SENSALA taldearen CAPOEIRA ERAKUSTALDIA txosnagunean.
**22:00** Herriko Plazan LISKER taldearekin dantzaldia.
**22:00** Monterron parkean rock eta surf KONTZERTUA: EKON, BITTER HONEY eta LOS GALERNA taldeen eskutik.



### ZAPATUA, 27

**11:00** BOULDER TXAPELKETA HERRIKOIA, Txosna batzordeak antolatuta.
**12:00** AIKIDO ERAKUSTALDIA Musakolako kiroldegian.
**16:30** Herriko Plazan Txatxilipurdiren eskutik IRAJOSI eta PLAZALAI egitasmoen bukaera. Ipuin kontalariak eta jolasak 3 eta 12 urte bitarteko umeendako.
**18:00** Txosna batzordeak antolatuta TXARANGA POTEOA, DRAGOI ALDE txarangak girotuta.
**23:00** Txosnagunean KONTZERTUA Muskaria taldearekin.
**01:00** KAMEJAME txapelketa gaztetxean: Dragoi Bola marrazki bizidunetako Son Goku protagonistaren kamejamea ahalik eta hobetoen imitatzea, epaimahai baten aurrean.
**03:00** Urrezko Dragoi sarien banaketa txosnagunean.

OHARRAK
- Egitarauan Udalak eta Txosna batzordeak antolatu dituzten ekitaldiak ageri dira, eta azken aldaketak daude jasota. Hala ere, Txosna batzordeak azken orduko aldaketak egon daitezkeela iragarri du.
- Ekainaren 23ko koadrilen bazkarirako salgai jarri ziren 150 txartelak egun baten agortu ziren. Gaztetxean jende gehiago sartzen ez denez, jai batzordeak kanpoan geratu direnei barkamena eskatu eta makalaren igoera aurreko poteora hurbiltzeko gonbita egin die.

# IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05**

**sailkatuak@goiena.com**

**http://www.goiena.net/sailkatuak**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**
**ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU.GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU.**
Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** 84 metro koadroko etxebizitza salgai. Hiru logela, bi bainugela, egongela, sukaldea eta balkoia. Hirugarren solairua, igogailuarekin. Garajea eta trastelekua. 665 73 39 55.

**Aramaio.** Iaz 423.000 euroan tasatutako etxea, lorategiarekin, orain 300.000 euroan salgai. 625 13 12 59.

**Aretxabaleta.** Eraikitzen ari den duplexa salgai. Bitartekorik gabe. Prezio negoziagarria. 626 60 11 07.

**Oñati.** 70 metro koadroko etxebizitza salgai Kale Zaharrean. 6 urteko eraikin berria, igogailuarekin. Bi logela, sukaldea, egongela, komuna eta trastelekua, argi patioan. Deitu 652 70 12 49 telefonora.

**Oñati.** 76 metro koadroko etxebizitza salgai. Berritua. Dena kanpoaldera begira. Trastelekua eta garajea. 679 17 48 36

**Oñati.** Duplexa salgai Ultzegin kalean, eraikin berrian. Garaje eta trastelekuarekin. 670 85 85 41.

**Oñati.** Etxebizitza salgai Bidebarrieta kalean. 2002ko eraikina. Bi logela, sukaldea, bainua eta egongela. Guztira 68 metro koadro. Gainera 10 metroko terraza toldoarekin etxebizitzaren atzealdean. 20 metroko garaje itxia. 678 40 34 76 edo 609 77 66 75

**Oñati.** Kale-kalean eta estreinatzeko dagoen apartamentua salgai. Bi logelakoa. Garaje itxia aukeran. 39.500.000 pezeta. 665 71 42 69.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Duplex polita ematen da errentan, erdigunean. Jantzia eta egoera oso onean. Bi autorentzako garajearekin. Ikasleek ez deitu. Rakel. Deitu 629 46 93 91 telefonora.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan ikasleentzat Jokin Zaitegi plazan. Hiru logela, bi bainugela eta egongela. Arratsaldez deitu, mesedez. 646 68 05 86.

**Eskoriatza.** Berritutako baserria ematen da errentan. Deitu 18:00ak eta 21:00ak artean mesedez. 693 80 40 47.

**La Puebla de la Barca.** ( Arabar Errioxa). Etxea ematen da errentan uztail eta abuztuan. 111 $m^2$. Sukalde ornitua, bi logela, bi komun, egongela eta 35 $m^2$. Aparkalekua, igerilekua eta berdegune komunak. 653 71 89 11.

**Noja.** Etxebizitza errentan. Golf zelaiaren ondoan. Bi logela, bi bainugela, sukaldea, egongela, terraza eta garaje itxia. Urbanizazio pribatua, igerilekua. 635 75 35 29.

**Peñiscola.** 2 edo 4 pertsonarendako apartamentua. Hondartzako lehenengo ilaran. Guztiz jantzia. Igerilekua txirristekin. 948 41 00 79 edo 616 95 04 00.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta.** Bikote batek etxebizitza hartuko luke errentan . 669 92 62 12 edo 669 92 62 12.

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko nuke erdialdean. 658 77 90 46.

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta** erdialdean gela errentan. 616 75 41 30.

**Arrasate.** Gela ematen da errentan unibertsitate ondoan. Kanpoaldera. Gas naturala. Leku lasaia. 630 71 35 83.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan Olarte kalean, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. 300 euro. 618 00 08 28.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. Udaletxe ondoan. Sukalde handia, igogailua eta terraza dotorea. 688 64 10 13 edo 620 72 27 30.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan. 699 66 33 63.

**Arrasate.** Oso egoera onean dagoen etxebizitza osatzeko pertsona bat behar dugu. Eguzkitsua eta wi-fiarekin. Uztailean sartzeko. 677 98 59 14.

**Arrasate.** Pertsona bat behar dugu beste hirurekin etxebizitza osatzeko. 670 59 73 62.

**Bergara-Arrasate.** Logela errentan hartuko nuke. 658 77 90 46.

**Debagoiena.** Ikastera datozen Erasmus ikasleentzako gelak behar dira Debagoienean irailaren hasieratik abenduaren amaiera arte. 656 77 66 32.

**Donostia.** Antigua auzoan etxea osatzeko ikasle baten bila gabiltza. Errenta: 240 euro inguru. 685 70 17 09.

**Eskoriatza.** Bi lagun behar dira 25 urteko neska eskoriatzar batekin etxea osatzeko, irailetik aurrera. Etxeak lau logela, komuna, sukaldea, egongela eta balkoia ditu. Lehen solairua da. Erdialdean. Egoera onean dago, gasa dauka eta Euskalteleko konexioa, nahi bada. Nik txakurra daukat. 606 74 42 37.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**OÑATI**

**Estetizista behar da arratsaldez lan egiteko.**

**653 71 54 15**

## 4/ LANA

### 402. ESKAERAK

**Arrasate, Aretxabateta edo Eskoriatza.** Neska gertu ume zein nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko, orduka. 676 28 87 84.

**Arrasate-Aretxabaleta-Eskoriatza.** Esperientzia duen mutil zerbitzaria gertu barra zein terraza lanak egiteko, orduka. 610 97 82 88.

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu edozein lan egiteko. 659 82 75 18.

**Arrasate.** Emakumea gertu nagusiak eta umeak zaintzeko. Orduka edo etxean lo egiteko prest. 663 65 78 43.

**Arrasate.** Neska euskalduna prest nagusiak zaindu eta etxeak zein atariak garbitzeko. 679 92 49 34.

**Arrasate.** Neska gazte eta esperientziaduna prest arratsaldez lana egiteko astelehenetik igandera, berdin etxeak garbitzen edo haur eta helduak zaintzen. 688 64 10 13 edo 620 72 27 30.

**Arrasate** Emakumea gertu umeak zein nagusiak zaintzeko. Mari. 649 30 13 60.

**Bergara edo Antzuola.** Hemengo emakumea gertu umeak zaintzeko. 696 84 19 51.

**Bergara eta Antzuola.** Emakumea gertu haurrak eta pertsona edadetuak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Goizez. Graciela. 699 63 12 02.

**Bergara eta Antzuola.** Lan egiteko gertu nago: sukaldari laguntzaile, garbiketan eta pertsona edadetuak zaintzen. Yair. 628 93 79 39.

**Bergara.** Emakumea gertu garbitasun lanak egin edo umeak eta nagusiak zaintzeko. 685 87 19 75.

**Bergara.** Emakumea gertu pertsona nagusiak orduka eta gauez zaintzeko, garbiketa lanak egiteko eta haurrak zaintzeko. 638 54 75 93.

**Debagoiena.** Arratsaldez nagusiak zaindu edo tabernako sukaldean lan egingo nuke. Autoa daukat. 636 11 23 40.

**Debagoiena.** Desbrozadora lanak egiteko gertu. Esperientziaduna. Euskalduna. 658 73 79 02.

**Debagoiena.** Emakume esperientziaduna gertu sukalde laguntzaile edo garbitasun lanak egiteko. Nacira Moreno. 680 58 57 06 edo 659 32 69 92.

**Debagoiena.** Emakumea gertu haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko. Gauez ere bai. Arrasaten, Aretxabaletan nahiz Eskoriatzan. Esperientziaduna. 618 00 08 28.

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egingo nituzke. Baita nagusiak edo umeak zaindu ere. Orduka eta egun osoz. 679 06 12 99.

**Debagoiena.** Garbiketa orokorrak egin eta adinekoak zein umeak zaintzeko gertu nago. Tabernan ere esperientzia daukat. Geriatria laguntzaile eta tabernari tituluak dauzkat. Ainhoa. 671 35 22 60.

**Debagoiena.** Lanaldi osoan, lanaldi-erdian edo orduka lan egiteko mutil gaztea gertu. Harategiko lanean esperientzia, zatitze salan. 677 73 79 59.

**Debagoiena.** Nagusiak edo umeak zainduko nituzke etxean bertan bizi izaten, edo bestela. 680 30 24 64.

**Debagoiena.** Nagusiak zainduko nituzke, etxean bertan bizi izaten, astelehenetik ostiralera. 678 04 28 16 edo 638 04 17 02.

**Debagoiena.** Sukalde laguntzaile, nagusiak zaintzen edo garbitasun lanak egingo nituzke. 608 34 36 11.

**Debagoiena.** Sukalde laguntzaile, nagusiak zaintzen edo garbitasun lanak egingo nituzke. Eli Cerezo. 630 20 12 03.

**Debagoiena.** Umeak edo nagusiak zainduko nituzke, uztailean, goizez. Etxeko garbitasunak ere egiteko gertu. 943 79 96 25 edo 647 10 58 72.

**Oñati.** Neska euskalduna umeak zaintzeko prest uztail eta abuztuan. 660 77 87 65.

**Umeak zaindu.** Uztailean umeak zaintzeko prest dago neska arduratsu eta euskalduna. Leire. 617 90 55 82.

**Zerbitzari** lanetan, jantokian eta sukaldari lanetan esperientzia duen pertsona prest lanean hasteko (erreferentzia onak). 669 78 20 78.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Zinpeko zaintzaile** lanetan diharduen neska naiz eta lanpostu horretarako oposizioak prestatzen lagunduko didan norbait behar dut. Deitu 685 77 66 21 telefonora.

### 502. EMAN

**Arrasate.** Ingeniaritza ikasketak ditut eta Lehen Hezkuntza, DBH edo Batxilergoko eskola partikularrak emateko gertu nago. Deitu 664 66 73 09 telefono zenbakira.

**Bergara.** Eskola partikularrak emateko prest dagoen Ingeniaritzako ikaslea naiz, uztailean. Eskola partikularrak ematen esperientzia dut. Deitu 685 70 17 09 zenbakira.

**Oñati.** 21 urteko gaztea udan eskola partikularrak emateko prest. Ekainaren 18tik aurrera izan beharko luke. Ordutegiaren aldetik, malgutasuna. Deitu 685 71 74 12 zenbakira.

**Udarako eskola partikularrak.** Arrasateko mutil gaztea gertu udan eskola partikularrak emateko. Lehen Hezkuntzako gai guztiak (ingelesa barne). Irakasle ikasketetan diplomaduna eta Arrasateko eskoletan esperientziaduna. Deitu 635 75 05 26 edo 943 08 14 25 telefono zenbakira.

**Eskola partikularrak.** Esperientziadun irakaslea naiz eta eskola partikularrak emango nituzke udan Oñatin. Deitu 666 21 73 48 telefonora.

**Eskola partikularrak.** Matematikan lizentziadunak udan eskola partikularrak emango lituzke. Alex. 653 70 89 17.

**Ingeleseko** eskolak emateko gertu nago, uda osoan zehar, maila guztietan. Amaia. 635 00 68 84.

**Oñati.** Esperientziadun irakaslea naiz eta eskola partikularrak emango nituzke udan. 666 21 73 48.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Aixan autoa.** Gidabaimenik gabe erabiltzekoa. 2008ko maiatzekoa. Ixte-sistema zentralizatua, kristal-igogailu elektrikoa, kristal ilunak, ez-iraultzeko sistema, maletategi ederra, MP3, hagunak. Atzera-martxako sentsoreak. 10.000 euro negoziagarri. Jesus. 696 16 14 35.

**Suzuki 4X4** ibilgailua, 1900 turbo diesela salgai. Egoera onean. Bost atekoa. Deitu 629 40 74 37 telefonora.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Txakurkumeak** salgai. Bulldog frantses arrazakoak. Zuri-beltzak. 620 14 10 25.

**Zaldi arabiarra** saltzen da. Karta dauka. Atenditzea ezinezkoa dudalako. 647 64 02 81.

### 703. EMAN

**Katuak** ematen dira opari. Zikiratuak eta azazkalik barik. 644 49 61 52.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**BBK Live jaialdirako** lau bonu dauzkat saltzeko. Bakoitza 100 eurotan. 615 79 22 81.

**Karro-denda.** Comanche Arizona, bi logela handi (bat jangela bilakatzeko aukerarekin). 850 euro. 635 20 77 80.

**Maillota** salgai. Berria, L neurrikoa. 30 euro. 600 82 84 60.

**Zinta estatikoa** salgai. Sistema digitalduna. Ia berria. 50 euro. 608 36 26 07.

### 802. EROSI

**Lursaila Oñatin.** Orturako lursaila erosi edo errentan hartuko nuke. 662 04 14 98.

### 804. HARTU

**Irratirako tresnak.** Arrasateko gaztetxean Itxungi irrati librea sortzen ari gara, eta norbaitek irrati bat sortzeko tresnak erabiltzen ez baditu, eskertuko genuke.

**Uretako Kefirra** hartuko nuke. Baldin badaukazu, deitu telefono honetara:. 943 76 40 54.

### 805. TRUKATU

**Saxo Vts.** 10 urte dituen Saxo Vts 90 autoa Berlingo edo Partner furgoneta bategatik aldatuko nuke. Deitu 663 72 78 23 telefono zenbakira.

### 806. GALDU

**Betaurreko gorriak.** Graduatutako betaurreko gorriak galdu nituen Arrasate erdialdean. Zorro gorri baten barruan daude. Aurkitu dituenak dei dezala 653 71 79 87 telefono zenbakira.

**Jertse lila** galdu nuen ekainaren 4an Aretxabaleta eta Eskoriatza artean. Lila kolorekoa da, fina eta botoiduna. Norbaitek topatu badu, dei dezala zenbaki honetara. Maider. 680 59 93 91.

### 807. AURKITU

**BTT motxila,** gauzekin, aurkitu genuen Arrasaten Okoretegiko errotondan, ekainaren 13an, zapatuan, gauean. Deitu 616 93 81 69 telefonora.

**Umeen betaurrekoak.** Ostiralean, hilak 12, Arrasateko plazan umeen eguzkitako betaurrekoak aurkitu nituen. Ray Ban etxekoak dira eta BAZen utzi nituen.

## 9/ HARREMANAK

### 902. HARREMANAK

**Lagun bila.** 36 urteko mutil debagoiendarra 30 eta 40 urte bitarteko emakume debagoiendarraren bila. Hasiera baten, lagunak izateko. Irekia bazara eta hitz egitea gustuko baduzu, zaletasunak konpartitu ditzakegu: paseoak, bizikleta, irakurri, dantza, abestu... Perfektua ez bazara, lasai, ni ez bainaiz printze urdina. Interesatuok 'kirikel@yahoo.es'-ra idatzi.

**Mutil bila.** Xabi, 28 urte, ezkondua eta Arrasatekoa. Beste mutil batekin harremanak izan nahiko nituzke; ahal bada, gazteagoa den mutilarekin. Asmo berak baldin badituzu, bidali SMS bat 605 08 82 76 telefon zenbakira.

### 904. BESTELAKOAK

**Arrasate-Gasteiz.** Egunero Gasteizera joan-etorria egiten dugu. San Prudentzion elkartu, Arrasaten autobidea hartu eta Lakuara joaten gara. 08:00etan sartu eta 14:30ean irteten gara. Norbait interesatuta badago, deitu. 635 20 33 14.

DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Artekale, 89 $m^2$, ondo.
- Arrizuri, 97 $m^2$, garajearekin.
- Matxiategi, 65 $m^2$, berritua eta aukera ona.
- Matxiategi, 88 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 $m^2$, oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 $m^2$, ondo, hortuarekin.
- Ibargarai 81 $m^2$, berria, eguzkitsua, garajearekin.
- Aranerreka, 87 $m^2$, oso ondo.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Artzamendi, 88 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- San Lorentzo, 81 $m^2$, eraikuntza berria.
- Martoko, 87 $m^2$, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 $m^2$, ondo.
- Ibargarai, 80 $m^2$ oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 $m^2$ oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,132 $m^2$, berritzeko.
- Zabalotegi 80 $m^2$, eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 $m^2$, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Artzamendi 80 $m^2$, 2 terrazekin 60+30 $m^2$, eguzkitsua.
- Matxiategi, 73 $m^2$, berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 $m^2$, terrazarekin.
- Zurradero, 81 $m^2$, oso ondo.
- Simon Arrieta, 80 $m^2$, berritua. Oso ondo.
- Zubieta, 125 $m^2$, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 $m^2$, berritua. Oso eguzkitsua.
- Bidekurutzeta, 111 $m^2$, oso ondo.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan eta Martokon.**

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 $m^2$, berria.
- Sagarerreka, 58 $m^2$, aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, 85 $m^2$, oso eguzkitsua.
- Antigua 55 $m^2$, erdi berritua.

**ELGETA**
- San Roke, 75 $m^2$, ia berria.

KOROSTI
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Matxiategi 82 $m^2$. Eguzkitsua.
- Simon Arrieta 80 $m^2$. Eguzkitsua. Ondo. Berritua.
- Zubieta 80 $m^2$. Berritua. Ganbararekin.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 $m^2$. Berritua. Gazteentzat.
- Zubiaurre 67 $m^2$. Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60$m^2$. Oso ondo
- Barrenkale 82 $m^2$. Berritua.
- Aranerreka, 95 $m^2$, oso ondo.
- Masterreka. 46 $m^2$. Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 $m^2$. Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 $m^2$. Oso ondo.
- Azkarruntz 69 $m^2$. Prezio ona.
- San Pedro 65 $m^2$. Ganbararekin.
- Osintxu 64 $m^2$. Berritua. 114.192 €.
- Zubiaurre 58 $m^2$. Eguzkitsua.
- Kruz Gallastegi 65 $m^2$. Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 $m^2$. Oso ondo.
- Osintxu 62 $m^2$. Prezio ona.
- San Lorentzo 68 m2. Berritua.
- Zubiaurre 55 m2. Berritua. 114.192 €.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- **San Lorentzon etxe berriak**

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 $m^2$. Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

**Elgeta:**
- San Roke 72 $m^2$. Berritua.
- San Roke 80 $m^2$. 80 $m^2$-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 $m^2$. Berritua.

**Soraluze:**
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.

**DEBAGOIENA**

**Debagoieneko enpresa garrantzitsu batek biltegi buru bat behar du.**

**Interesatuek curriculuma bidali:**
***biltegiburua@gmail.com***

**LAN ESKAINTZA**

ITURGINA

Bergarako Udala, Ur Zerbitzuko iturgin lanpostu bi betetzera doa lehiaketa-oposizio bitartez.

**Izangaien baldintzak:**
- Eskola graduatua, FPI edo parekoa den titulua.
- 2HE.
- B motako gida baimena

**Instantziak aurkezteko epea:**
Uztailaren 6a.

Oinarriak Udaletxeko Idazkaritzako bulegoetan eta *www.bergara.net* webgunean.

*Bergara, 2009ko maiatzaren 29a.*
*ALKATEAK*

Bergarako Udala


interesgarria
PRO `09
Neurri bereziak negozioentzat
Etxebizitza Aurrezkia
Interesak espezietan
›GO Etxebizitza Kontua
Ezagutu aparteko abantailak
Ezagutu azken abantailak
nominamulti
Estaldura bereziak BIZI, ETXE eta AUTO Aseguruetan
Estatuko 1. Entitatea Zerbitzu Kalitatean
CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

**Aitor San Migel** > Ikaslea eta musikaria

# "Talde batean jotzen asko ikasten da, musikaz ez ezik baita bizikidetzaz ere"

Ikaslea da Aitor San Migel bergararra. Arrasaten Telekomunikazio Ingeniaritza ikasten dihardu; eta musikazalea ere bada. Txikitatik musika eskolan ibili eta zeharkako flauta jotzen ikasi ostean, gitarra elektrikoa jotzeari ekin zion, eta Emon musika taldean dihardu. Hortaz, musika tresnaren batekin ez bada, ordenagailu aurrean ibili ohi da gehienetan.

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA

**Azterketetan buru-belarri dabilen honetan, tarte bat lapurtu diogu eta ordenagailu aurretik bista apartatu eta bere zaletasunen gainean berba egitera etorri da gurera, gitarra elektrikoa esku artean duela.**

**Musika omen da zure zaletasun nagusia.**

Bai, autobusean beti joaten naiz MP3a entzuten; ikasten ere, sekulako kontzentrazioa eskatzen ez duten kontuekin badihardut, musika ipinita izaten dut. Denetarik entzuten dut: rock klasikoa, bluesa, musikari *zaharrak* eta gaur egungoetan ere denetarik pixka bat.

**Zalea ez ezik musika ikaslea ere bazara. Musika eskolan zer ikasi duzu?**

Solfeoa, korala… ikasi nituen lehenengo eta gero zeharkako flauta. Eskolak jaso nituen pare bat urtez eta gazte bandarekin kalejiretan-eta jo nuen. Orkestran ere jardun nuen, baina unibertsitatean hasi nintzenean ez nuen denerako denborarik eta utzi egin nuen orkestra, baina eskolekin jarraitzen dut. Bestalde, orain dela hiru urte gitarra elektrikoarekin hasi nintzen.

**Nolatan gitarra elektrikoa?**

Interesa nuen, eta jakin nuenean Bergarako musika eskolan gitarra elektriko eskolak ematen hasiko zirela, izena eman nuen. Flautarekin alderatuz oso ezberdina den arren, oso gustuko dut. Ikasi dut inprobisatzen. Flautarekin ere inprobisa daitekeen arren, modu teknikoagoan ikasi dut nik, liburuekin.

**Emon musika taldean dihardzu. Nola sartu zinen?**

Bateria jolea, Ekaitz, koadrilako laguna da, eta, aurreko gitarra joleak taldea utzi behar zuenez, proposatu zidan taldean sartzea. Hortaz, Gabonen bueltan hasi nintzen eta oso gustura nabil. Talde batean jotzen asko ikasten da, musikaz ez ezik baita bizikidetzaz ere, eta ondo pasatzen da, gainera.

**Taldearekin kontzertuak ere eman dituzu, ezta?**

Bai. Txapa Irratiaren TxaparradaMusikalaren harira gaztetxean, Beasainen, Bergarako jaietan eta azken asteburuan Ibarran. Azken kontzertuan niri soka bat apurtu zitzaidan, baxu joleari kable bat… baina horrek ere inprobisatzen erakusten du.









IRATI AGIRREAZALDEGI

**Zinemazalea ere bazara, ezta?**

Bai, gustuko dut. Orain zinemara Gasteizera joaten gara. Bergaran Novedades itxi zuten eta Zabalotegin zinema emanaldi gehiago egiten dituzten arren, estreinaldiak ikustera kanpora joan behar dugu eta azkenaldian sarri joaten gara.

**Gaztetxeko zinema emanaldiez ere arduratzen zara.**

Gaztetxea gainbehera zetorrela, hilda zegoela sumatuta zerbait egiteko beharra ikusi genuen, eta tartean pentsatu genuen lehengo zinekluba berreskuratu eta zinema saioak egitea lagun batek eta biok. Bakoitzak bi film aukeratzen ditu, ahal dela besteak ikusi gabea, eta jendeak eskatuz gero ere saiatzen gara topatzen. Denetariko filmak ipintzen ditugu: *Lucio* dokumentala; zientzia fikziokoak; zaharrak, *Teléfono rojo, ¿volamos hacia Moscú?* zuri-beltzekoa, adibidez… Filmaren arabera jende asko etor daiteke edo oso gutxi. Domekan dira saioak, eta, eguraldi ona eginez gero, apenas etortzen da inor.

**Beste zaletasunik baduzu?**

Ikasketengatik-edo, ordu mordoa sartzen ditut ordenagailuan, eta ordenagailua nire zaletasunetako bat ere bada. Azterketa garaian goizetik gauera egoten naiz ordenagailu aurrean, eta, gustatu ezean, gaizki pasako nuke. Ikasketak aukeratzerakoan ere kontuan hartu nuen hori, eta, informatika ikasi beharrean, hau berriagoa izanik telekomunikazioan hasi nintzen. Gaiak gustatzen zaizkit, eta, ikasketak beti errazak ez badira ere, nahiko ondo moldatzen naiz.

**Kirolik egiten duzu?**

Aspaldi joan ez banaiz ere, eskiatzea gustuko dut eta ahal dudanean lagunekin frontenisean edo futbolean jokatzea ere.

**Ikasketak, musika, zaletasunak. Ze asmo duzu aurrerako?**

Ikasgai guztiak gainditzea espero dut eta uda jai sasoia izanik taldearekin ibiltzea da nire asmoa, hainbat kontzertu lotuta dauzkagu-eta: Bilboko auzo bateko jaietan eta Gorlako Kantinan ere joko dugu, besteak beste. Uda ostean ikasketekin jarraitzea da nire asmoa eta aurrerantzean horretan lan egitea gustatuko litzaidake. Jende gutxi gaude oraingoz eta eskari handia dago; horrenbestez, aukerak izango ditugula uste dut.

### PERTSONALA

**Herria:** Bergara. **Adina:** 20 urte. **Ikasketak:** Telekomunikazio Ingeniaritza. **Zaletasunak:** Musika, zinema eta ordenagailuak. **Musika talde bat?** Scorpions. **Ikusi duzun azken filma?** *Vanilla Sky*. **Gomendatzeko moduko filma bat?** *V de Vendetta* da nire gogokoena. **Gorroto duzun zerbait?** Telenobelak. **Biziorik?** Pistatxoak. **Maniarik?** Apunteak boligrafo beltzarekin eta erregelarekin azpimarratuta hartzen ditut. **Bizi izateko toki bat?** Londres. **Bidaiatzeko?** Alemania ezagutuko nuke gustura.

# San Juan jaiei tarte zabala eskainiko diete GOITBn

San Juan egunean, ekainaren 24an, 'Goiena magazinea'-n jaien jarraipena

**GOIENKARIA** > ARRASATE

Datorren astean San Juan jaiak ospatuko dituzte Arrasaten. Egitaraua ekitaldiz beteta dator aurten ere: txupinazoa, errementari-dantza, San Juan Sua, nagusien danborrada, Dragoi Jana... Jarraipen zabala egingo diote San Juan jaiei *Goiena magazinea* saioan ekainaren 24an. Jai giroan murgilduta ibiliko da Txomin Madina kazetaria. Baina Arrasateko herria aste guztian jaietan izango denez, egunero jai giroak kutsatuko du *Goiena magazinea* saioa.

Beraz, jaien eguneroko jarraipena *Goiena magazinea*-n egingo dute, eta, horrez gain, San Juan jaien gaineko saio berezia eskainiko dute egubakoitzean, 22:15ean hasita.

**GOITB, 'Goiena magazinea'**
> Egunero, 19:45, 21:15 eta 23:00



Eguaztenean, Dragoi Jana egingo dute. ARGAZKILARIA

> HARMAILATIK
## Gipuzkoako atleta onenak bilduko dira Mojategin

Zapatuan, Gipuzkoako Challengeko hirugarren jardunaldia jokatuko da Arrasateko Mojategin, eta horren jarraipen zabala egingo diote *Harmailatik* saioan, astelehenean. Arrasaten baita ere, zapatuan jokatuko dira Zaldibar futbito txapelketako finalak. Eta domekan, San Juan jaien egitarauaren barruan, Uarkapeko frontoian luxuzko pilota partida ikusi ahal izango dugu: Juan Martinez de Irujo, buruz buruko txapelduna eta Beroiz bikoteak, Gonzalez eta Pascualen aurka jokatuko dute.

Sabiñanigoraino ere joango da Harmailatik saioko lantaldea, bertan egingo da eta Quebrantahuesos proba. Irtera puntuan izango dira Debagoieneko 169 zikloturista.

# Igerilekura eta 3.60ra irratiarekin

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Datorren astean, ohiko opariez gainera, sari bereziak zozketatuko dituzte irratian; batetik, 3.60 aretoaren orain arteko kudeatzaileek egingo duten agur-jaialdirako sarrerak dituzte. Ekainaren 26an hasi eta ekainaren 27ko goizaldera arteko jaia izango da. Eta bestetik, igerilekuan estreinatu duten udako denboraldiarekin bat eginez, astero zozketatuko dituzte bina sarrera, igerilekura joateko.

**Arrasate Irratia, 'Igo Autobusera'**
> Egubakoitza 11:45ean



ARGAZKILARIA

## Aimar Irigoien harri-jasotzailea 'Ilunpean' saioan

Harriak, desafioak eta parranda kontuak izango ditugu Euskal Herriko mutilik indartsuenarekin solasean. 4 urterekin egur zati bat aitaitak oparitu eta gaur egun harritzarrak jasotzen ditu Errezilgo harri-jasotzaileak. Gehien parranda du gustuko gazteak, baina entrenamenduen sakrifizioak ez omen dio tarte handirik uzten. Bi giro ditu gustuko: plaza giroa eta lagun giroa, hain zuzen ere.

**GOITB, 'Ilunpean'**
> Martitzena, 22:15
> Domeka, 18:00

> ARRASATE IRRATIA
## San Juan bezperan hasiko dira irratsaio bereziekin

San Juan jaien jarraipen zabala egingo dute Arrasate Irratian. Bezperatik hasi eta egunero egingo dute jaiei eskainitako irratsaio berezia, 10:30etik 12:30ak arte. Ekitaldi guztien kronika jasoko dute, eta bereziki zuzeneko konexioek izango dute garrantzia. Arrasate Irratiko mikrofonoek bertatik bertara jasoko dute kaleko giroa eta hainbat protagonistekin elkarrizketak egingo dituzte.

Opari bereziak zozketatuko dituzte Arrasate Irratian; AED elkarteak antolatutako Dragoi janerako txartelak.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.
Amaia Doyague arraunlaria; Igor Elordui AEKko Komunikazio arduraduna; Ibili munduan geltokian, Iñaki Araiz; Manu Romano Golden Apple Quartet taldeko kidea; lorategiaren geltokian kaktusen gainen egingo dute berba...

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ibili Munduan geltokia
Elkarrizketak
Lorategiaren gelltokia
Zozketak
Zorion agurrak
(parte hartzeko: 943 71 17 31)
**12:05** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**12:20** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**17:15** Zorion agurren tartea (errep.)

## astea GOITBn

**Egubakoitza, 19**
**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Kantari
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Berbaire.
**16:15** Ikusten.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Ilunpean: Marian Beitialarrangoitia
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Solaskide.
**22:45** Musikantoi.
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

**Zapatua, 20**
**08:00** Marrazki bizidunak.
**10:30** Trikitraka trikiton.
**11:30** Kantari.
**14:00** Elkartasun bideak.
**14:30** Ikusmira.
**15:00** Erreportajea.
**15:30** Trikitraka trikitron.
**16:30** Marrazki bizidunak.
**18:00** Erreportajea.
**18:30** Solaskide.
**19:00** Erreportajea.
**19:30** Berbaire.
**20:30** Golb tb.
**21:00** Ikusten.
**21:30** Ilunpean: Marian Beitialarrangoitia
**22:15** Solaskide.
**22:45** Erreportajea.
**23:30** Wazemank.
**00:30** 28 klip.
**01:00** Emisio amaiera.

**Domeka, 21**
**08:00** Trikitraka trikiton.
**09:00** Marrazki bizidunak.
**11:30** 28 klip.
**12:00** Erloklip
**12:30** Ikuskizuna.
**13:00** Erreportajea.
**13:45** Solaskide.
**14:15** Eltze beroa.
**15:30** Zaharrak berri.
**15:45** Kantari.
**18:15** Trikitraka trikiton.
**19:15** Erreportajea.
**19:45** Solaskide.
**20:15** Wazemank.
**21:15** Elkartasun bideak.
**21:45** Berbaire.
**22:45** Golb tb.
**23:15** Ilunpean.
**00:00** Itsasora begira.
**00:30** Emisio amaiera.

**Astelehena, 22**
**13:15** Marrazki bizidunak : Cloud Trotters.
**13:45** Kantari.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Mugaz kanpo.
**15:45** Elkartasunaren bidean.
**16:15** 28 klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Wazemank.
**18:15** Musikantoi
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Harmailatik.
**23:00** Erreportajea.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

**Martitzena, 23**
**13:15** Marrazki bizidunak: Alex eta Alexis
**13:45** Kantari.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:10** Harmailatik.
**15:50** Solaskide.
**16:20** Itsasoari begira.
**16:45** Berriak.
**17:10** Marrazki bizidunak.
**17:35** Erreportajea.
**18:05** Harmailatik.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Ilunpean: Aimar Irigoien.
**23:00** Lamien artean.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

**Eguaztena, 24**
**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Kantari.
**14:15** Ikusmira.
**14:45** Berriak.
**15:10** Ilunpean: Aimar Irigoien.
**15:50** Golb tb.
**16:20** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Solaskide.
**18:15** Ur eta lur.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Solaskide.
**22:45** 28 Klip.
**23:15** Goiena Magazinea.
**00:15** Emisio amaiera.

**Eguena, 25**
**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Kantari.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Ikusmira.
**15:45** Mugaz kanpo.
**16:15** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Elkartasun bideak.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Berbaire.
**23:15** Musikantoi.
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.



**Agurtzane Aranburu** oñatiarra eta **Aritz Zuloaga** antzuolarra ekainaren 6an ezkondu ziren Murgia auzoko Asentzio ermitan. Eztei bidaian Kenya eta Tanzaniara doaz. Ondo ibili, bikote, eta zorionak, senide eta lagunen partetik!



**Elias Gartzia** bergararra eta **Sonia Martin** zumarragarra bihar, zapatua, ezkonduko dira Zumarragako Antiguan. Ondoren, Etxeberri jatetxean ospatuko dute eztei bazkaria. Lagunen partetik, "egun zoragarria pasa dezazuela".



**Rosarito Zeziaga** eta **German Balantzategi** bergararrek 50 urte bete dituzte ezkonduta oraingo astean; atzo, hain justu ere, ekainaren 18an. Ospakizuna bihar, zapatua, egingo dute: 12:30ean meza Bergarako Sierbetan eta ondoren bazkaria familiakoekin, Lasa jatetxean. Zorionak, senideen partetik.



**Edurne Sanchez** oñatiarra eta **Josean Hernandez** aretxabaletarra ekainaren 20an ezkonduko dira Oñatiko parrokian. Ondoren, Oñatiko Zelai-Zabal jatetxean egingo dute bazkaria familia eta lagunekin. Zorionak, bihotz-bihotzez, eta muxu handi bana, Aretxabaletako eta Oñatiko familien partetik.



**Ruben Ruiz** eskoriatzarra eta **Leire Romero** arrasatearra bihar, zapatua, ezkonduko dira Eskoriatzako San Pedro elizan. Bazkaria, berriz, Oñatiko Soraluze jatetxean egingo dute. Familiakoen eta lagunen partetik, zorionak, bikote!



**Igor** eta **Rebeca** arrasatearrak bihar, zapatuan, ezkonduko dira Musakolako San Isidro elizan. Ospakizuna Oñatiko Etxe-Aundi jatetxean egingo dute. Gero, Ameriketako Estatu Batuetara eta Dominikar Errepublikara doaz. Zorionak, lagunen partetik!

## bono fotoa



**Oraindik amaitu gabe dauden etxebizitza hauek Oñatiko zein auzune osatuko dute etorkizunean?**

Argazkia eta galdera > Iñigo Biain

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA
Arrasateko **Amadeo Ezpeleta Urkia**.
Zorionak!
**Erantzun zuzena:**
**Arrasateko Garagartza auzoa**





Larchago Ardoek emandako
**Ardo botila packa***
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

* Larchago iskillarapeko ekologikoa 2008 bi botila. / Larchago kriantza 2006 botila bat.

**ERANTZUNA** ..........
IZEN-DEITURAK ..........
HERRIA .......... TELEFONOA ..........

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO Goienako edozein egoitzara


ESKER ONA

## Maria Luisa Alberdi Arrese-Igor

Gasteizen hil zen 2009ko ekainaren 10ean, 81 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2009ko ekainaren 19an.

ESKER ONA

## Jose Luis Madinabeitia Uriarte

2009ko ekainaren 12an hil zen, 80 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko haren emazte, seme eta gainontzeko senideen izenean.

Arrasaten, 2009ko ekainaren 19an.

ESKER ONA

## Antonio Larrañaga Larrañaga

Maria Guridiren alarguna

Arrasaten hil zen 2009ko maiatzaren 23an, 89 urte zituela.



Ondra meza zapatuan, ekainaren 20an, 19:30ean, Oñatiko Agustinotan ospatuko da.
—
Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

San Prudentzion (Bergara), 2009ko ekainaren 19an.

ESKER ONA

## Serapio Beitia Lizarazu

Legazpin hil zen 2009ko ekainaren 16an, 85 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Legazpin, 2009ko ekainaren 19an.


## ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:
**943 25 05 05**
Edo zatoz ordezkaritza batera.
**Eskelaren prezioa: 110 euro.**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **150** euro.
**Goienkaria: astero, 44.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.**



4. URTEURRENA

## Iker Uribetxeberria Azurmendi



*Gure artean denbora gutxi egon arren, jakin duzu gure maitasuna irabazten, betirako gure gogoan, betirako Apo.*

**Zure lagunak.
Arrasaten, 2009ko ekainaren 19an.**

URTEURRENA

## Iker Uribetxeberria Azurmendi

Laugarren urteurreneko meza martitzenean, ekainaren 23an, 19:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

MEZA

## Agustin Escribano Navarro

Gabi Lasa Casaresen alarguna

**Gasteizen hil zen 2009ko maiatzaren 18an, 86 urte zituela.**

Haren arimaren aldeko meza domekan, ekainaren 21ean, 12:30ean, Bergarako San Pedro parrokian ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## M. Angeles Murua Zabaleta

Lehen urteurreneko meza zapatuan, ekainaren 20an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Juanita Lasa Casares

Lehen urteurreneko meza domekan, ekainaren 21ean, 12:30ean, Bergarako San Pedro parrokian ospatuko da



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Nicanor Arazkonaga Alberdi

Lehen urteurreneko meza domekan, ekainaren 21ean, 12:30ean, Bergarako San Pedro parrokian ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Juliana Madariaga Larrañaga

Lehen urteurreneko meza domekan, ekainaren 21ean, 12:30ean, Bergarako San Pedro parrokian ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Xabier Ilzarbe Rekarte

Lehen urteurreneko meza domekan, ekainaren 21ean, 12:30ean, Bergarako San Pedro parrokian ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Beatriz Biciola Velasco

Lehen urteurreneko meza domekan, ekainaren 21ean, 12:30ean, Bergarako San Pedro parrokian ospatuko da.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Felix Saez de Gordoa Iturrieta

**Arrasaten hil zen 2007ko ekainaren 20an.**

Bigarren urteurreneko meza domekan, ekainaren 21ean, 12:30ean, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## M. Tere Berezibar Etxaluze

**Arrasaten hil zen 2008ko ekainaren 12an.**

Lehen urteurreneko meza domekan, ekainaren 21ean, 12:30ean, Bergarako San Pedro parrokian ospatuko da.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Beatriz Etxebarria Altuna

Lehen urteurreneko meza domekan, ekainaren 21ean, 12:30ean, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Itziar Ortiz de Zarate Gallastegi

Lehen urteurreneko meza domekan, ekainaren 21ean, 12:30ean, Bergarako San Pedro parrokian ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Pako Etxarri Suberbiola

Lehen urteurreneko meza domekan, ekainaren 21ean, 12:30ean, Bergarako San Pedro parrokian ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

Babeslea:
Euskalduna
Hileta Zerbitzuak
Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea
Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net

# Ekainak 19-26

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com**
Tel.: **943 25 05 05** • Faxa: **943 25 05 13**

## Musika



ARRASATE

**> Big Band taldearen emanaldia gaur gauean Monterron parkean**

Arrasate Musikaleko Big Band taldeak San Juanetako ohiko emanaldia egingo du gaur. Zigor Martinezen zuzendaritzapean klasikoen bertsioak eskainiko dituzte: *Wave, Sing sing, sing, Adela* eta beste hainbat.

## Antzerkia



BERGARA

**> 'Txanobarragorro', 18/98 sumarioan oinarritutako antzezlana gaur**

Gualdilandia Estatua. Orotariko Auzitegian lau lagun epaitzen ari dira, koloretsuegiak izatea leporatuta. Ander Lipus eta Bea Larrañaga aktoreekin. Gaur, egubakoitza, Zabalotegi aretoan, 22:30ean. Sarrerak, 5 eurotan.

## Musika



ARETXABALETA

**> Inalectriken kontzertua bihar, zapatua, Zaraia aretoan**

Iñaki Sagasta aretxabaletarra dugu Inalectrik. Rock australiarraren doinuak atsegin ditu, kantu akustikoak eta elektrikoak uztartuz. II. Danbaka musika lehiaketan hartu zuen parte. Bihar Zaraia aretoan izango da, 22:00etan.

## Musika

ARRASATE

**> Arrasate Musikaleko taldeen emanaldia**

Ikasturte amaierako kontzertua.

Gaur, egubakoitza, Amaia antzokian, 19:00etan.

ARRASATE

**> Goikobalu Txiki eta Goikobalu Gazteren emanaldia**

Ikasturte amaierako kontzertua. Sarasola, Dominguez, Escudero edo Garbizuren piezak eskainiko dituzte.

Gaur, egubakoitza, San Frantzisko elizan, 20:00etan.

ARETXABALETA

**> Decepcion Rock, Krisis, Residuos eta Uña Negra, gaur**

Lau taldek emanaldia egingo dute.

Gaur, egubakoitza, Haizea tabernan, 22:00etan.

ELGETA

**> 'Una noche con/sin Sabina' gaur Espaloian**

Joaquin Sabinaren bertsioak entzuteko aukera.

Gaur, egubakoitza, Espaloia Kafer Antzokian, 22:30an. 6 euro.

OÑATI

**> Ganbara kantu eskolako abesbatzak, bihar**

Talde guztien ikasturte amaierako emanaldia.

Bihar, zapatua, Santa Ana aretoan, 19:00etan.

ARRASATE

**> 3.60 aretoaren 'Agur elektronikoa' zapatuan**

Elektit, Koldo Intermusik, Haitz NW, Alain Elektronische eta beste hainbat disko jartzaile arituko dira.

Bihar, zapatua, 20:00etatik goizaldera arte.

BERGARA

**> Gabero, Orfeoi Txiki eta Orfeoi Txikitxoren emanaldia domekan**

Aitor Biainen zuzendaritzapean, abeslari gaztetxoen kontzertua.

Etzi, domeka, Mariaren Lagundian, 19:00etan.

## Antzerkia

ARETXABALETA

**> 'Renato' antzezlana gaur gauean**

Ganso Teatro taldearen eskutik, Gorka Zero aktorearekin. 2008ko Arrigorriagako Nazioarteko Klown Jaialdian estreinatutako lana. Emanaldia gazteleraz izango da.

Gaur, egubakoitza, Arkupen, 22:00etan. 8 euro.

## Dantza

ARETXABALETA

**> Dantza afroamerikarrak**

Jaiki elkartekoen dantza afroamerikarren ikasturte bukaerako jaialdia.

Gaur, egubakoitza, Aretxabaletako plazan, 19:30ean.

## Erakusketak

BERGARA

**> Laia Bedosen margolanak**

Bartzelonako margolariaren lanak Aroztegin.

Ekainaren 28ra arte Aroztegi aretoan. Martitzenetik egubakoitzera: 18:00-20:30. Zapatuetan: 12:00-14:00 eta 18:00-20:30. Domeka eta jaiegunetan: 12:00-14:00.

ARRASATE

**> Eskulan eta orratz laak**

Ekin Emakumeak taldearen eskutik.

Ekainaren 19ra arte, Harresi aretoan.

ARRASATE

**> Ainize Txopitearen margoak Arregi dendan**

Artista zarauztarrak collage bilduma jarri du ikusgai.

Ekainaren 29ra arte Arregi dendan (Maalako errebala, 8). Denda orduan zabalik, zapatuetan 10:00etatik 13:00era.

OÑATI

**> 'Oteitza, bizirako proiektua'**

Orioko artistan handiaren lanari gainbegiratua.

Kultura etxean, 21era arte. Egunero, 18:30etik 20:30era zabalik izango da erakusketa.

ARETXABALETA

**> Margo erakusketa Arkupen**

Pintura ikastaroko lanen erakusketa.

Ekainaren 30era arte Arkupen izango da ikusgai erakusketa.

BERGARA

**> EHGAMen 'Gure borrokaren koloreak' kultura etxean**

Ekainaren 28an ospatuko den Gay, lesbiana eta transexualen askapenerako Egunaren harira antolatutako erakusketa.

Ekainaren 22tik uztailaren 3ra. Astelehenetik egubakoitzera: 18:00-21:00.

## Ikastaroak

ARRASATE

**> Yoga eskolak Arrasaten, goizez eta arratsaldez**

Txindoki dorrean (Bañez Doktorea 1). Astelehen eta

PROPOSAMENA



BERGARA

### > Erdi Aroko azoka zapatuan eta domekan

Erdi Aroko azoka izango da oraingo aste bukaeran Bergaran. Artisauak San Martin plazan eta Muniben egongo dira; umeendako gunea Ariznoa plazan (epaitegi aurrean) kokatuko dute; eta historiako pasarteetako kontalariak San Pedro parrokiako elizpean. Horrez gain, ezpata borroka, hegazti harraparien erakustaldia erakustaldia, kale animazioa, bertso paperak, txalapartariak, euskal jolasak eta beste hainbat ekitaldi.

Bergaran, zapatuan eta domekan.

**ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA**

**ERAKUSKETA IRAUNKORRA:** 172 modulu interaktibo ezberdin dauzka, bi solairu eta 9 geletan banatuta. Komunikatzeko modu berri bat, esperimentu eta objektuen manipulazioa erabiliz.

**MUSIKA SOLSTIZIOA IZARREI BEGIRA**
**EKAINAK 21**

OSEren lankidetzarekin, Zientzaren kutxaGuneko Planetariumean **ikusentzunezko ikuskizun zoragarri** bat eskeiniko degu igandean, ekainak 21, eguerdiko 12 eta 13etan, udako solstizioa ospatzeko asmoz. Bertan, Ensemble Diatessaron taldeak Antonio Vivaldiren "Udaberria" eta "Uda" lanak interpretatuko dituzte zuzenean, kupula osoan irudi ederrak ikusten diren bitartean. Sarrera 3,5€€

Bestalde, goizeko 11etatik 13etara, museoko kanpoaldean **eguzkia behatu** ahal izango da Aranzadik bertan jarriko dituen teleskopioen laguntzarekin. Sarrera doan

**ETA GAINERA...**

**Elektrizitate ikuskizuna:** Ileak puntan jarriko dizkizun esperientzia. Ekainak 20an 13:15 eta 16:00tan eta ekainak 21ean, 12:00 eta 15:30tan.
**Planetarium Txikia:** 4-8 urte bitartekoek ere izarrak ikus ditzaten. Ekainak 20an 16:45 eta 17:30tan eta ekainak 21ean, 12:45, 13:30, 16:15 eta 17:15ean
**Esperimentuak zuzenean:**
Ekainak 20 eta 21ean, 18:00tan
**Simulagailuak:** Errusiar mendia eta tranbia gidatzailearekin disfrutatzeko aukera. Goizez: 12:15 – 13:45 eta arratsaldez: 17:15 – 18:45 asteburu eta jai –egunetan.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA
Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramon.org

kutxa | www.kutxasocial.net

eguaztenetan 09:30etik 11:00etara eta martitzen eta eguenetan 19:00etatik 20:30era.

Argibide gehiago ondoko telefono zenbakietan: 635 71 06 16 (Maite) edo 943 78 31 26 (Ana).

ARETXABALETA

**> Hainbat ikastaro egiteko aukera Arkupen**

Eskulanak, pintura, zeramika, fieltroa, fimoa, artile kardatua eta swaroski kristalak.

Argibideak Arkupe kultura etxean, 943 08 10 01 telefono zenbakian.

DONOSTIA

**> Euskal Kanpinaren Elkartearekin hainbat jarduera bihar**

Oraingo asteburuarako, ekainaren 20 eta 21erako, hainbat jarduera antolatu ditu Euskal Kanpinaren Elkarteak: eskalada, ibilbideak Pirinioetan…

Argibideak 943 27 18 66 telefono zenbakian.

# Lehiaketak

ARRASATE

**> Film labur lehiaketa: lanak jasotzeko epea astelehenean bukatzen da**

Arrasateko Emakume Txokoak film labur lehiaketa antolatu du. Emakumeenganako biolentzia da landu beharreko gaia. Iraupen mugatua izan beharko dute film laburrek. Lanak DVD euskarrian bakarrik aurkez daitezke eta bakarka zein taldeka parte hartu ahal izango da lehiaketan.

Lanak entregatzeko epea astelehenera arte, ekainaren 22ra arte zabalik. Argibideak: 943 79 41 39.

LEKEITIO

**> Euskal Zine eta Bideo Bilera Lekeition**

Edozein bideo sortzaile har dezake parte. Lanak DVD formatuan aurkeztu beharko dira, euskaraz. Lanak entregatzeko epea irailaren 11ra arte dago zabalik.

Argibideak 94 624 34 82 telefonoan edo *www.bideobilera.com* webgunean.

DEBA

**> Tene Mujika beka, historia hurbilaz idazteko**

Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak, Euskal Herriko historia hurbilaren ezagutza zabaltzeko eta gure literatura aberasteko asmoz, V. Tene Mujika beka sortu dute, 6.000 euroko dirulaguntza emango duena. Gure herriaren azken 50-60 urteetan izandako pertsona, talde, gertakari edo mugimenduren bati buruzko liburuak egiteko proiektuak aurkez litezke (adibidez: biografiak, kronikak, erreportajeak, saiakerak, elkarrizketak, ikerketak…); lanak jatorrizkoa eta euskaraz sortua izan beharko du.

Proiektuak, datorren abenduaren 1era arte bidal litezke helbide honetara: Tene Mujika Beka, Debako Udaletxea, 20820 Deba.

# Zinema




## Los mundos de Coraline *****

Zuzendaria: Henry Selick.
Marrazki bizidunak. AEB, 2009. 101 min.

*Los mundos de Coraline* da Henry Selicken azken proposamen liluragarria. Zuzendariak Tim Burtonekin batera *Pesadilla antes de Navidad* egin zuen, *James y el melocotón gigante* ere kontuan izateko lan ederra izan zen, eta orain, bere azkeneko lanarekin ikuslea txundituta uzten du. Teknikoki irudiak ezin hobeak dira, ikusten duguna ez dira marrazkiak, dena panpinekin egina dago, eskuz mugitzen dira panpinak eta gero fotograma guztiak bilduz, etengabeko mugimenduaren sentsazioa sortzen da. Hau dela eta, teknologiak artisauen aldera jotzen du. Bide hori hartzeak lan handia suposatzen du, baina azkenean lortutako emaitza ezin hobea da.

Istorioak baditu *Alicia en el país de las maravillas*-ekin osagai komunak. Bi mundu desberdinen izatea, mundu batetik bestera eramaten gaituen ate txiki bat… Errealitatea eta fantasia, desberdinak dirudite baina azkenean nahasten diren bi munduak dira. Coraline bere gurasoekin etxe berri batera bizi izatera doa, gurasoak oso lanpetuta daude, eta neskatila bakarrik sentitzen denez, beste mundu bat guraso atseginekin irudikatzen du. Baina aldaketa bat izango da, eta istorioak fantasiatik beldurrezko generora joko du. eta *Los mundos de Coraline*-n tonua maltzur eta ilun bihurtzen da, eta ametsak amesgaiztoto bilakatzen dira. Irudimenaren alde argia eta iluna elkartzen dira ipuin ikaragarri eta erakargarri bat osatzeko. Dena den, oso txikiak diren haurrak aretotik ikaratuta atera daitezke ikusitako eszena batzuekin.

Filmeko bi bertsio ezberdin ikus daitezke. Zinema gela gehienetan bertsio arrunta, eta beste zinema gutxitan hiru dimentsioko bertsioa. Nik bertsio arrunta ikusteko aukera izan dut, eta horrela ikusita ikuskizun ederra bada ere, irudiak ikusterakoan antzematen da hiru dimentsioko bertsioa zoragarria izango dela.

Antonio Zabala

### OÑATI

**KULTURA ETXEA**

**Ángeles y demonios**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

### BERGARA

**ZABALOTEGI**

**XXY**
Eguena: 20:00.

### EIBAR

**UNZAGA**

**Sukalde kontuak**
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.

**Transformers 2: La venganza de los caídos**
Eguaztena eta eguena: 17:30, 22:30.

### GASTEIZ

**GURIDI**

**Kika superbruja y el libro de hechizos**
17:00, 18:45.

**Ángeles y demonios**
18:00, 20:45.

**Terminator salvation**
17:30, 20:00, 22:30.

**Cleaner**
17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

**No-Do**
22:30.

**Vacaciones de ferragosto**
20:30 22:30.

**Cher ami y yo**
17:00, 18:45, 20:30.

**Corazón de tinta**
17:30, 20:00, 22:30.

**Ejecutiva en apuros**
17:30, 20:00, 22:30.

Egubakoitzetik domekara.

**FLORIDA-GURIDI**

**Los hombres que no amaban a las mujeres**
18:00, 20:45.

**Los mundos de Coraline**
17:30.

**Coco, de la rebeldía a la leyenda de Chanel**
17:30, 20:00, 22:30.

**Amor, dolor y viceversa**
18:00, 20:15, 22:30.

**La belle personne**
18:00, 20:15, 22:30.

**La caja de Pandora**
17:30, 20:00, 22:30.

**El primer día del resto de tu vida**
18:00, 20:15, 22:30.

**7 minutos**
20:00, 22:30.

Egubakoitzetik domekara.

**YELMO-GORBEIA**

**Obsesionada**
16:35 (zapatuan eta domekan), 18:35, 20:35, 22:35, 00:35.

**Corazón de tinta**
16:15 (zapatuan eta domekan), 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

**Ejecutiva en apuros**
16:20 (zapatuan eta domekan), 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

**Cher Ami y yo**
16:25, 18:25 (egubakoitzean eta domekan); 16:45, 18:45, 20:45. (zapatuan).

**Terminator salvation**
15:45, 17:00 (zapatuan eta domekan), 18:00, 19:15, 20:15, 21:30, 22:30, 23:45, 00:45.

**Los mundos de Caroline**
(3D digital emanaldiak)
18:30, 20:30, 22:30, 00:30 (zapatuan eta domekan).

**Jonas Brothers: The 3D concert experience**
(3D digital emanaldiak)
15:30, 17:00 (zapatuan eta domekan).

**Los hombres que no amaban a las mujeres**
15:40 (zapatuan eta domekan), 18:30, 21:30, 00:25.

**¿Hacemos una porno?**
16:00 (zapatuan eta domekan), 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

**Presencias extrañas**
22:10, 00:10.

**Noche en el museo 2**
16:10 (zapatuan eta domekan), 18:10, 20:10.

**Ángeles y demonios**
15:30 (zapatuan eta domekan), 18:00, 20:30, 23:30.

**Te quiero, tio**
20:25, 22:25, 00:25.

**Hanna Montana: la película**
16:40 (zapatuan eta domekan), 18:40.

**Fuga de cerebros**
21:50, 23:50.

**Kika superbruja y el libro de hechizos**
15:50 (zapatuan eta domekan), 17:50, 19:50.

**7 minutos**
20:40, 22:40, 00:40.

**No-Do**
22:45, 00:45.

Egubakoitzetik domekara. Gauerdiko emanaldiak zapatuan.

**ÁBACO BOULEVARD**

**Corazón de tinta**
16:05, 18:15, 20:25, 22:35, 00:45.

**Ejecutiva en apuros**
16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

**Cher Ami y yo**
16:25, 18:20, 20:15, 22:05.

**¿Hacemos una porno?**
16:00, 18:10, 20:25, 22:35, 00:45.

**Ángeles y demonios**
16:30, 19:20, 22:05, 00:45.

**Siete minutos**
20:30, 22:40.

**Noche en el museo 2**
16:20, 18:25, 20:30.

**Te quiero, tio**
20:25, 22:35, 01:00.

**Coco, de la rebeldía a la leyenda de Chanel**
20:25, 22:35, 00:45.

**Los mundos de Caroline**
16:15, 18:20.

**Obsesionada**
16:00, 18:05, 20:20, 22:40, 01:00.

**Fuga de cerebros**
16:10, 18:15.

**Terminator salvation**
15:55, 18:10, 19:30, 20:30, 22:00, 22:45, 00:45.

**Kika superbruja y el libro de hechizos**
16:10, 18:00, 20:00.

**Presencias extrañas**
22:35.

**Hanna Montana: la película**
16:10, 18:20.

**La sombra del poder**
22:30, 01:00.

Ekainaren 19tik 23ra. Gauerdiko emanaldiak egubakoitzean eta zapatuan.



**XXY ****

Argentina, 2007. Zuzendaria: Lucia Puenzo. Aktoreak: Ricardo Darín, Inés Efron, Martín Piroyanski, Germán Palacios. 91 minutu.

2007ko Canneseko Jaialdiaren barruan aurkeztu zuten, Kritikaren Astean, eta Oscarretarako eta Goya sarietarako ere izendatu zuten. Alexek 15 urte ditu eta sekretu bat gordetzen du; haren gurasoen lagun batzuk bisitan heldutakoan Alvaro gaztetxoa ezagutuko du…

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**Lejos de la tierra quemada ****

AEB, 2008. Zuzendaria: Guillermo Arriaga.

Alejandro Gonzalez Iñarrituren (Amores perros) gidoigile izandako Guillermo Arriagaren lehenbiziko filma. Jatetxe bateko gerentea da Sylvia (Charlize Theron), lanean eta bizitzan bi aurpegi erakusten dituena. Goiz ala berandu bere iraganari aurre egin beharko dio….

**25 kilates**

Espainia, 2008. Zuzendaria: Patxi Amezkua.

Zorrak ordaindu ez dituztenei kobratzen egiten du lan Abelek; autoak lapurtzen ibiltzen da Kay; haren aita Sebasek lapurtutako gauzak erosten ditu; Garro lapurreten aurkako brigadako inspektorea da… Azken kolpearen zain daude denak.

**El curioso caso de Benjamin Button *****

AEB, 2008.
Zuzendaria: David Fincher. .

David Fincher zuzendariaren (*Zodiac*) azken lana Oscarretako galtzaileetako bat izan genuen, bigarren mailako hiru saririkin konformatu behar izan zen-eta. Benjamin Button (Brad Pitt) 80 urterekin jaioko da eta urteak atzetik aurrera beteko ditu…

**The reader**

AEB, 2009. Zuzendaria: Stephen Daldry.

Michael Berg 15 urteko gaztea gaixotu egingo da etxetik eskolarako bidean, eta Hanna Schmitz emakumeak jasoko du. Haien artean pasiozko harreman bat piztuko da, Hanna desagertzen den arte… Nazien eskuetan eroriko da Hanna. Oscar saria Kate Winslet protagonistarendako.

**Gran Torino ****

AEB, 2009. Zuzendaria: Clint Eastwood.

Walt Kowalski Koreako gerrako soldadu ohi bat da. Egun batean deskubrituko du bere altxor preziatuena lapurtu nahi diola Asiako jatorriko bizilagun nerabe batek: 1972ko Gran Torino autoa. Arrazismoaren inguruko drama.

**Ponyo en el acantilado**

Japonia, 2007. Zuzendaria: Hayao Miyazaki.

Sasuke bost urteko umearen eta Ponyo arrainaren arteko harremana kontatzen du Hayao Miyazakiren (*El viaje de Chihiro*) marrazki bizidunetako film honek. Gizaki bihurtzea da Ponyoren ametsa…

## nire aukera



Maier Etxebarria
Aretxabaletako Jaiki elkarteko idazkaria

# Ikasturte bukaerako jaia

Jaiki elkartekoek dantza afroamerikarren ikasturte bukaerako jaialdia egingo dute gaur, egubakoitza, Aretxabaletako plazan, 19:30ean. Magdalena Milano venezuelarra izan da irakaslea; gaur, nahi dutenek, dantza egiteko aukera izango dute plazan.

Joan den abenduaren 29an jaio zen Maier Etxebarriaren lehen semea, Peru, eta abenduaren 22ra arte ikastaroan jardun zuen. Azken asteotan itzuli da dantza eskoletara. Lanean eszedentzian dago orain: eskoletan integratutako haur ezindu fisikoen fisioterapeuta da. Psikomotrizitate tailerrak ere ematen ditu.

**Nolakoa jaialdia gertatu duzue gaurko?**

Jaialdi laburra eta xumea izango da. Kolorezko oihal batzuk jarriko ditugu plazan eta ikastaroan ikasitako dantza pare bat eskainiko dugu. Ondoren, Magdalena irakaslearen azalpenak jarraituta, dantza egin ahal izango dute nahi dutenek.

**Dantza eskolez gain, bestelako jarduerak ere antolatzen dituzue Jaikin.**

Azken bi urteotan gorputz espresioa eta garapen pertsonalarekin lotutako ekintzak egin ditugu. Datorren aste bukaerarako, hilaren 27 eta 28rako, Jaiki Asteburua antolatu dugu Galartza auzoan; klown tailerrak, sendabelarrena, emozioen eraketa edota jolasak ikasiko ditugu elkarrengandik.

**San Juan ospatzeko ohiturarik baduzu?**

Bai, su bakarra egoten da Aretxabaletan, plazan, eta hura ikustera joaten gara. Gustatzen zait San Juanetako gaua.

**Udarako, planik bai?**

Ziurrenik astebete Pirinioetara eta beste bizpahiru aste Galizia eta Leon ingurura joango gara.

**Hartu duzu lehenbiziko bainua itsasoan?**

Bai, Deban, orain pare bat aste.

Edu Mendibil

Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2009-06-19

# Txokolatea umeei gerturatuz

**ESKOLAK** Txokolatearen kultura ikasleengana zabaltzeko asmoz, umeendako saioak egingo dituzte

**PERGOLA** Oñatiko Txokolateixaren kanpoaldeko pergolan ematen dizkie azalpenak Anton Azpiazuk umeei

**PROBATU** Txokolatearen historiaren eta elikaduraren gaineko azalpenak entzuteaz gain, txokolatea jaten dute

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > OÑATI

Umeei txokolatea gerturatuz gero, berehala kentzen dizute eskuetatik. Baina txokolatea ez ezik, hain gozo preziatuaren inguruan sortutako kultura gerturatzeko, umeendako saio bereziak egin ditu Anton Azpiazuk Oñatiko Txokolateixan. "Txokolatearen kultura eskoletara eraman nahi dugu. Jakiteko txokolatea zer den, nolakoa den, kakaoa non sortzen den, zein propietate dauzkan…", esan digu Azpiazuk.

Hiru talderen bisita jaso du jadanik eta dendaren aurreko aldean dagoen pergolan egin ditu ordu erdi eskaseko saioak azalpenak emanez, umeek txokolatea probatzen zuten bitartean.

**ELIKADURAZ AZALPENAK**

Dietista batekin egin du berba Azpiazuk eta hark esandakoan oinarrituz umeei azalpenak ematen dizkie: "Esaten diet egunero gauza ezberdinak jan behar direla: barazkiak, ogia, txorizoa, urdaiazpikoa, gazta, txokolatea… Ezin dela gauza bat gustuko dugulako hura bakarrik jan. Barazkiak eta frutak janez hazi egiten dela eta gozoki eta txokolate gehiegi janez gero, berriz, loditu".



**BISITA** Arizmendi ikastolako Olarte guneko 5 eta 6 urteko umeak Oñatiko Txokolateixan izan ziren. ARIZMENDI

Azalpenak entzun bitartean txokolatea probatzeko aukera ere badute: zuria, beltza eta esneduna. "Txokolatea jan eta batetik bestera zein ezberdintasun dauden esan ostean, egunean gutxienez hiru aldiz hortzak garbitu behar direla gogorarazten diet, behar bezala garbitu ezean azukreak kalte egiten duelako".

Elikadura kontuak ez ezik txokolatea egiteko moldeak eta prozesuaren berri ere ematen die Azpiazuk eta ikasleek galderak egiteko aukera ere badute: "Kakaoak kolore hori nola duen galdetu zidaten behin eta azaldu nien zuria dela berez eta lehortzen denean beltzen dela; beste batzuek harrituta galdetu zidaten kakaoa beltza izanik txokolate zuria nola egiten den…".

Aurrerantzean ere jaso nahi luke umeen bisita, eta interesatuek 672 080 263 zenbakira deituz zehaztu dezakete hitzordua.

## ahobero

### "Cristiano Ronaldo eta biok, Beckham eta *Spice* aberaskumea baino famatuago izan gaitezke"

**Paris Hilton** > Hilton inperioaren oinordekoa

Usoa usoarekin eta belea belearekin dio esaerak, baina oilarrik harroenak eta oilorik dotore ustekoenak egin dutebat famatuen oilategian. Victoria Beckhami aberaskume deitzea, bera denean lumak harrotuta aitaren kontura bizi dena.

## iturri onetik

### Malenkonia talde oñatiarrak uztailean aurkeztuko du bigarren lana

*Hegazkadak dakar ekaitza* estudioko bigarren laneko grabazioa amaitu du Malenkonia taldeak. Otxandioko Liant estudioan grabatu dute eta asmoa da uztailean aurkeztea hamar abestiz osatutako lan berria. Hala ere, single moduan aukeratu duten *Haizerik gabeko eguna* abestia *www.myspace.com/malenkonia* helbidean sartuta aurrez entzuteko aukera izango dute zaleek.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > 'www.goiena.net/blogak/piperrautsa'

### Laino beltzak

Ekonomia sailburuak adierazpen ilunak egin ditu asteon: diru sarreren beherakada, aurrekontuak murriztu beharra, aldi luzerako defizita… Eta aurreko Jaurlaritzari leporatu dizkio hainbat akats.

Aurkitu duten egoerari buruz esandakoak eztabaidagarriak dira, ez baitzituen alferrik babestu alderdi sozialistak indarrean dauden aurrekontuak. Aurten defizita ezinbestean ekidin beharra ere ez dut ondo ulertzen; ohikoa da horrelakoetan zorpetzea, familiak bezala erakundeak. Eta argia noiz hasiko den, horixe da argi ez dagoen kontua. Eta, beraz, sailburuarena iritzi bat da, besterik barik. Agerraldi honi zantzua hartu diot arinkeriarena, asmo eta neurri zehatzagoak eskatu beharko dizkiogu Agirreri, lehen ehun egunak betetzen dituenean.

## ai, ene!



### Hodien bidez bat egindako lastotxoak

Jadanik ez dago kalimotxoa edo beste edari konbinatuak gertatzen denbora galdu beharrik, lastotxo horiekin egiten da nahastea.

www.thinkgeek.com

JUBAR® ATEAK, S.L.
DQ certificación ER 02/518 ISO 9001/00 ACREDITADO POR ENAC
Ondo ibili San Juanetan!
• Garajeko ateak
• Segurtasunezko pertsianak
• Automatismoak
• Konponketak
• Urrutiko aginte tresna homologatuak
• Oinezkoen ateentzako sistema automatikoak
Oinezkoentzako

kaleak babesteko
Zabaldu ezazu zure atea

mugikorrarekin
Ate sekzionalak


Pertsianak
Kataide industrialdea 18 • Tel.: 943 79 10 20 • Faxa: 943 79 08 17 • 110 posta-kutxa • ARRASATE • *jubarateak@euskalnet.net* • *www.jubarateak.com*